

BERTSO LARI


ALDIZKARIA

2018 NEGUA
10 EURO

112

**NONDIK GATOSZ?
NORA GOAZ?**

BERTSOZALETASUNAREN
III. AZTERKETA SOZIOLOGIKOA



euskara bidegurutzetik aurrera

euskar4.0



ORAIN
GIPUZKOA



BERTSOLARI ALDIZKARIA
NONDIK GATOZ? NORA GOAZ?
BERTSOZALETASUNAREN III.
AZTERKETA SOZIOLOGIKOA
112 ZK. / NEGUA 2018

www.bertsolari.eus

EDITATZAILEA:

BERTSOZALEAK KULTUR ELKARTEA
 Martin Ugalde Kultur Parkea / 20140 ANDOAIN
 TELEFONOA: 688 827 545

HELBIDE ELEKTRONIKOAK:
koordinazioa@bertsolari.eus
administrazioa@bertsolari.eus
bertsoiragarkiak@bertsolari.eus

ZUZENDARIAK: Beñat Hach Embarek Irizar
 eta Antxoka Agirre Maiora
 ERREDAKZIO BATZORDEA: Ainhoa Agirreazaldegi,
 Manex Mantxola, Alain Ulazia, Andoni Lubaki, Andoni
 Egaña, Oihana Aranburu, Antxoka Agirre, Oihana Iguaran,
 Zezilia Herrador eta Beñat Hach Embarek
 KUDEAKETA: Antxoka Agirre Maiora
 ADMINISTRAZIO KONTUAK: Zezilia Herrador Garin
 WEBGUNEAK: Beñat Hach Embarek Irizar
 ARGAZKIAK: Conny Beireuther Crezburg
 DISEINU ETA MAKETAZIOA: Txema Gartzia Urbina
 MARRAZKIAK: Patxi Gallego Palacios
 EUSKARA ZUZENTZAILEAK: Txiliku Aranguren eta
 Bea Zabalondo Loidi
 INPRIMATZAILEA: Gráficas Lizarra
 D.L.: SS 482/91

AURKIBIDEA

003 ZALDI EROAREN ERRIMA SEKRETUA

004 HEMEROTEKA

012 KANPOTIK: GARBIÑE ARANBURU

014 ERREPORTAJEA: NONDIK GATOZ, NORA GOAZ?

BERTSOZALETASUNAREN III. AZTERKETA SOZIOLOGIKOA:
(018) HIRUGARREN INDUSTRIA IRAULTZAKO BERTSOLARITZA,
(050) BEÑAT GAZTELUMENDI, (080) XABIER AIERDI

108 ERREPORTAJEA: SORMENA UNIBERTSOLARITZAN. ZIENTZIA
ETA BERTSOLARITZAREN ARTEKO TALKA ETA LAZTANAK

128 ZORTZIKO HANDIA

132 ERREPORTAJEA/ELKARRIZKETA: BERTSOLARI LETRA-EGILEAK:

XABIER AMURIZA, IGOR ELORTZA ETA MADDALEN ARZALLUS

168 ERREPORTAJEA: URKABERAKO KANTAK DIRELA ETA

JEAN ETCHEPARE DONAPALEUKOAREN KONPLAINTAK (1873-1890)

194 TTAKUN-HERREN: IZAR MENDIGUREN ETA

IÑAKI GURRUXAGA

198 IDAZMAKINAZ: ABEL ENBEITA

200 NAZIOARTEA: POESIA CAMPIDANDARRA

EUSKALDUNENTZAKO / LA POESIA IMPROVISATA NELLA
SARDEGNA MERIDIONALE

216 BERTSO IBILBIDEA: GOIERRIKO TXOKOAK

230 KOMIKIA NORI



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa

KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



NEGUAREN GORRIAN DATOR 112. ALEA, ELURRETAN JAIO ETA IZOTZETAN BATAIATUA. “San Tomas eguna, argitu orduko iluna”, dio esaera zaharrak, eta izan neguko eguzki izpitan, edo lanpara baten ñir-ñirpean, badakargu zer irakurri.

Zaldieroaren gai-jartzailegintza modernoarekin egingo duzu topo lehen orrian, ondorengoan lehen lerroko emakume batekin elkartzeko, **Kanpotik** atalean: Garbiñe Aranburu, Langile Abertzaleen Batzordeetako idazkari nagusiarekin.

Bertsozale Elkarteak eskatuta, **Bertsozaletasunaren III. Azterketa Soziologikoa** egin du EHUKo soziologo talde batek azken hiru urteetan zehar. Azterketak emandakoa hiru lagunen ikuspuntutik begiratu dugu: batetik, Harkaitz Zubirik ikerketaren laburpena eta nabarmendu beharreko atalak bildu ditu; eta bestetik, Ainhoa Agirreazaldegik Beñat Gaztelumendi (Ikerkuntza taldeko arduraduna) eta Xabier Aierdi (Soziologian Doktore) elkarrizketatu ditu.

Alain Ulazia astrofisikaria da, baita bertsozale amorratua ere (bertsolaria ere bai, dakigunagatik). Zientzia eta bertsolaritzaren arteko talka eta laztanen inguruan idatzi du, **Bertso-Zientzia** saioak hizpide.

Ur handitan sartu da Jokin Bergara: **bertsolari letra-egileen lana** gertutik ezagutu nahi izan du. Hiru belaunaldi ordezkatzeko dituzten hiru sortzailerengana jo du horretarako: Xabier Amuriza, Igor Elortza eta Maddalen Arzallus.

Patri Urkizu filologo eta euskaltzainak bertso genero ezezagun samar bati buruz idatzi du ale honetan: **Konplaintak**, Donapaleuko Jean Etchepareren Urkaberako kantak (1873-1890).

Ttakun-Herren atalean, Izar Mendiguren eta Iñaki Gurrutxaga genero ezberdintasunaz mintzo dira. Abel Enbeita bertsolari zenbait oroitza partekatu ditu gurekin **Idazmakinez** sekzioan. Nazioarteari dagokionez, Paolo Zedda inprobisatzaileak eta Marco Lutzu musikariak idatzi digute **Sardiniatik**, haien herriko bat-batekotasunaren inguruan.

Bertso ibilbidea Iñaki Apalategi bertsolari beasaindarrarekin egin dugu, bertsoarekin zerikusia duten Goierriko zenbait txoko bisitatuz.

Amaitzeko, Xabi Paya eta Patxi Gallego egosten dabiltzan **NORI komikiaren** beste bi orrialde irakurri ahalko dituzu.

ILUSTRATU, ADISKIDE!



Bai jaritzailengintza MODERNOA

By
Zaldi
Eroa





ARGIA
ESTITXU EIZAGIRRE
2018/10/16

ADRIANA OTAÑO ETA MIKAELA ELIZEGI: EMAKUMEAK BERTSO ONDAREA ALETZEN

Hitzaldi berezia eskaini genuen urriaren 10ean Zizurkilen, udalak antolatuta: bailarako bi bertsolari handiren bi alaba hartu genituen ardatz, eta bi emakume haiei esker gaur arte iritsi zaizkigun bertso (batzuk oso) ezagun eta (denak) ederrak entzun ahal izan genituen, Unai Mendizabal eta Oihana Iguaranez kantatuta eta Tomax Lizardik gitarraz lagunduta.

Aleak hautatu eta gordetzea: kultur lan funtsezkoa emakumeen esku.

Emakumeek kultur lan oso funtsezko hau ere egin izan dute: etorkizunerako haziak hautatzea. Etxeko uztatik,

bertako ondasunetik, aleak hautatzea eta etorkizunerako gordetzea, berriz ereiteko. Hazien hautaketa horrek etxean belaunaldiz belaunaldi metatzen den kultura gordetzen dute: dugun horretatik zeri ematen diogu balioa? Nola gorde, nola zabaldu? Hitzaldira bertararutako entzuleek oparixto batekin egin zuten topo aulkian: babarrun eta arto aleak biltzen zituen kartoizko kaxatxo bat, kanpoaldean emakume bertsolari baten bertsoa idatzita zuena (emanaldian entzungo genuen bertsoetako bat zen).

Bailarako bi bertsolari familietako bi emakume dira artikuluko honetako

protagonista: Mikaela Elizegi, "Pello Errotaren alaba" gisa ezaguna dena, eta Adriana Otaño, Plazida Otaño bertsolariaren ahizpa txikiena, Jose Bernardo bertsolariaren alaba, Pedro Mari Otaño bertsolariaren lehengusua. Eta hara nola datozen pare-parean bi emakume haiek bertso haziak hautatzeko eta gordetzeko langintzarekin. Horrela du idatzita *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua* liburuan Antonio Zavalak (13. orrian): "Adriana, Jose Bernardoren alaba. Ura bezin iturri oparorik ez nuala arkituko. Ala, bi edo iru bider bisitatu nuan. Izketaldi aietatik atera

nuana liburu ontan arkituko du irakurleak. Bide-gurutze batean arkitu nintzan, ordea, une artantxe. Adriana onek larogei ta bi urte zituan. Pello Errotaren alaba Mikelak, berriz, larogei ta amairu. Noren oroipenak biltzen asiko nintzan? Zalanta ortan denborarik galdu gabe, zaarrenarengana jo nuan. Orrela osatu zan *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua* liburua. Beste aldera artu izan bagendu, *Jose Bernardo Otañoaren bizitza bere alabak kontatua* liburua izango genduan. Bitartean, ordea, Adrianari mundu ontatik joan berrira iritxi zitzaion. Mikelak, berriz, beste sei urteko bizitza izan zuan".

Adriana Otaño Odriozola
1880an jaio zen Zizurkilen, Errekalde baserrian. Aita Jose Bernardo Otaño bertsolaria zuen eta ama Klara Inazia

Odriozola Urbiztondo, Beizamakoa. Bederatzi anai-arrebetatik zazpigarrena zen, Plazida zuen ahizpa zaharrena. Adriana, Inazio Bengoetxea Martiarenarekin ezkondu zen eta Adunako Belen etxean bizi izan ziren.

Teodoro Mujikkak honela kontatu zion Antonio Zavalari: "Egun batez, hauxe galdetu nion:

– Adriana, zure aitak bai al zuen ohiturarik etxean edo familian bertsoan aritzeko?

– Bai, mutil, bai. Gehienez bere semeren bat edo alabaren bat izaten zian lagun egiteko, eta bakarrik ere kantatzen zian harek, etxean edo familian. Ura hartarakoxea huan, eta hari etzitxion hori kentzerik".

Beraz, etxean bertsoan egiten zuten garai hartan, ez



Mikaela Elizegi.



Pello Errota.

tabernan bakarrik. Eta etxean gizonak eta emakumeak aritzen ziren bertsoan. Adriana Otaño eta Mikaela Elizegiri esker dakizkigu beren familiako gizon bertsolari handien bertsoarik intimoenak, bizitzako gorabeherei lotuen dauden bertsoak. Adibidez, Adrianari esker iritsi dira gaur arte Pedro Mari Otaño eta bere osaba Jose Bernardok (Adrianaren aitak) elkarri kantatutako bertso epiko hauek:

Pedro Mari ohearen bila.

[Bideoan 9:15 minutuan]. Adriana Otaño horrela kontatua du *Otaño eta bere ingurua* liburuan: “Pedro Mari Otaño Amerikatik etorri zan. Donostiko Lasarterekin zan. Bere lagun bat zuan hori, oso gizon baliantea. Atea piska bat iriki zutela uste det, eta Pedro Mari kantatu zuan:

Nere osaba, ez baldin badu eginkizun aundin bat hor, gizon bat dago berorren galdez,

ate ondoraño betor. Bedorrek ondo dakiena da agintzen dana dala zor bera jaio zan ohiarcn bila iloba oraintxen dator.

Ni aditzen nengoan. Eta gure aitak [Jose Bernardo Otaño] honela erantzun zion ate barrendik:

Nere illoba, esaten dizut ongi etorri zerala, jaiotako ohia jantziko dizut gusto haundiz berihala, arropa zuri ederrenakin, parpallak darizkiola, sinistamena eman deizudan bihotzez nahi dizudala.

Besterik ez dakit kantatu zuten. Orduan atea iriki ta barrena sartu ziran Donostiko Lasarte haundi hori eta Pedro Mari. Ama sukaldean eta ni sukaldera joan nintzan korrika, berari esatera:

— Ama, ama, bertsoan ari dira! Eta amak esan zidan: — Bai, bai. Ixo, ixo. Egin dezatela.

Bitartean kantatuko zuten gehiago. Baina ez nituan aditu. Hala beharko zuan. Ni neska koskorra orduan”. Adrianak bederatzi edo hamar bat urte izango zituen orduan. Baina bazuen bere ingurukoen bertso aleak hautatu eta gogoan hartzerakoan, kantatuak izan ziren bezala hartzeko nahi hori. Izan ere, Adrianak honelatsu esan zion Antonio Zavalari 1960 urte inguruan: “Lehengoan hemen kantatzen ari ziren bertso horiek, eta esan nuen: ‘Ez da hori horrela’. Nik han aditu nituan”.

Otañotarren gutunak.

[Bideoan 13:10 minutuan]. Otañotarren bertso jarriak ere famatuak dira, Zizurkildik Argentinara eta Argentinatik Zizurkila, bertsoan bidaltzen baizizkioten sarri elkarri eskutitzak. Pedro Mari bere

osaba Jose Bernardori egin ziona, Aita Zavalaren hitzetan: “Ziur asko, bertsoan euskeraz iñoiz idatzi dan eskutitzik bikaiñena eta famatuena”. Amabigarren bertsoan esaten denez, arrebak eskatu zion Pedro Mariri bertsoak jartzeko, osaba Jose Bernardok bialdu zizkionei erantzuteko. Zorionez, osaba Jose Bernardok bialdu zituen horietatik, bertso bat osorik eta beste baten bukaera ezagutzen ditugu, beraren alaba Adriana zanak emanda:

Saso onenak aldegin zigun, ez gaude lehengo tamainak; eta lehen ere, egia esan, ez ginan oso bikainak; memoritikan notizi txarra, trabak daduzka mingainak, dijuazenak baino hobekak esperatze’itut ordainak.

Eta bestearen bukaera: ia etortzen ote zeraten nere anaia ta biok.

Mikaela Elizegi Bengoetxea.

1869an jaio zen, aita Pello Errota bertsolaria zuen eta ama Joakina Antonia Bengoetxea Zizurkilgo Galardi baserrikoa.

Berari esker idatzi zuen Antonio Zavalak Pello Errotaren historia. Honela kontatzen du “Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua” liburuaren sarreran: “Pello Errotaren seme-alabaetatik bat bakarra bizi da, Mikela, 94 urterekin. Jaun-goikoari eskerrak, urteak ez diote batere burua illundu, ezta ere mingaña lotu. Makiña bat arratsalde goxo pasa izan degu bera kontari ta ni entzule. Ta obe bearrez,



bereala asi nintzan magnetofon bat eramaten. Arrezkero, arek jasotzen zuan gure berriketa guzia”.

Mikaela Elizegirik errotaritzak ikasi zuen, aitaren ofizio bera zuen. Eta bera ere bertsolaria zen, aita bezala.

Pasarte honek lotzen ditu aita-alabaren arteko bi hariak, errotariena eta bertsolariena. Mikaela Elizegiren hitzak dira, *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua* liburuan:

“Errotarien bizitza zer izango da ba? Ekartzen zuten gari ta arto-lakakin bizi bear gu danok. Familia aundia giñan da, orain aña pantasi gabe azi ginian, bai! Gure aita gizajoak etzion bere buruari asko barkatu. Al zuan modu guzietara sayatu bearra izan zuan, gu danontzako lortuko bazuan. Orregatik, bertsotara joanda dirua ekartzen zuanean, pozak gu danak. Orain urte asko ez dala, San Pedro bigarren batean, Uztapide gure etxean, Astiasun, bazkaltzen izan genduan. Ta bazkalondoan bertsoa bota zidan, “amona, zer moduzko biziya” galdetuaz, ta nik olaxe erantzun nion:

Pobriak jayo eta pobriak biziya,
inork eztit ukatzen,
eman nai guziya,
nunbait izango ditut
danak mereziya,
zor artzekotan kito,
Jaunari graziya”.

Uztapideri bertsoa botatzeko bertsolaria behar zuen. Etxean egiten zuten bertsotan, lehen esan dugun moduan. Mikaelaren beste bi

bertso ere iritsi dira gaur arte, 80 urterekin, famili ospakizun batean kantatutakoak.

Joxepa Inaxi Elizegi Bengoetxea. [Bideoan 19:40 minutuan]. Mikaela Elizegiri esker dakigu, baita ere, bere ahizpa Joxepa Inaxi bertsolaria zela. Merezi du Joxepa Inaxi Elizegi bertsolaria ezagutzea. Baliteke bera izatea (XIX. mendean) sagardotegian kantatu zuela ezaguna zaigun lehen emakume bertsolaria. **Artikulu honetan duzu,** Zizurkilgo hitzaldian emandako azalpenak idatzita.

Pello Errotaren bertso ezagunenak. Mikaela Elizegi bertsolaria beraz, Uztapideri kantatutakoa, bere ahizpa Iñaxirekin kartaz bertsoak idatzitakoak elkarri, eta Mikaelari esker dakizkigu, baita ere, Pello Errotaren bertso asko. Batzuk oso ezagunak, besteak oso intimoak, etxeokak. Hemendik aurrera entzungo ditugun bertsoak Pello Errotarenak dira, denak Mikaelari esker dakizkigunak.

Bertso famatuenetako bat hauxe, Karidadeko bentan kantatu zuena, eta Mikaelari esker iritsi zaiguna:

Karidadeko bentan gu sei bertsolari, Errekalde zaharra ta Juan Jose Udarregi, Bernardo Zizurkilko Gazteluko Gorri, Errenterikua da Xenpelar jaun hori, ni Astiasukua, Pello Errotari.

Donostiako Teatroan. [Bideoan 27:10 minutuan]. Mikaelak horrela kontatu zion Antonio Zavalari: “Hurrengo bertso hauek Donostiko Teatruan nik neronek adituak dira. Hamasei bat urte izango nuan nik ordun. Inaxi ahizpa ta biok [Joxepa Inaxi Elizegi, bertsolaria, gorago aipatu duguna], aitak pagatu gabe sartu giñun, eta goi-goyen egon giñan bertsoak aditzen. Aurretik esan ziotena, ‘Zer moduz bizi zera’ edo holako zerbait zan. Ta gure aitak bi bertso auekin erantzun zion”:

Larru gorrian jayo nintzan da ez det aberastasunik, nigatik ezta iñork esango kaballerua naizenik, gure Jainkuak gau eta egun ez dit palta osasunik, tamaña honetan naizen artian ez daukat estuasunik.

Lehenago esan det jayo nitzala ni ere larru gorrian, mundu onetan ez naiz bakarrik beste askoren neurrian, zitudade ez da haundia agertzen Astiasuko herrian, bolara hontan bizitutzen naiz oso kontentu haundian.

Anaiaren soldaduska. [29:05 minutuan]. Mikaela mintzo da berriz Auspoko liburuan: “Besteak ordurako hillak ziran ta Migel Anton genduan

ordun anaya bakarra. Ta kinto-eguna etorri zitzaion. Jai-goiza zan ta Donostin tiratzen zituen suerteak. Ama etzan gauza elizara ere joateko, ta bildurrez ta kezketan zegoan.

-Hau lana! Seme bakarra etxean, da orain zer ikusi bear degu? -esaten zuan.

Aita berriz, bezperan nonbait ere kanpoan izana zana badakit, ta artean gaita xamarrean zegoan. Ta jeiki baino lehen, ohearen eskinan jarri ta bertso hau kantatu zuan:

Nere etzan-lekua izango da ohia, hemendik egin behar lehenbizi pregoia: eztaikit dedan poza edo dan jipoia, libre ateratzen bazat hilko det kapoia.

Mikaelaren ezkontzaz. [Bideoan 30:30 minutuan]. Antton Kortajarenarekin ezkondu zen Mikaela. Baina nobio garaian nahiko hizketagai eman zuten inguruan. Entzun nola kontatu zion Antonio Zavalari: “Nere nobioa etxe oneko mutil eder-galanta zan, kontrariyoric gabe zegoan pulsolaria. Horregatik, alkarrekin tratatzen hasi giñañean, hala esaten zioten gure aitari: — Hire alaba ez dek hara sartuko, ez.

Eztayetan, berriz, hala esan zioten:

— Orain kontentu egongo haiz, alaba hemen sartuta.

Ni josten ondo ikasia nintzan, bañan baserriko lanetan gutxi nekian. Aitak eta amak kalera ezkontzea nahi zuten, da hasieran etziran guztiz konforme ni Ondartzara ezkontzeaz. Horregatik gure aitak, hola tentatu zutenean, bi bertso auek kantatu zituan:

Amari esan zion ezkontza hau lehenengo, baserrira joatia ez zeritzan ondo: "Arriua besterik ez dinat emango, nahio nuke, alaba, ez bazina juango"

Aditu zuanian aman albistia, alaba hau gelditu zan entero tristia: "Ama, ez da posible nik hori uztia, guztiak kaltetan bizitzen eztia".

Mikaela Elizegiren eta Antton Kortajarenaren semea izan zen Bautista Kortajarena Elizegi, "Bautista Ondartz" bertsolari ezaguna. 1903an jaio zen. Aitona Pello Errotarekin ere harreman handia izan zuen eta herriz herri aritu zen bertsoan, Uztapiderekin-eta. [Hitzaldian, bat-batean arituta, oso gaizki eman nuen datu hau: Uztapide Mikaela Elizegirekin eta bere seme Bautistarekin aritutakoa zen bertsoan, ez Pello Errotarekin].



Amaren heriotza. [Bideoan 34:10 minutuan]. Mikaela Elizegik kontatuta dakigu beste bertso hau ere. Mikaelari-eta ama hil zitzairenean, Pello Errotak bertso hau bota omen zuen plazan, Txirrita edo beste bi bertsolariaren aurrean:

Gazterik egin gendun alkarrekin junta, hogeie urte baino lehen ginan ezkontuta; orain bakarrik nago Jainkuak kenduta, ai, zeruan balego emazte difunta!

Pello Errotaren jendaurreko azken bertsoa. [Bideoan 35:20 minutuan]. Astiasuko eliza berritu zuten, eta hura berriz ireki zutenean festa handia egin zuten. Mikaelak horrela kontatu zuen: "Gure aita, ordurako xar-xarra zegoan. Bertsoan asko aritu zan arratsaldean, elizaren kontu guztiak kantatu zituan; txalo pranko ere jo zioten. Bainan gero, eliz-atarian, gazteek atzeneko bertso bat botatzeko eskatu zioten. Ta

gure aitak bertso hau kantatu zien:

Hau esango dizuet azken-azkenian, zer egin behar dezuen hiltzen naizenian: errosayo bat esan nere izenian, zerura joan dedin Pello zuzenian.

Azken bertsoa, Erniora zioazenei. [Bideoan 37:00 minutuan]. Pello Errotak plazan kantatutako azkeneko bertsoa horixe izan zen, baina Mikaelaren hitzetan: "geroztik ere bota zuan beste bertso bat gure etxeko atarian. Erniyoko erromeria zan, da jendea bidea betean zijoan. Usurbiltik eta, Oyartzundik eta, oso urrutitik etortzen zan garai artan

jendea, San Juan Txiki bezpera gaba oinez bidean pasata. Gure aita mandioko atearen kontra zutik zegoan jendeari begira. Ta jendea, erromerira bezela, soinu-joz eta deadarka, bulla ederrarekin zijoan. Bainan batzuek ola esan zioten:

— Urrutikoak bagoaz gurutzera, ta bertakoak ez? Emengo jendeak federik ba al du?

Ta bertsoa bota zien [hasiera ez zuen gogoan]:

nere esplikaziyua dizutet emango, beti izan izandu naiz fediareen bando, Pello Errota Erniyora gehio ez da juango.

[Mikaelak jarraitzen du hizketan] Nik hori aditu, alegia gure aita Erniyora etzala geyago joango, ta a zer negarrak egin nituan! Ta aitak, neri begira jarri ta ala esan zidan:



— Zer negar egiten dion?
 — Berori Erriyora geyo juango ez dalako.
 —Hi ere geldituko aiz joan ezinik, bai.

Ez nintzan ordea bereala gelditu! Larogei ta bi urterekin igo nintzan ni Erriyora”.

Pello Errotaren heriotza.

Mikaelak horrela kontatu zuen *Pello Errotaren bizitza...* liburuan: “Beti Ama Birjinari eskatzen ta, atzeneko, Ama Birjina Kandelariokoak eraman zuan. Goiz aldera joan nintzayon, ta hala galdetu nion:

— Zer moduz dago, aita?
 — Hitza moteltzen ari zait eta burua ere lotzen.
 — Bai, mingaina ta burua gehiena nekatuak dauzka berorrek bere denboran, eta haiek aurrena ahulduko zaizka.
 — Bai, halaxen den, bai.

Ta gabean goiz aldera hil zan”.

Mikaelaren bertsoak bere aitaz.

[Bideoan 40:00 minnuta]. Pello Errotari omenaldia egin zioten Asteasun 1965 urtean. Mikaelak 96 urte zituen, eta omenaldi hura zela eta, bertso hauek jarri zituen biharamunean-edo. 1995ean Antonio Zavalak eta Bernardo Atxagak hitzaldia eman zuten Mikaela Elizegiri buruz (*Bertsolarialdizkariaren 17. zenbakian* idatzi zuen kronika Laxaro Azkunek), eta hitzaldi horretan kontatu zuen Zavalak, nola bizi izan zuen omenaldi eguna Mikaelak: “aitari debozo handia” omen zion eta desiatzen omen zegoen eguna iristeko, eta beldur ere bazela ez zela iritsiko bizirik. Eta ordurako Mikaela Donostian bizi omen zen, eta Asteasura etorritakoan batek kaso eta besteak kaso, eta batek galdetu eta besteak kontuak

esan, hainbeste nekatuta, nahi baino lehenago erretiratu behar izan zuela etxera. Bertsoan sumatzen da eguna ez zuela nahi adina gozatu.

Bertso hauetan detaile gisa, ikus dezakegu nola Pello Errotak jendaurrean kantatu zuen azken bertsoan bukatu zuen esanaz errosario bat kantatzeko zeruan sartu zedin, eta Mikaelak berdin eginaz bukatu zuen bertso sorta hau:

Adoratu dezagun gure aita zana, gizon txiki pobre bat munduan izana; sekulan etzan aitu aren almazena, relijiosua ta hizketan zuzena.

Meza nausia Asteasun ikusi etzana: hiru seme aldarian herrikoak danak; gero predikatutzen Lekuona jauna, nere aitaren bizitza esplikatu dana.

Erregali eder bat uste gaberikan, oso gelditu nintzan aturditurikan; grazirik eman gabe aldegin handikan, triste etorri nintzan Asteasutikan.

Laroi ta amasei urte kunplituta bela, pentsatzen det birian hasia nagoala; aditzen badezute ni hila naizela, errezo txiki bana esan dezatela, zeruan sartu dedin lehenbailehen Mikela.

Omenik onena, langintzari jarraitzea. Emanaldi hau ez dadila hemen bukatu, jarraipena eman diezaiola bakoitzak bere etxean eta bere inguruan, hemen entzun dituenak gogoan hartuz eta ingurukoei zabalduz. Hainbeste emakumek, eta entzun dugun bezala Adriana Otañok eta Mikaela Elizegik horrela egin zutelako dakizkigu egun euskal kulturako ale eder horiek. Eta emakume hauek egin zuten lanaren omenaldirik onena, geronek langintza horri jarraitzea da. Kasu honetan, emakumeek egindako bertso bana eramango dugu etxera idatziz, horien bertsoak baitira gutxien iritsi zaizkigunak. •



GAUR8
 AMAGIOIA MUJIK
 2018/10/13

ELKARRIZ- KETAK: ARACELLI ARGÜELLO ETA TOMASITA QUIALA

**ARACELI ARGÜELLO,
 PAYADORE
 ARGENTINARRA**

Mintzolak eta Lankuk elkarrekin antolatutako Nazioarteko Inprobisatzaileen Biran parte hartzera etorri da, lehen aldiz, Euskal Herrira.

Payadorea da, gaztea, emakumea eta Argentinako Cordoba probintziakoa. Kontrako korrontean igeri dabilenaren indarrak, umetatik oso garbi zuen payadorea izan nahi zuela. Eta lortu du.

“PAYADOREAK EZ LUKE INOIZ AHAZTU BEHAR HERRIAREN AHOTSA DELA”

ARGENTINAKO CORDOBA PROBINTZIAKO PAYADORE BAKARRA DA. Kasik hiru milioi eta erdi biztanletan, bakarra. Cordobako probintzian beste jardun artistiko batzuek tradizio indartsuagoa omen dutelako, dantzak kasu. Berak, baina, 5 urte zituenerako esan zion aitari payadorea izan nahi zuela, «ahotsik ez dutenen ahotsa». Gainontzeko payadore gehienak gizonetako dira eta 50 urtetik gorakoak. Bera, emakumea, 23 urtekoa eta unibertsitateko ikaslea.

Nola iritsi zara payadore izatera?

Ni oso autodidakta izan naiz. Lagun bertsolariekin hitz eginez jakin dut hemen bertso eskolak dituzuela. Argentinan oraintsu hasi dira tailer modukoak antolatzen. Baina nik bakarrik ikasi dut inprobisatzen. 5 urte nituenerako buruz ikasitako bertsoak abesten nituen eta 12-13 urteren bueltan nire bertsoak idazten hasi nintzen. Eta, segidan, inprobisatzen. Guk

defendatzen dugu payadorea jaiotzen dela eta, gero, egin egiten dela; diamanteak bezala, leundu eta biribildu.

Inguruan, etxean, bada payadorerik? Ez, baina nire sustraiek pisu handia daukate nire hautuan. Aitona, aita eta anaia zaldizkoak dira, zaldi basatien gainean beren trebezia erakusten aritzen dira festa kreoleetan. Argentinan kirol bat da hori. Zaldizkoen munduan presentzia dauka payadoreak. Zaldizkoak zaldi gainean bere trebezia erakusten du eta payadoreak abestu egiten dio, lausengatu egiten du. Aitona, aita eta anaia zaldian ibiltzera joaten zirenean, niri arreta handia ematen zidan payadoreen jardunak. Eta oso txikia nintzela igotzen ninduten oholtzara, buruz nekien Martin Fierroren bertsoren bat abestera. Betidanik gustatu izan zaizkit inprobisazioa eta errima.

Zeri kantatzen dio payadoreak? Payadoreak askotariko gaiet abesten die, ez bakarrik zaldizkoei. Baina azkenaldian zaldizkoei abestea diru iturri bat bihurtu da payadorearentzat. Jatorrian, payadorea kazetaria

zen, kronista, zirkuetan lan egiten zuen... baina denborarekin payadore ibiltari eta kontalari hark garrantzia galdu zuen eta lanik gabe geratu zen. Orduan hasi zen zaldizkoei abesten.

Zu payadore profesionala zara? Hori duzu bizimodua? Tira, ni uneotan ikaslea naiz, Hizkuntza eta Literatura lizentziatura egiten ari naiz eta gurasoen babesa dut horretarako. Baina ikasketez aparte, payadore bezala diru bat irabazten dut. Asko interesatzen zait hizkuntzalaritza eta literatura eta gustatuko litzaidake hezkuntza publikora eramatea inprobisazioa. Inprobisatzaileak mundu guztian gauden arren, Argentinan nahastu egiten da zer den payadore bat, zer abeslari bat, zer esatari bat, nork abesten dituen aurrez egindako bertsoak, nork inprobisatzen duen... Ezezagutza dago –are gehiago nire probintzian, Cordoban, payadore bakarra bainaiz– eta hori argitu beharra dagoela sentitzen dut.

Ahozkotasuna beti galtzaile ateratzen da, ezta? Bai, eta gainera narratibari poesiari baino garrantzia handiagoa ematen zaio. Eta errimadun poesiari, are garrantzia txikiagoa, arkaikoena delako. Baina, era berean, zailena ere bada.

Zer toki daukate gaur egun payadoreek jendartearen? Payadoreak badu prestigio soziala, batez ere 1994. urtetik hona, Payadorearen Egun Nazionala izendatu zenetik. Baina hori lortzeko jende askok lan handia eta denbora luzean egin behar izan du, politikari askoren atea jo behar izan du, payadoreen jardunari balioa emateko. Payadorea beti izan da ahotsik ez dutenen ahotsa, beti egon da herriaren alde, baztertuen alde. Beraz, payadorea beti izan da klase sozial xumekoa. Horregatik segur aski ez du izan politikarien bultzada handia eta autogestioaren bidea ibili behar izan du.

Teknikari begira jarrita, nolakoa da payadorearen inprobisazioa? Payadoreak musikaren laguntza izaten du beti. Eta, normalean, payadoreak berak jotzen du gitarra, nahiz eta baden

salbuespenen bat. Normalean binakako jarduna izaten da – batzuetan hirukoa eta laukoa ere izan daiteke, baina horietan elkarrizketa ez da hain aise joaten– eta gaia ere inprobisatu egiten da, sortu egiten da bidean. Payadore batek bidea irekitzen du, puntero-a esaten zaio. Eta, besteak, segitu egiten dio. Bien arteko lana izaten da normalean eta elkarrizketak garrantzia dauka.

Zure ustez, zein ezaugarri izan behar ditu payadore on batek? Niretzat ezinbestekoa da payadoreak ez ahaztea herriaren ahotsa dela. Gai sozialekin kezkatuta egon behar du, horietan jantzia eta horiei abestu behar die. Payadoreak ez du bere burua aurkezten, herriak aukeratzeko berriaren ahotsa izan dadin. Hori ez luke inoiz ahaztu behar inprobisatzaileak. Diktadura desberdinen garaian, payadore askok alde egin behar izan zuten, errefuxiatu politiko modura.

Non kantatzen du payadoreak? Ahal duen toki guztietan. Baina, esan bezala, normalean festa kreoleetan egoten da eta horiek igandero egiten dira. Bestelako musika jaialdietan ere egoten da, batzuetan festa irekitzeko, eta, beste batzuetan, ixteko.

Ohikoa al da payadoreak emakumeak izatea? Ez da batere ohikoa, horretan ere sistemaren kontra noala sentitzen dut. Badira bizpahiru emakume, sona



handikoak, Rio de la Plata eta Buenos Aires artekoak eta guztiak 50 urtetik gorakoak. Baina Cordoban ez dago payadorerik, ez du tradizioirik. Eta, gainera, gaztea naiz. Gaztea, emakumea eta payadoreek tradizioirik ez duten probintzia batekoa. Arauren salbuespena naiz zalantzarik gabe.

Eta hori gustatzen zaizu?

Tira, akaso bai. Nik beti esaten dut ez naizela antisistema, kontrasistema baizik.

Nahi duzun guztiari kantatzen al diozu?

Argentinan payadoreen mundua oso matxista da. Payadore heldu askok ekidin egiten dute emakume payadore gazteekin kantatzea, eta, beste batzuek, kontrakoa, beti ez baitago emakume gazte batekin inprobisatzeko aukera. Baina gu errespetuz aritzen gara oholtzan haiekin gaudenean eta normalean ez gara saltsa handietan sartzen. Zaldi festa kreoleen kasuan, ez gara sakontasun handietan sartzen, pentsatzen baita emakumeek ezer gutxi dakitela zaldizkoen jardunari buruz. Oso zorrotz epaitzen gaituzte. Horregatik, normalean, emakumeak samurtasunari, maitasunari eta bakeari abesten dio.

Baina gustatuko litzazuke gogoak ematen dizunari kantatzea?

Noski, eta egiten dut gainera. Baina pixkanaka eman beharreko pausoak dira eta horren jakitun naiz. Era berean, badakit atzetik datozen emakume gazteentzat eredu naizela eta hori ardura da niretzako. Izan

dira emakume payadore gazteak, baina, une batean, utzi egin dute eta ama edo emazte izateko erretiratu dira oholtzatik. Baina nik oso garbi daukat zer izan nahi dudan eta zer egin nahi dudan, ez daukat oholtzatik jaisteko asmorik.

Nola datoz zure atzekoak?

Badatoz, baina mutilak batez ere. Bazen neskato bat, oso-oso ondo inprobisatzen zuena, baina nerabezaroarekin batera utzi egin zuena. Hori askotan gertatzen da. Nerabezaroa sasoi korapilatsua da, nahasia eta asko markatzen ditu inprobisatzaileak. Ni, adibidez, 17 urte nituela hasi nintzen inprobisatzen eta ordurako menderatu samar neukan nerabezaroa. Baina Cordoban emakume payadore gehiago sortuko diren itxaropena ez dut galtzen.

Txapelketak izaten dira?

Sariketak egiten dira, gazteak motibatzen eta payadoreei prestigioa emateko, bai soziala eta bai artistikoa. Baina nik ez dut parte hartzen, lehia ez zaidalako gustatzen. Ez nago sariketen kontra, baina nik ez dut parte hartzen.

•

TOMASITA QUIALA, KUBAKO REPENTISTA

Ibilbide oparoa duen inprobisatzailea da Tomasita Quiala. Itsua jaiotzez, bere aitona azkar igarri zuen falta zitzaion argia berak banatuko zuela eta halaxe egiten du oholtzara igotzen den aldiro. Argi indartsua dario. **“PUBLIKOAREN TXALOAK ETA BEROTASUNA IRISTEN BAZAIZKIT, MILIOIDUNA SENTITZEN NAIZ”**

ITSU JAIO ZEN (1961, KUBAKO HOLGUIN PROBINTZIAN) ETA ITSU SEGITZEN DU. Jose bere semeak bere begiak uzten dizkio, denerako kasik. Elkarrizketa hasterako lagundu dio amari apaintzen; txaketa txukun jarri eta makillaje pixka bat han eta hemen.

Tomasita Quiala berandu hasi zen inprobisatzen, 22 urte zituela eta kasualitatez. Ordutik, baina, inprobisatzen duenean «beste pertsona bat» sentitzen dela dio, hunkituta. Kondekorazio asko eta askotarikoak jaso ditu bere ibilbide artistikoan, bere tasun hain berezien adierazgarri direnak; Nekazari Txikien Elkarte Nazionalak, Kubako Emakumeen Federazioak, FAR Indar Armatu Iraultzaileek eta Itsuen Elkarte Nazionalak goratu dute, besteren artean.

Ez da Euskal Herrian zauden lehen aldia.

Ez, lehenago egona naiz. 1988. urtean, nire ibilbidea hasi berritan, Kubako Itsuen

Elkarte Nazionalaren izenean etorri nintzen, ONCEK gonbidatuta. Geroago, 1998. urtean, Kanaria uharteetan lanean ari nintzela, Bertsozale Elkarteak gonbidatu ninduen. Akordatzen naiz Alexis Diaz Pimientarekin batera aritzekoa nintzela. Baina hemen geundela sari bat jaso zuela jakin zuen eta hura jasotzera joan behar izan zuen. Azkenean, bakarrik aritu behar izan nuen. Eta oraingo hau hirugarren aldia dut Euskal Herrian. Bai, zortez, lehenago ere egona naiz.

Noiz hasi zinen inprobisatzen?

22 urte nituela. Berandu da, baina badirudi nire poeta lotan zegoela.

Zerk esnarazi zuen? Ni beti izan naiz errezitatzailea. Nire buruan osatzen nituen bertsoak errezitatzen nituen, jendearen aurrean. Ikasle garaian, beti eskatzen zidaten poemak egiteko eta jendaurrean errezitatzeko. Buruan egiten eta jasotzen nituen bertsoak, eta, uinea iristean, jendaurrean errezitatu. Eta arrakasta neukan, jendeari gustatu egiten zitzaion egiten nuena.

Gure itsuen elkarteak jaialdi desberdinak antolatzen zituen eta, hain justu, jaialdi horietako baterako bertsoak prestatzen ari nintzen, jendaurrean errezitatzeko. La Lisara joan nintzen, bizi nintzen tokitik urrun samar, soineko bat egiteko eskatzera. Jaialdi horretarako behar nuen soinekoa.

Eta La Lisan, kaletik oinez nindoala, bi repentista



kantuan ari zirela sumatu nuen eta batak bestea iraindu zuela. Ni tartean sartu nintzen inprobisatuz, iraindua izan zena defendatzera. Bi hilabete falta zitzaizkidan 22 urte betetzeko eta 60 kilo soilik pisatzen nituen –oraingo Tomasitaren antzik batere ez–. Eta jendea harrituta geratu zen neskato itsu inprobisatzaile harekin. «Ikusi neskato txiki itsu hori zer-nolako inprobisatzailea den», esaten zuten. «Inprobisatzailea? Zer ote da hori?», pentsatu nuen nik.

Soinekoa probatzera bueltatu behar nuen inguru hartara, eta, bueltatu nintzenean, guateke bat prestatua zidaten; poetak, musikariak, edariak, janaria... Nik ez nekien oso garbi zer egin behar nuen, baina inprobisazioa odolean sartuta nuenez –nahiz eta oraindik ez nekien–, kantuan hasi nintzen, 1983ko urtarrilean. Eta kantatu eta kantatu, gaurdaino.

Inprobisazioa odolean zenuen, beraz. Nik nire aitonari buruz gauza asko entzunak nituen. Nire aitonak dena bertsotan eskatzen zuen, bera poeta zen. Nik urtea bete eta bi hilabetera hil zen aitona. Kontatzen dute, urtea bete nuen egunean nire sehaskara hurbildu eta zera esan ziola nire amari: «Ez bilatu mediku, oftalmologo eta petrikilo gehiago –haur itsu bat daukaten gurasoek denetarik bilatzen dutelako–, neskatoak grazia berezi bat ekarriko du lurraren gainera eta berak argia banatuko du, ez du argirik beharko».

Publikoa ez duzu ikusten, baina sentitzen duzu. Toki batera joan eta publiko berri bat deskubritzen dudan aldiro publiko horrek egiten dudana sentitzen badu,

txaloak entzuten badituz, eta, berotasun hori iristen bazait, milioiduna sentitzen naiz. Hori nahikoa sari bada.

Joan izan naiz ondo ordaindu didaten tokietara, baina publikoaren berorik sentitu gabe. Hori, niretzako, galdutako egun bat da.

Nola sentitzen zara inprobisatzen duzunean? Transformatuta, ni ez banituz bezala; desberdina sentitzen naiz. Inprobisatzen dudanean sentitzen dut badela dohain bat hor nonbait eta ni aukeratu nauela inprobisa dezadan. Oso indartsua sentitzen naiz oholtzaren gainean.

Repentista profesionala zara. Hortik ateratzen duzu bizimodua? Bai. Kuban puntako repentista gehienak hortik bizi dira.

Inprobisazioari balioa ematen al zaio? Ba al du prestigio sozialik? Bai, asko gainera. Eta atzetik jende gazte asko dator gainera. Gainera, jende guztiak jakin behar du berriki Unescok gizon-emakume guztien ondasun immaterial izendatu gaituela. Lehenago Kubako Nazioko ondasun immaterial eta kulturala izendatu gintuzten eta, orain, Unescok ere aitortpena egin digu. Oraindik ospatzen ari gara.

Zeri kantatzen diozu? Sentitzen duzunari eta pentsatzen duzunari. Batzuetan gaia jartzen digute, sintagma, mezua... baina, horrez gain, askotariko gaiak kantatzen diegu. Beste batzuetan publikotik jartzen digute bertsoaren amaiera. Eta bi inprobisatzailearen arteko eztabaidetan gaiak bakarrik ateratzen dira.

Hala ere, askok pentsatzen dute biren arteko eztabaida hori batak besteari edozer gauza esatea dela, eta oker daude. Biren arteko eztabaida hori, finean, elkarrizketa bat da, argudio argudioaren gainean; batek bere ideia defendatu behar du bestearen ideiarekin aurrean. Eta batek bestea konbentzitu behar du.

Akorduan dut nik izandako eztabaida gogor bat, puntako repentista batekin. Berak «maitasuna akabatu egiten da» eta, nik, «maitasuna ez da akabatzen». Horrela aritu ginen, gogor, argudioekin eta adibideekin, denbora luzean. Izan ere, eztabaidak luzeak izaten dira. Eta gero eta gehiago kantatu, gero eta hobeto zaude. Uste dut irabazi egin nuela.

Emakume asko aritzen da inprobisatzen? Ni hasi nintzenean hiru emakume aritzen ziren, sona handikoak. Baina hirurek utzi egin zuten eta bakarrik geratu nintzen bidean. Gaur egun, repentismo eskolei esker, emakume repentista gazte asko ari dira kantuan. Dagoeneko ez nago hain bakarrik, baina batzuetan ez dute nirekin abestu nahi; beldurtu egiten dira.

Nola ikusten duzu repentismoaren etorkizuna? Oso ondo. Oso harrobi indartsua dugu. Neskato asko ari dira animatzen, nahiz eta oraindik mutikoak nagusi izan poeten artean. Baina orokorrean, belaunaldi desberdinetan, maila handia sumatzen dut.●



MIRESMENA



TESTUA: GARBINE ARANBURU (LAB SINDIKATUKO IDAZKARI NAGUSIA)

TARTE HONETAN IDAZTEKO AUKERA ESKAINI ZIDATENEAN, ETA BERTSOLARITZAREN INGURUAN NIK ZER ESAN NEZAKEEN BURUARI BUELTA EMATEN HASITA, HITZ BAT ETORRI ZITZ AidAN, MIRESMENA. MIRETSI EGITEN DITUT BERTSOLARIAK.

Foro honetan ondo geratzeko ez noa ni nire burua bertsozale amorratu moduan aurkeztera. Ez naiz oso aditua bertso gaietan eta ez naiz saioz saio ibiltzen diren horietakoa ere. Baina jarraitzen dut, ezagutzen ditut bertsolariak, eta badituz batzuk besteak baino gustukoagoak, nola ez.

Txikitatik, etxean ezagutu dut nik bertsolaritza eta baita bertsolariak ere. Aita izan zen gurean, gu bertsoen mundura gerturatu gintuena. Kasete zahar haiek kotxean bueltaka, zergatik ez esan, aspertzeraino ere bai batzuetan. Saioren batean

edo beste ere izan ginen eta, nola ez, telebista aurrean ere sartu izan ditugu ordu batzuk.

Zer esan ikastolako garaiez, han ikasi genuen bertsoa nola egiten zen, errima eta poto, zortziko txiki eta hamarreko handi. Han ikasiak, bai, piztu zuen nigan jakin-mina eta baita bertsotan aritzen zirenekiko inbidia puntua ere. Bertsoa osatzearen zailtasunen jabe egin nintzen, bertsoa osatzeko abilitade handia behar dela konturatu nintzen eta hortik dator bertsolariekiko nire miresmena.

Miresmenaz hitz egiten jarraituz, bereziki aipatu nahi dut emakume bertsolariak egiten ari diren bidea. Bide zaila bezain emankorra izaten ari dela esango nuke. Erabat maskulinoa den esparru batean leku bat egitea lortu dutelako, estereotipo batzuekin apurtzea lortzen ari direlako. Badakigu horretaz zerbait sindikalgintzan ari

garen emakumeok, horregatik enpatia handia sortzen djidate bertsolaritzan ari diren emakumeek.

Bertso bat aipatzekotan, emakumea eta bertsoa lotzen dituen bertso sorta batek erakarri du nire arreta nagusiki azken aldi honetan, *Konplize* ditut eta izenekoak.

Orain gutxi, herriko haur eta gurasoek Lazkao Txiki jaio zen baserrira ibilaldia egin eta bertso batzuk abesteko parada izan zuten. Egun horretan kale egin behar izan genuen, hala ere, politak izan ziren aurreko egunak gure etxean. Lazkao Txiki, handia, zer bertsolari bikaina izan zen ezagutzeko parada izan zuten nire bi alabek.

Gure ondorengoei bertsozaletasuna sustatzeko modu bikaina, alajaina. Bertsolaritza arte bat delako, euskal kulturak duen altxor izugarria delako, bizi-bizirik dagoena eta zaindu behar dena. •

Aita izan zen gurean, gu bertsoen mundura gerturatu gintuena. Kasete zahar haiek kotxean bueltaka, zergatik ez esan, aspertzeraino ere bai batzuetan.

Urte osoan zehar bizi dugu kultura



Bertsogintza, musika, antzerkia,
zinea...

Kutxa Fundazioak urtean zehar
antolatzen diren jarduera eta ekitaldi
ugari bultzatzen ditu.

Era guztietako kultur ekimenak bide-
ratzea gure gizarte-konpromisoaren
parte ere badelako.







NONDIK GATUZ, NORA GOAZ?
BERTSOZALETASUNAREN
III. AZTERKETA
SOZIOLOGIKOA

TESTUA: HARKAITZ ZUBIRI
ARGAZKIAK: CONNY BEYREUTHER

Bertsozale Elkarteak eskatuta, *Bertsozaletasunaren III. Azterketa Soziologikoa* egin du EHUko soziologo talde batek 2016-2018 bitartean. Ikerketa taldea Harkaitz Zubiri, Xabier Aierdi eta Alfredo Retortillo EHUko irakasle eta ikerlariek osatu dute, eta Zubiri arduratu da, besteak beste, ikerketa kualitatiboaz eta ikerketaren azken erredakzioaz. Bertsozaletasunaren eboluzioa eta joerak aztertu eta egoeraren diagnostia egitea da lanaren helburu nagusia.

- Behin azterketa amaituta, Gogoeta Prozesuan murgilduta dago Bertsozale Elkarteak. Uda aurretik, azterketan ageri diren gaien hustuketa egin eta herrialdez herrialde aurkeztu zuten. Irailean, edukiak gaika sailkatu eta gaiok lantzeko tailerrak egin zituzten Baionan, 100 lagun inguru



bildu zituen mintegian. Azken fasea azaroaren 10-11ko asteburuan egingo dute, Barrian: datozen 10-12 urterako Plan Estrategikoaren oinarriak zehaztea izango da helburua. • Azterketa soziologiko honek emandakoa hiru lagunen begietatik irakurri nahi izan dugu ale honetan. Lehen artikuluan, Harkaitz Zubirik ikerketaren laburpena eta nabarmendu beharreko atalak bildu ditu; Beñat Gaztelumendi Ikerkuntza taldeko arduradunak Bertsozale Elkartean irakurketaren berri eman digu; eta Xabier Aierdik gaiaren gaineko ikuspegi eta interpretazio zabalagoak eskaini dizkigu. Ainhoa Agirreazaldegik egin ditu bi elkarriketa hauek. • Hiru ikuspegiak urriaren amaieran bildu ditugu, Gogoeta Prozesuaren azken fasearen atarian.



HIRUGARREN INDUSTRIA IRAULTZAKO BERTSO- LARITZA

TESTUA: HARKAITZ ZUBIRI
ARGAZKIAK: CONNY BEIREUTHER



JOAN ZEN MUNDU HURA. Etorri zen beste bat, eta azken hau ere badoa pixkanaka, eta ez dakigu zer datorren. Bertsolariak inoiz ez dira berriro izango herri bateko kultur erreferente nagusia, garai bateko zenbait bertsolari izan ziren bezala. Hori badakigu. Gaur egun, espazio hori beste sortzaile batzuekin partekatu behar dute, Lady Gaga eta Meryl Streep-ekin, Ander Lipus eta Fermin Muguruzarekin, Judith Butler eta Jürgen Habermas-ekin, Ruper Ordorika, Anari eta Ken Zazpirekin, Leonardo di Caprio eta Steven Spielberg-ekin, Netflix, Youtube, Spotify eta HBOrekin, Ximun eta Manex Fuchsekin, Eider Rodriguez eta Harkaitz Canorekin, Harry Potter eta J.D. Salinger-ekin, Quentin Tarantino eta Beck-ekin, Bernardo Atxaga eta Ramon Saizarbitoriarekin, Taylor Swift, Ariana Grande eta Beyonce-rekin, Bruno Mars, Brad Pitt eta Justin Bieber-ekin, etc.

Ez gara ari balu, balego eta balitz. Gertatzen ari da. Kultur sor-kuntza uholde bat da, eta bertsolaritza ko-erreferentziala bihurtu da gutxiengo zabal batentzat. Euskaldunen artean, noski. Ez da meritu makala.

Hedoi Etxartek aldizkari honetan idatzi zuen ez zuela ulertzen nola pasa zen bertsolaritza puruz eta zigarroz apaindutako sepia koloreko argazki bat izatetik BECeko bertsolaritza izatera, gazetxeetakora, ekitaldi masiboetakora, abangoardiakora. Hainbat urtez ikerketan aritu gara galdera horri erantzun nahian, eta zenbait azalpen aurkitu ditugula uste dugu. Inertziak apaingarri folkloriko izatera zeraman bertsolaritza, era berean inertziak gaur egungo euskal literatura genero epistolar bihurtzera daraman bezala. Baina endekatzea gero eta gordinagoa zenean, bertsolaritzak bide arraro bat topatu zuen, kulturgintzan bogan ez dagoen xenda bat, eta ondo funtzionatu dio. Katuek zazpi badauzkate, bertsolaritzak gutxienez bi bizitza badauzkala erakutsi du.

Baina galdera berriak ere baditugu, eta uste dugu bertsolaritzak oraindik ez diela erantzun. Katuek zazpi badauzkate, ez dakigu bertsolaritzak hiru badauzkan.





Seigarren desagertze handia

Duela 444 milioi urte gertatu zen lehenengoa, Ordoviciarra. Duela 66 milioi urte, azkena, Kretazeokoa. Edo, agian, azkenaurrena esan beharko genuke, zeren zientzialariek uste baitute berriro gertatzen ari dela. Seigarren desagertze handia hasi da. Hurrengo zazpi hamarkadetan, gutxienez espezieen erdiak desagere daitezke. Ez animaliak bakarrik, gainera. *Extinction. Extinción. Estinzione. Aussterben.* Hizkuntza horiek ez dira desagertuko, baina litekeena da munduan diren 6.000 hizkuntzetatik %50-%90 artean desagertzea 2100. urterako. Ez da hondamendi naturala, jakina. Guk, gizakiok, eragindakoa da. Eta animaliak eta hizkuntzak bezala, kultura fenomenoak desagere daitezke, nola ez.

Ez gaitezen apokaliptiko jarri, ordea. Erakutsi dugu trebeak garelako suntsipen masiboan, baina bistan da, baita ere, gizakia bezalako animaliarik ez dagoela arazo potoloei aurre egiteko. Potentzialki behintzat.

2008ko uztailean Brent upela 147 dolarrera iritsi zen. Bigarren industria iraultzak goia jo zuen. Eta, segidan, krisia lehertu zen, aspaldiko lurrikara ekonomiko handiena. Erregai fosilen gizartea gainbehera zetorren. Krisi soziala ere areagotu zen. Zer ote zeukan buruan Nicolas Sarkozy kapitalismoa berrasmatu behar zela aldarrikatu zuenean? Etorkizuna ez dago inoiz determinatuta, baina badakigu hirugarren industria iraultza martxan dela, eta horrek dena aldatzen duela. Komunikazio teknologia berriak, energia berriak, garraio eredu berriak. Denbora eta espazioa ulertzeko moduak aldatu egin dira. Hurbiltasunerako aukerak handitu egin dira nabarmen, urruntzeko aukerak bezainbeste, gutxienez. Badakigu arazo zahar eta berriei irtenbide berriak eman beharko dizkiegula. Seigarren desagertze handia bestela. Badakigu gure ahaleginei ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatu beharko garelako. Gureak egin du bestela. Badakigu lankidetzak izango dela gakoetako bat, baita inoiz lankidetzan aritu ez direnen artean ere. Bestela...

Bertsolaritza ko-erreferentziala bihurtu da gutxiengo zabal batentzat. / Litekeena da munduan diren 6.000 hizkuntzetatik %50-%90 artean desagertzea 2.100. urterako.



Kultur sorkuntzaren espazioa ere guztiz aldatu da. Gero eta globalagoa da. Egia da bertsolaritzak maiz etxean jokatzeko duela, adibidez Altzon jokatzeko duenean. Halaber, egia da maiz Justin Bieber-ek etxean jokatzeko duela, adibidez Altzon jokatzeko duenean, edozein nerabek Youtube aplikazioan ikusteko duenean. Handia da kultur uholdearen indarra. Hortaz, nola molda daiteke kultur sorkuntza gutxiagotu bat testuinguru honetan irauteko, eragiteko eta ondo pasatzeko? Bertsolaritzak badauzka pista batzuk.

Proiektu soziokulturala

Iratxe Retolazak *Hik Hasi* aldizkariari eskaini zion elkarrizketan gordin nabarmendu zuen euskal kulturaren eten handiak gertatu direla, transmisioa eragozten dutela, kasu askotan ezinezko bihurtzera arte, eta, oro har, ez dela pentsatu nola egin aurre eten horiei. Halaber, bertso eskolen eredu erabilgarria dela esaten du, eta haien moduko kultura eskolak sortzea interesgarria izan daitekeela, kulturaren transmisioan dauden etenak gainditzeko



tresna eraginkorrek izan daitezkeelako. Oso interesgarria da Ira-txe Retolazaren ekarpena, zeren bere interesgunea ez baitago ekoizpen artistikoan, proiektu soziokulturalean baizik. Retolazak ez du iradokitzen idazleek hau edo bestea idatzi beharko lukete-nik. Proiektu soziokultural baten beharra lehenesten du. Baina zergatik da hori hain garrantzitsua?

Bertsolaritzak erantzun diezaioke galdera horri. Garai batean bertsolaritza naturalki bezala transmititzen zen sagardotegian, etxean, plazan. Gune horietan zegoenak lortzen zuen zaletzeko eta, potentzialki, sortzaile bihurtzeko aukera. Baina gizarte hori desagertzearekin bat bukatu ziren kulturaren transmisio *natural* horretarako aukerak. Endekatzea nabaritzen hasi ziren. Zerbait egin beharra zegoen, eta erantzuna proiektu soziokultural bat eraikitzea izan zen. Kultura sorkuntza hegemonikoek badituzte beren transmisio espazioak. Guk haiek bilatu gabe ere, haiek gu

Kultur sorkuntzaren espazioa ere guztiz aldatu da. Gero eta globalagoa da. / Gutxiagotutako kultur sorkuntzak hobe du bere espazioak eraikitzen saiatzea.

bilatzen gaituzte. Georgie Dann. Luis Fonsi eta Daddy Yankee. *Despacito*. Batek daki inork inoiz bilatu dituen, baina maiz aurkitu gaituzte. Kultura hegemoniaren zirkuituan ez dagoenak nekez lortzen du espazio horietara sarbidea, eta lortzen duenean, harriarriki, kritika ugari jasotzen ditu, nekez uler daitezkeen arrazoibideetan. Baina gutxitan gertatzen da, eta, beraz, gutxiagotutako kultur sorkuntzak hobe du bere espazioak eraikitzen saiatzea. Horixe egin zuen bertsolaritzak. Bere proiektu soziokulturalaren helburu nagusia bertsolaritza geroratzeko aukerak sortzea zen, eta horretarako sortu zituen bertso eskolak, elkar-teak, txapelketak, aisialdiko jarduerak, hezkuntza arautuko eskolak, hedabideak, borondatezko lanerako ekimenak... eta bertsolarien jarduna testuinguru horretan txertatu zen.

Gaur egun bertsoak entzuten dituenak badaki zer sormen mailara iritsi daitekeen bertsolaria goia jotzen duenean. Bertsolariek kantuan sortzen duten bat-bateko lilura horrek pitzen du bertsolaritzaren metxa. Baina beste diziplina artistiko batzuek ere badauzkate sortzaile bikainak eta, hala ere, ez daukate halako oihartzunik. Beraz, ekoizpen artistikoaz gain, nabarmena da testuinguruak ere laguntzen duela, eta testuinguru hori proiektu soziokulturalak ekoiztu du, ez da berez etorri.



**TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA
EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA. Ama Kandida 21
307. moduloa, ANDOAIN

943 592 923 / www.ormaki.eus

Paperaren gainean edo adiskideen arteko elkarrizketetan has daiteke proiektu soziokulturala eraikitzen. Etorkizunean aldaketa eragingo duen orok lehenik hitz forma hartzen du. Ezin da bestela. Baina proiektu hori gauzatuko bada, ezinbestean behar du proiektua benetan martxan jarriko duen subjektu bat. Bertsolaritzak ez zeukan. Trantsizio gogor baten garaia zen Euskal Herri osoan. Hegoaldean alderdi eta erakunde sistema berri bat sortzen ari zen, eta gizarte mugimenduek ere eskuratu zuten beren lekua testuinguru horretan. Baina maila globalagoan neoliberalismoaren hastapenak ziren, eta horrek kultura sorkuntzaren eremuan eragin handia izango zuen, tokiko kulturak kultura globalen jokoa sartuko zituelako. Euskal Herrian, ordea, erronka horri ez zioten eutsi ez erakunde publikoek, ez alderdi politikoek, ez ordua arte existitzen ziren gizarte mugimenduek. Haien zatikultura sorkuntza ez zen lehentasun.

Beraz, bertsolaritzaren proiektu soziokulturala abiarazteko, agente eragile bat sortu beharra zegoen, eta, bertsolaritzaren kasuan, gizarte mugimendu baten forma hartu zuen. Izan zitekeen bestela, beste kultura diziplina batzuek beste era batera eraginkortasunez funtzionatu baitute. Baina bertsolaritzak gizarte mugimendu bihurtzea erabaki zuenean, asmatu egin zuen, zeren hainbat hamarkadatarako bere geroratzea bermatu baitzuen. Arraroa egingo zaio baten bati bertsolaritza gizarte mugimendu bat dela esatea, baina, egia esan, erraz defini daiteke hala: egiturazko arazo historiko bati erantzuteko antolatzen da, munduari begiratzeko eta funtzionatzeko ikuspegi bat eraikitzen du, aukera-leihoak aprobetxatzen ditu, gainerako agenteekin interakzioan sartzen da, jendea mobilizatzeko baliabideak martxan jartzen ditu, jende asko mobilizatzen du, eta, batez ere, bere egoeraren jabe egiteko eta bere existentziaren baldintzetan eragiteko antolatzen da. Agente bihurtzen da eta bere egoera eraldatzeko gai da. Horrek guztiak errazten du bertsolaritzaren gizarte mugimenduaz hitz egitea, eta horrela azal dezakegu nork


Proiektu soziokulturala abiarazteko, bertsolaritzak gizarte mugimendu baten forma hartu zuen. / Nabarmen handitu da bertso-saio kopurua, bertsolari kopurua eta bertso-saioetako publikoa.



jarri zuen martxan bertsoaritzaren proiektu soziokulturala eta nork eraman zuen bertsoaritzza berriro osasuntsu sentitzera.


Xenpelar Dokumentazio Zentroko datuek argi erakusten dute nola handitu den bertso saio kopurua eta bertsolari kopurua. Berdina gertatu da bertso saioetara joaten den jende kopuruarekin. Azken datu horiek interpretatzeko zailagoak dira, 1980ko hamarkadatik datorren hazkundea ikusten uzten ez dutelako eta 1990eko hamarkadan gertatu zen boom delakoaren ondorengo hozte premeditua (propio eragin zutena) garbi islatzen delako. Baina, aldi berean, datuek argi islatzen dute gaur egun bertsoaritzak bigarren boom bat bizi duela, eta boom honek, lehenengoarekin alderatuz gero, beste ezaugarri batzuk dauzkala: lehenengoan funtsezkoak ziren bertso saio masifikatuak, eta bigarrenean, berriz, publiko gutxiagoko saio askoz gehiago daude. Ondorioz, bigarren boom honetan publiko kopurua lehenengoan baino handiagoa da.

Bertso saio kopuruaren bilakaera




Bertsolaritzaren proiektu soziokulturalak garrantzia handia eman dio jendeak kultur sorkuntza elkarrekin bizitzeko espazioak sortzeari.

Bertsolari kopuruaren bilakaera



Bertso saioetako publikoaren bilakaera



Edonola ere, indartsu dagoela baieztatzen dugunean, komeni da zertaz ari garen argitzea. Azken urteetako ikerketek agerian utzi dute bertsolaritzaren egoera arraroa dela. Jatorri tradizionalako kantu inprobisatu metrikadun errimadun asko ez dago bereziki osasuntsu hirugarren industria iraultzaren hastapenetan. Bertsolaritza bai, osasuntsu dago. Baina erlatiboki bakarrik. Kultura gutxiagotu baten testuinguruan dago indartsu. Kulturaren eremuan beste adierazpide erraldoi batzuek baldintzatzen duten munduan bizi baita bertsolaritza.

Sozializatorako guneak

Zinemara inoiz joan ez denari jarraibideak eman nahiko bage-nizkio, esan geniezaioke ez dela aukera txarra egun euritsu eta

Bertso-eskoletan gurutzatu egiten dira biografiak, bertsolaritza ardatz, eta esperientzia horrek sinergia aberatsak hauspotu ditzake. / Funtsean, elkarrekin ez zeuden munduak elkartzeko ahalmena da artikulazioa.

hotz bati itxoitea, atsegin duzun norbaitekin hitzordua adostea eta, elkarrekin berriketan, zinema aretorantz joatea, filma martxan dela zer edo zer elkarri esatea (ahapeka, mesedez), eta bukatutakoan, tabernaren batean, denbora pixka bat pasatzea. Oso ondo sentiarazi zaitzakeen esperientzia horretan, filmak badu garrantzia, jakina. Esperientziaren ardatza da (agian). Baina film hori esperientzia indibidual eta sozial zabalago bateko osagai bat da, ez osagai bakarra. Filma bizipen konplexuago batean txertatzen da. Filma ikusten duenak ez du bakarrik filma ikusten. Beste gauza asko ere egiten ditu. Beste gauza askoren subjektu egilea ere bada. Eta, ziur aski, horrek guztiak eragina ere izan du zinemaren arrakastan. Ikuslea ez da ikusle soila. Ez da kontsumitzaile soila.

Berdina pentsa genezake Euskal Rock Erradikala deitu zen fenomenolari buruz. Arrakastaren gakoa ez zen soilik izan gitarrarekin hiru akorde joz abesti bat osatzea, edo letra aldarrikatzaileak eta zirtolariak kantatuz publikoa zirikatzea. Ziur aski, zerikusia izan zuen kontzertuak espazio alternatiboetan antolatzeak, joaten zen jende motak, estetikak, bestelako kontsumoek eta jai giroak.

Kultura kontsumoaren politikatik kultura bizipenaren politikarako trantsizioa egiteaz ari gara. Bertsolaritzak egin du, neurri batean behintzat. Bertsolaritzaren proiektu soziokulturalak garrantzi handia eman dio jendeak kultura sorkuntza elkarrekin bizitzeko espazioak sortzeari. Bertso eskolak, txapelketak eta borondatezko lanerako guneak sortu ditu bertsolaritzaren gizarte mugimenduak. Ez da kontsumo soila. Bizipenak ekoizteko guneak dira. Nork bere biografiarekin aberasten du, eta besteenarekin txirikordatzen da.



**Baserrietan lan egiten da
Okela onaren bila
Espero dugu zuen etxean
Zuzenean sar dadila**

Unai Agirrereren bertsoa





Plazera ekoiztea ardatz izan du beti bertsolaritzak. Hori da bertsolaritzaren gasolina. Baina ez da entretenimendu hutsalaren plazer hori, oro har. Publikoak maite du bertsolaritza kultura garaikidearen esperientziarekin lotzen duen izaera. Baina bertsolaritzaren esperientziak badu bestelakotik ere, uztartu egiten baititu erakargarritasunaren eta etikaren diskurtsoa. Ez beti, beharbada, bertsoetan, baina bai bertsolaritzaren inguruan mugitzearen gertaera sozialean.

Bertso eskoletan gurutzatu egiten dira biografiak, bertsolaritza ardatz, eta esperientzia horrek sinergia aberatsak hauspotu ditzake. Txapelketak bertsolaritzaren hedapenerako sortuko ziren, agian, eta betetzen dute funtzio hori, baina, funtsean, euskaldunen sozializazio gune bihurtu dira. Bertsolaritza ardatz, gurutzatu egiten dira biografiak.

Esfera publikoa ere sozializazio gune bat da. *Hitzetik Hortzera* telebistako saioa jende askoren egongelan sartu zen, eta bidea ireki zien plazara joaten has zitezten. Telebistaren aroa agortzen ari denean, *bertsoa.eus* webgunea bertsolaritzaren Youtube bihurtzen hasi dela dirudi.

Bertsolaritza neoklasikoa eta rockaren belaunaldia artikulatu zirenean, bertsolaritza zabaldu, sakondu eta indartu egin zen.

Artikulatzen

Espainiako Vox alderdi politiko ultra-eskuindarrak oraingoz lortu duenak ez du hainbesteko meriturik. Frankismoaren parametroetatik inoiz mugitu ez den jendea erakartzen ari da. Bere baratzeko fruituak dira. Oraingoz. Aldiz, Marine Le Pen politikariaren Ressamblement National (lehen Front National zena) alderdiak bere milioika hautesleren artean dauzka filonaziak, lehen sozialista, komunista eta zentro-eskuina bozkatzeko zutenak, klase ertainak, langileak, eliteak... Baratze askotatik biltzeko gai da. Hori da artikulatzeko gaitasuna.

Funtsean, elkarrekin ez zeuden munduak elkartzeko ahalmena da artikulazioa. Egin dezake talde xenofobo batek, egin dezake justizia soziala ardatz duen talde batek, egin dezake balio liberalak lehenesten dituen mugimendu batek...

Eskubide zibilen aldeko mugimendua izan zen horretarako gai AEBetan. Gerraren aurkako mugimenduak erdietsi zuen hainbat herrialdetan. Feminismoa 2018ko martxoak 8aren eta ondorengo testuinguruan ere horretan ari da. Sekulako bizi-indarra batzeko aukera da artikulazioa. Sinergiak sortzen direnean, bakarka ezinezkoa litzatekeena ahalbidetu daiteke. Nork pentsa zezakeen, lortu aurretik, egun batean hainbat herrialdetan osasun zerbitzuak jasotzeko aukera hainbeste zabalduko zenik, 40 orduko lan astea ezarriko zenik, eskolara joateko aukera bermatuta egongo zenik, emakumeek bozkatzeko eskubidea lortuko zutenik, Alemaniak zentral nuklearrak itxiko zituenik, gurean derrigorrezko soldaduska iraganeko kontua izango zenik... Bertsolaritzari BEC oso txiki geldituko zitzaionik. Gainera, kontuan hartuta Txapelketa Nagusira doan publikoa ez dela urte osoko publikoaren %10 baino.

Ezingo genuke bertsolaritzaren gaur egungo egoera ulertu baldin eta ez bagenu artikulazioen eragina kontuan hartuko. Kultura eremu bateko sortzaileak eta zaleak artikulatzea oso bitxia da, eta oso eraginkorra, bertsolaritzarentzat behintzat. Baina, gai-



Gure herria pasatu...
gaztelako halnbat gar...
errezildarrok hirekin...
eta goza ezak UNA



nera, sortzaileen eta zaleen artean hainbat mundutako jendea badago, sinergiak handiagoak izan daitezke. Artikulazioa ez da normalean bat-bateko fenomenoa. Bertsolaritzan, adibidez, rockaren belaunaldia ez zen hasieratik naturalki txertatu. Jon Maia-
ren eta Alberto Irazuren liburuek ederki kontatzen dute hori. Gure ikerketarako egin ditugun elkarrizketetan ere nabarmena da. Lehenik, rockaren belaunaldiko bertsolari gaztea animalia exotiko baten moduan hartu zuten. Orduan bakanak ziren bertsolari horiek arrotz sentitzen ziren bertsolaritzaren munduan. Ez zuten gozatzen. Orduko bertsolaritza hegemonikoaren ezaugarrietatik ikasten ari ziren arren, beren beste munduek bertsolaritzan lekurik ez zutela senti zezaketen. Eurentzat egunerokotasunean arrunta zena ez zen arrunta bertsolaritzan. Baina, pixkanaka, gero eta bertsolari gehiago ziren horrelakoak, gero eta publiko kopuru handiagoa zen horrelakoa, gero eta espazio gehiago doitzen ziren beren baldintzetara, gero eta garatuagoak zeuden beren bertsokerak, gero eta garatuagoak publiko berrien gustuak, eta, azkenerako, hainbesteko pisu kuantitatiboa eta kualitatiboa lortu zutenean, bertsolaritzaren erdigunean bete-betean sartzea lortu zuten. Beste zenbait estilorekin partekatzen zuten erdigune hori, baina hainbestekoa zen rockaren belaunaldiko bertsolaritzaren loraldia, bertsolaritza bere osotasunean aldatu zuela. Ez zen soilik bertsolaritzaren barruko sektore bezala integratu. Osmosi moduko bat izan zen. Bertsolari berriek bere egin zituzten bertsolari neoklasikoen hainbat ezaugarri, eta, era berean, hainbat bertsolari neoklasikok eta tartean zubi lana egin zuten beste batzuek ere bere egin zituzten rockaren belaunaldikoen hainbat ezaugarri. Azken emaitza oso aberasgarria izan zen: bertsolaritza zabaldu, sakondu eta indartu egin zen.

Gaur egun nabarmena da antzeko zerbaiten hasiera izan daitekeela. Emakume bertsolariak eta publikoaren gehiengoa osatzen duten emakumeek zer leku izango duten bertsolaritzan, horrek nabarmen baldintzatuko du bertsolaritzaren etorkizuna.

Fidatzekoa ez den publiko hori da gaur egungo bertsolaritzaren publiko nagusia, eta ez soilik txapelketetan. / Bertsolaritza bidezkoagoa bada, bideragarriagoa izango da.

Publikoak pluralean

Ikerketarako elkarrizketatu genuen batek esan zigun ez zela publiko berriez gehiegi fidatzen, nahiago zituela ohiko bertsozale sutsuenak. Txapelketen epelera hurbiltzen zen jendea berdin-berdin urruntzen zela. Bada, fidatzekoa ez den publiko hori da gaur egungo bertsolaritzaren publiko nagusia, eta ez soilik txapelketetan, baita urtean zehar egiten diren saioetan ere. Monopolizatutako publikoaren garaiak joan ziren. Gaur egun, ko-erreferentzialtasuna da lorpen gorena.

Aniztasunaren Big Bang batez ariko bagina, lehenengo uneetan gaudela esango genuke. Joxerra Garziak aro multipolarra deitu zuena bizitzen ari da bertsolaritza. Publikoari dagokionez ere nabarmena da: emakume adina gizon dago, adin aniztasuna handia da, gustuak gero eta anitzagoak dira, etxean nahiz hurbilekoen artean, nahiz bestelako gunetan zaletu direnek osatzen dute publikoa.

HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu



Eta zergatik denok hizkuntza berean? Konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, jakin badakigulako merkatu global batean arrakastaz lehiatzeko ezinbestekoa dela denok batera jotzea.

Mundu globalizatu honetan gure hizkuntzak aurrera egiten du, aniztasunean eta konpromiso sozialean guztiok batzen eta jomuga finkatzerakoan laguntzen.

ORKLIN proiektua osatzen dugun guztiok hizkuntza berean mintzo gara, bakan batzuk lehen lerroan ikusezina izanda ere, guzti-guztiok behar-beharrezkoak garelako merkatuaren erronkei heltzeko.


"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"

Antoine de Saint-Exupéry

Bertsolaritzaren publikoa generoaren arabera



Bertsolaritzaren publikoa adinaren arabera



Maialen Lujanbio da publikoak gustukoen duen bertsolaria, eta harekin batera Amets Arzallus eta Andoni Egaña dira hiru izen aipatuena, eta haien ondoren beste ia hogeita bost izen daude aipatuena artean. Izen zehatzaren jakin-mina asetzeaz gain, sailkapen hauek gustuen aniztasuna iradokitzen dute.

Sabaia

Ikusteko dago sabaia kristalezkoa den, altzairuzkoa edo material organikoekin egina dagoen. Baina badagoenik ukatzea asko zailtzen dute ebidentziek. Nabarmenegia da. Ez da, jakina, bertsolaritzan bakarrik gertatzen. Bizitzaren arlo guztietan dago, baita arteetan ere, Euskal Herrian, mundu osoan zehar. Euskal literaturako sarietan gertatzen da, Nobel sarietan, Cannes-en, Grammy sarietan, margolarien erakusketetan... leku guztietan. Baita ber-

Bertsolari aktiboen artean lautik hiru inguru gizonetzkoa eta lautik bat inguru emakumezkoa da.



tsolaritzan ere. Ez du merezi eztabaida horretan galtzea. Hobe da denbora hori irtenbideei buruz hitz egiteko erabiltzea.


Bertsolaritza bidezkoagoa bada, bideragarriagoa izango da, artikulazio sozialen indarra ahalbidetuko duelako. Rockaren belau-naldiarekin zalantza izan zuten ea bertsolaritzari eusteko gai izango ziren. Eta laster erakutsi zuten eusteko ez ezik bertsolaritza zabaltzeko, sakontzeko eta indartzeko gaitasuna ere bazutela. Emakume bertsolariek eta publikoko emakumeek, ziur aski, askoz gehiago egiteko potentziala dute. Zenbaki kontu bat da, besteak beste. Biztanleriaren zer ehuneko ziren rockeroak? Zenbateko pisua zuen rockak kultura garaikidean? Eta emakumeek?

Edonola ere, eszeptikoentzat, zenbait datu jarri nahi ditugu eskura, genero desberdinkeriaren eztabaidan ebidentziak kontuan hartuta koka daitezzen.

Datuek argi erakusten dute ez dagoela diskriminazio positiborik.


Datuek garbi erakusten dute kopuruak nahiko parekoak direla 18 urtetik beherakoen artean, bai partaidetzari dagokionez, bai merituei eta gaitasunei dagokienez. Aitzitik, gaztaroaren hasieran desberdinkeriak bereziki estutzen duela iradokitzen dute datuek, orduan hasten baitira kopuruak elkarrengandik aldentzen, harik eta bertsolari aktiboen artean lautik hiru inguru gizonetzkoa eta lautik bat inguru emakumezkoa den arte. Pentsa liteke *bertsolari aktibo* kontzeptuaren definizioak baldintzatu ditzakeela kopuruak, baina ez, zenbakiei buelta asko eman arren, desberdinkeria oso nabarmena da.

Emakume eta gizon bertsolarien kopurua, adinaren arabera



Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (ikertzaileok landutako datuak).

Emakume eta gizon bertsolarien kopuruen bilakaera, eta bertso saioetako parte hartzeen bilakaera, adinaren arabera



Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (ikertzaileok landutako datuak).

Ikerketan zehar detektatu dugu diskriminazio positiboari buruzko eztabaida dagoela bertsolaritzan, eta fenomeno bitxia da, zeren datuek argi erakusten dute ez dagoela diskriminazio positiborik. Esate baterako, bertsolari kopurua zenbatekoa den eta emakume zein gizon bertsolariek zenbat saiotan parte hartzen duten aztertzen badugu, agerikoa da emakume bertsolari kopurua handitu ahala handitu dela parte hartze kopurua, ez gehiago ez gutxiago. Edonola ere, kontuan hartu behar da hemen aurkezten ditugun datuak aztertzean ez zaiola zenbakiaren zehaztasunari begiratu behar, joera orokorrari baizik. Datuak oso fidagarriak dira, baina

Bertsolaritzaren nukleoan nahiz publikoan hainbatek ez dute uste generoari dagokion arazorik dagoenik.

ez dira erabat zehatzak. Galdetegietan lagin txikiekin inferentziak egiten dira, populazio handiei buruzko ondorioak ateratzeko. Alta, datu hauetan lagin handiak erabili ahal izan ditugu, Xenpelar Dokumentazio Zentroan datu andana jaso dutelako urteetan zehar, genero galba herik gabe jaso ere.

Nolanahi den, arazoa ez da soilik kuantitatiboa, kualitatiboa ere bada. Emakume bertsolariei oholtza gainean uzten zaien espazio sinbolikoa oso estua da oraindik ere, eta publikoaren zati handi batek nekez balioesten du molde hegemonikotik urruntzen dena. Hegemonikoa ez denarekin konektatzea kostatzen da egiten zaie, ez zaie hain ona iruditzen, ez die halako barregurarik eragiten.

Deigarria da, hala ere, bertsolaritzaren nukleoan nahiz publikoan hainbatek ez dutela arazoa dagoenik uste. Ez dute uste emakume bertsolarientzat zailagoa denik. Ez dute uste emakume bertsolariek leku handiagoa beharko luketenik.

Zorionez, hainbat aurre-rapauso ere izan dira azken urteetan. Bertso eskolek egin zuten Troiako zaldiarena: bertsolaritzan existitzen ez ziren baldintza inklusiboak sortu zituzten, eta horiei esker hurbildu ziren bertsolaritzara bestela hurbiltzerik izango ez luketenetatik hainbat. Halaber, emakume bertsolariek elkarren artean sortu dituzten sareak



EUSKAL GARAGARDO NATURALA!



funtsezkoak dira genero desberdinkeria gainditze aldera. Aipatzeko modukoak dira *Ez da kasualitatea* saioak, Ahalduntze bertso eskola, Zilekoa... Bestalde, funtsezkoa da bertsoaritzaren esfera publikoan gertatzen ari dena, eremu horretan eztabaidagai baitago zer den bertsoaritzza eta nondik jo beharko lukeen. Azken Txapelketa Nagusian, adibidez, hobetsi beharreko bertsokerari buruzko eztabaida publikoarekin batera (Twitter-en, saioetako publikoan, lagunarteko solasaldietan, lankideekin hizketan, umeen jolas parkeetan gurasoen artean, elkarte gastronomikotan...) eztabaidagai zeuden generoari lotutako hainbat alderdi, eta horrek eragina izan zuen Txapelketan, hainbat eratakoi gainera. Baina esfera publikoan hizpide dena ez da nahitaz jendearen gehiengoari gehien interesatzen zaiona. Batzuk bertsoa kantatzen hasteko abiadurari buruz ari ziren bitartean, publikoaren gehiengoari hori ez zaio axola, edo ez gehiegi behintzat. Publikoaren gehiengoari batez ere umorea, hunkitzeko gaitasuna eta irudimena axola zaizkio. Horretan ere badu generoak zeresana.

Lehen generoa okela besterik ez zen bertsoaritzan, txuleta.

Lehen, generoa okela besterik ez zen bertsolaritzan, txuleta. Orain, generoarekiko ikuspegi berdinzale batek bertsolaritza zabaldu, sakondu eta aberastu egin dezake. Genero aldetik eman diren aurrerapausoek lortu dute, adibidez, bertsozale ez ziren hainbat bertsozaletzea.

Horregatik da hain garrantzitsua sabaia kristalezkoa den jakitea, edo altzairuzkoa, edo material organikoz egina dagoen. Bidez-kotasun eta bideragarritasun kontua da.

Google hub bat da. Eta bertsolaritza?

Nork esango zuen musika industria hondoratuko zenik? Gaur egun ez dirudi energia industria handiak arriskuan daudenik, baina, Jeremy Rifkin-ek esaten duenez, hala daude, bai, eta, iraun nahi badute, hobe dute negozio eredu guztiz aldatzea. Google izan daiteke haien eredu. Google *hub* bat da funtsean, sareak elkartzen diren gune bat. Googlek doan eskaintzen ditu hainbat zerbitzu, eta jendeak doan ekoizten ditu milioika eduki Google-

 <p>Zarautz</p> <p>Hileta Zerbitzuak</p>	 <p>Euskalduna</p> <p>Hileta Zerbitzuak</p>
<p>Araba kalea, 35 ZARAUTZ • Gipuzkoa Tfnoa. 943 894 937 Faxa 943 894 941 E-mail zarautz@harrespil.net</p>	<p>Amilaga, 39 20570 BERGARA • Gipuzkoa Tfnoa. 943 761 299 Faxa 943 761 299 E-mail harrespil@harrespil.net</p>





rentzat, esate baterako Youtuben. Jendea saretzen laguntzeari esker, Googlek lortu du jendea berarentzat doan lanean jartzea eta horrekin diru asko egitea.

Hub izatea lortzen duen enpresak/mugimenduak/fenomenoak bereganatu egiten du jendearen bizindarra, eta trukean zerbait ematen dio jende horri; batik bat, beste jende batengana iristeko lotune izatea, biografiak gurutzatzea, bestela biziko ez lituzkeen esperientziak bizitzeko aukera alegia. Ondorioz, jendearen jarduera mesedegarri bihurtzen da hub horrentzat. Jendea artikulatzeko modu oso errentagarria da. Eskainiz hartu egiten du. Errentagarritasun hori dirutan edo bizindarrean kobra daiteke.

Hirugarren industria iraultzan nekez iraungo dute hub bihurtzen ez diren kultur sorkuntza gutxiagotuek.



Bertsolaritzak bere txikian ere lortu du batzuetan hub bihurtzea, adibidez bertsolaritza neoklasikoa eta rockaren belaunaldia artikulatu zirenean. Aurretik pentsaezinak ziren nahasketak ahalbidetu zituen horrek. Orain emakume bertsolariak, publikoko emakumeak, belaunaldi gazteena... horiek guztiak aukera ona dira bertsolaritzarentzat hub bihurtzen jarraitu dadin.

Hirugarren industria iraultzan nekez iraungo dute hub bihurtzen ez diren kultura sorkuntza gutxiagotuek. Katuek zazpi dauzkaten bezala, bertsolaritza-hub horrek gutxienez hiru bizitza izan ditzake, eta, bestela, ziur aski, inertziarekin galduko da, apaingarri folklorikoen galerian. •





BEÑAT GAZTELUMENDI ARANDIA

**“BERTSOLARITZARENTZAT
ARROTZAK ZIREN
GUNEETAKO
IKUSPEGIAK
TXERTATU DIRA
PLAZAN”**

TESTUA: AINHOA AGIRREAZALDEGI
ARGAZKIAK: CONNY BEIREUTHER



Añorga (Gipuzkoa), 1987. • Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua (EHU). Kazetaria eta bertsolaria. • Umetan hasi zen bertsoan, eta hainbat bertso eskolatako partaide izan da (Igeldo, Hernani, Santutxu eta Añorgakoan, besteak beste). Birritan izan zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan txapel-dunorde (2007an eta 2011n) eta txapela jantzi zuen 2015ean. Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean izan zen 2013an eta 2017an. • Kazetari gisa hainbat lan egin ditu, eta www.bertsoa.eus proiektuan aritu da lanean hainbat urtez. • Euskal Herriko Bertsozale Elkarteke Ikerkuntza taldeko kidea 2008tik, eta Ikerkuntza saileko arduraduna da gaur egun. EHBeko lehendakaritza taldeko kidea da 2018tik.

Berriro jo du Bertsozale Elkarteak EHUko lan taldearengana. Horrek esan nahi du aurreko azterketa soziologikoa emankorra eta baliagarria izan zaiola Elkarteari? Zein izan da aurreko Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoaren erabilgarritasuna?

Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoa jada sistematizatu daukagun azterketa bat da: 1991-1993 bitartean egin zen lehen-dabizikoa, 2005-2007 artean bigarrena eta 2015-2018 artean egindako hau da hirugarrena. Hiru azterketak mamitsuak izan dira, eta azterketa bakoitza bere horretan interesgarria izan arren, elkarrekiko konparazioak ere indarra ematen die, bertsozaletasunaren eboluzioak eta joerak erakusteko balio baitute.

Bertsozale Elkartea gizarteari lotua dago, gure proiektuak eragin egin nahi du, eta eragin hori neurtzeko ezinbesteko tresnak dira Azterketa Soziologikoak. Gainera, urte hauetan guztietan bertsolaritza aztertzen aritu den soziologo taldeak ezagutza handia dauka bertsolaritzaz, intuizio handia, eta horrek ere lagundu du eurekin lan egiterakoan.

Azterketa diseinatzea eta azterketa bera egitea izan ziren lehen bi faseak. Bi urteko prozesua...

Diseinuak sekulako garrantzia dauka halako lan batean. Askotan, erantzunak ematea baino zailagoa izaten da galderak pentsatzea.





Bertsozale Elkartek 2005ean zeuzkan galderak eta orain dauzkanak ez dira berberak, Elkartea aldatu egin delako, bertsolaritza eta bertsogintza aldatu diren hein berean. Alde batetik, azken urteotako joera berriak neurtu nahi genituen: Internetek bertsolaritzaren zabalkundean duen pisua adibidez, edo egiten dugun lanak hezkuntza arautuan dauzkan ondorioak. Eta, bestetik, garrantzitsua zen aurreko azterketetako galdera batzuk errepikatzea ere, erantzunak konparatu ahal izateko.

Behin azterketa diseinatutakoan hiru fasetan egin da azterketa. Lehendabiziko fasean bertsolaritzaren inguruko 30 bat kideri elkarrizketa kualitatiboak egin zitzaizkien, bi ordu bueltakoak. Hortik erantzun batzuk jaso ditugu. Eta ikertzaileak horiek txukuntzen aritu dira.

Ondoren, 2017ko udaberrian, plazako inkestak egin ziren.

Azkenik, 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren inguruan ere inkestak egin ziren. Lan luzea izan da, baina bertsolaritzaren inguruko hainbat geruzatara iristea lortu dugu, erantzunak ere ahalik eta osoenak izan daitezten.

Behin azterketa amaituta, Bertsozale Elkartearen hurrengo 12 urteetarako plan estrategikoa osatuko da. Horretarako gogoeta fase batean sartuta zaudete. Lehendabizi bertsozaleei emaitzak aurkeztu zenizkieten herrialdez herrialde; ondoren hausnartzekoak izan daitezkeen gaiak atera, multzokatu eta horien gaineko iritziak biltzeko tailerrak egin zenituzten Baionan; prozesu parte hartzaile hau amaitzeko, azaroaren 10-11ko gogoetaldia izango da.

Prozesu luze bezain ederra ari da izaten. Zuzendaritza Batzorde-kide gisa prozesu hau bizi ahal izatea luxu handia da. 2006an egin zen Bertsozale Elkartearen azkeneko gogoeta estrategikoa,

“Bertsozale Elkartek 2005ean zeuzkan galderak eta orain dauzkanak ez dira berberak”. / “2006an egin zen Bertsozale Elkartearen azkeneko gogoeta estrategikoa. Orduko helburu gehienak beteta daude”.



El Gato
de la
Fobia

El Gato de la Fobia
Calle de...
Teléfono: 91...
www.elgato.com





eta orduko hartan, sailez sail, 12 urteko epe baterako helburu estrategikoak markatu ziren. Epe hori 2018an bete dugu, helburu gehienak beteta eta Bertsozale Elkartearen proiektua ikaragarri zabalduta, bai egitasmoz eta baita ekipoz ere. Orduan ez geneuzkan tresna asko dauzkagu gaur egun. Horietako bat, adibidez, Mintzola Ahozko Lantegia da, bestek beste, bertsolaritzaren ikerkuntza bultzatzea helburu duen erakundea. Mintzola bitartez gauzatu dugu, adibidez, hizpide dugun Bertsolaritzaren Azterketa Soziologikoa.

Behin 2006-2018 epea beteta, aurrera begira jartzeko garaia da, eta horregatik abiatu dugu Gogoeta Prozesua aurten. Berriz ere ekipoa trinkotu nahi dugu, ikuspegi berriak proiektuan txertatu, hemendik 10-12 urtera Bertsozale Elkartean lidergoa edukiko duten belaunaldi berriak garai horretarako helburuak gurekin diseinatzen jarri... Funtzio asko dauzka Gogoetak, horregatik antolatu dugu hainbeste hila-bete hartu dituen prozesua.

2018ko ekainean jarri genuen lehenengo fasea martxan, helburu batekin: zertaz gogoetatu nahi genuen erabakitzea. Galderak egitea, alegia. Horretarako beharrezkoa zen non gauden jakitea, egoeraren diagnostiko xehe bat egitea. Hori lortzeko dauzkagun tresna guztiak aprobetxatu nahi izan genituen eta, noski, Azterketa Soziologikoa tresna bikaina zen horretarako. Azterketan ageri diren gaien hustuketa bat egiteaz gain, herrialdez herrialde aurkezpenak egin zituen Harkaitz Zubirik, ekarpenak jasotzeko. Horrez gain, Bertsozale Elkarteko sailetatik ere ekarpenak jaso genituen, landu nahi zituzten gogoeta-gaien inguruan. Jasotako

“Entzuleak, bertsogintzako ereduak eta saioak dibertsifikatu egin dira, eta horrek esan nahi du leku gehiagotara iristen asmatu duela bertsogintzak”.

gai proposamen guztiak bildu eta bertsolaritzan ari diren eragile, bertsozale eta sortzaileei bidali genizkien, gaietan lehentasunak markatu eta ekarpenak egin zitzaizten. Horrela osatu genuen gogoetarako gaitegia.

Irailaren 22an, bigarren faseko tailerrak egin genituen, Baionan. Gaika sailkatu genituen edukiak eta sei tailer egin genituen gutzira: “Non eta nola geroratu bertsolaritza?”, “Zer eta zertarako ikertu?”, “Norantz doaz plaza eta bertsogintza?”, “Genero berdintasuna: zertan eta nola eragin?”, “Nola hedatuko dugu bertsolaritza gaur egungo kontestuan?” eta “Zer eta nola komunikatu behar dugu esfera publikoan?”. Denera 100 lagun inguru elkartu ginen, ekainean zehazturiko gaitegia edukiz bete eta adostasun eta tentsioak non zeuden identifikatzeko.

Hirugarren fasea azaroaren 10ean eta 11n egingo dugu, Barrian. Hirugarren fase honetan iraileko tailerretatik ateratako edukiak lehentasunen arabera antolatu eta adostasunetara heltzen saiatuko gara, datozen 10-12 urterako helburuak zein izango diren zehazteko.

Indar

An *Ingeteam* brand



“40 urte igaro dira, eta oraindik ere bertso-eskolak dira mugimendu bezala sortu dugun tresnarik eraginkorrenak”.

Dena den, 2018a gogoeta urtetzat hartu baldin badugu ere, gogoeta etengabea da Bertsozale Elkartean: etengabe aritzen garga gure egitura eta funtzionatzeko moduak dauzkagun helburuetara doitzen, eta azaroan helburuak markatu ondoren ere horretan jarraitu beharko dugu eguneroko lanean.

Ustekaberik jaso duzue azterketako emaitzekin? Izan da bereziki poztu edo/eta kezkatu zaituzten ezer?

Ustekabeak baino gehiago geneuzkan susmoak berretsi dizkigu Azterketa Soziologikoak. Puntu asko aipa daitezke bertan, baina hiru aipatuko nituzke nik. Alde batetik, mugimendu gisa, Azterketak ateratzen duen ondorio nagusia da bertsolaritzak aurrera egin duela, gizarte mugimendu gisa egituratzen eta funtzionatzen asmatu zuelako. 1980ko hamarkadan, transmisio naturala ia etenda egotetik eta hiri-eremuetatik kanpoko fenomeno bat izatetik bere testuingurua aldatu eta aurrera begiratzeko proiektu sendo bat edukitzeraz igaro da bertsolaritza, bere burua antolatzen asmatu duelako.

Bertsogintzari dagokionez, Azterketa Soziologikoak dio bigarren “boom” baten aurrean gaudela. 1990eko hamarkadan izugarri hazi zen bertsolaritza jendez: jaialdi erraldoi ugari egin ziren. Gaur egungo gorakada ez dago hainbeste jaialdi erraldoiei lotua: entzuleria, bertsogintzako ereduak eta saioak dibertsifikatu egin dira, eta horrek esan nahi du leku gehiagotara iristen asmatu duela bertsogintzak.

Ondorio negatiboak ere atera ditugu, ordea. Bertsolari Txapelketa Nagusian askotan aipatu zen emakumeen parte hartzearen gaia, finlean bereziki. Azterketak erakutsi duena da parekidetasunera heltzeko izugarri falta zaigula plazan ere. Bertso eskoletan, gatzetxotan mutil adina neska aritu arren, 16-18 urtera heltzean, arrakala izugarria da, eta nesken kopurua ia lautik batera murrizten da. Plazan ere, batez beste, saioetan, lau bertsolaritik bat izaten da emakumezkoa, eta kopuru hori ia ez da aldatu ere egin

azkeneko 15 urteotan. Kezkarako motiboa da hori.

IKERKETAK EMANDAKO HAINBAT DATUREN AZTERKETA

Bertsolaritzaren habitat berria hiriburuak eta horien inguruko eskualdeak dira. Nork esango zuen duela zenbait urte hala izango zenik?

Oraindik landa eremuan bertsolaritzak estimazio handia badu ere, egia da aldaketa nabarmena izan dela. Azterketak berak aipatzen du orain dela 40-30 urte bertsolaritza desagertzeko edo minoritario bilakatzeko bidean zen kultur adierazpen bat zela, landa guneari lotua, transmisio naturalaren bidez geroratzen zena... Gizartea hiritartzen ari zen, eta bertsolaritzak murrizten ari zen mundu bati itsatsia geratuko zela zirudien. Baina bertso eskolak agertu zirenean dena aldatu zen. 40 urte igaro dira, eta oraindik ere bertso eskolak dira mugimendu bezala sortu dugun tresnarik eraginkorrena.

Bertso eskolak ez dira teknika bat erakusteko leku bat soilik, ez dira bertsotan ikasteko gune hutsak. Bertso eskolak sozializazio gune ezinbestekoak dira bertsozaleentzat: bertso eskolak dira bertsoa bizipen bezala gozatzen dutenek elkar ezagutzeko guneak eta, aldi berean, baita norbere bizipenak bertsotara eramateko guneak ere. Bertso eskolak herriz herri eragiteko tresnak dira, bertsolaritza herriko dinamikan txertatzeko oinarria. Eta dinamika horretatik etorri dira bertsogintzara artikulazio berriak ere: dinamika horretatik iritsi zen Azterketa Soziologikoan aipatzen den “Rockaren belaunaldi” hori bertsogintzara, eta hortik iritsi zen bertsoa garai batean hain urrun zegoen entzuleria batera. Eta etorkizunean ere, bertso eskolak ezinbesteko tresnak izango



“Ez dakit bertsolari kopurua hazteak aldatu duen bertsolaritza edo bertsolaritza aldatu izanak handitu duen bertsolari kopurua”. / “Gaur egungo bertsozalea ez da bertsozalea bakarrik. Diziplina askotatik jasotzen du kultura”.

dira bertsolaritza bestelako mugimendu eta mundu-ikuspegiekin uztartzeko.

Bertsolari kopurua hirukoiztu egin da azken hogeita bost urtean. Horrek zertan aldatu du bertsolaritza?

Ez dakit bertsolari kopurua hazteak aldatu duen bertsolaritza edo bertsolaritza aldatu izanak handitu duen bertsolari kopurua. Bertsolaritza gunee gehiagotara iritsi izanak bertso eskoletarako sarbidea erraztu du, eta bertsolari izatearen definizioa ere aldatzen ari da urteotan. Xabier Amurizak aipatzen zuen garai batean hiru muga jartzen zitzaizkiola bertsolariari: bertsolaria ezin zen egin, jaiotzetik izan behar zuen bertsolari; ez zen emakume bertsolaririk izango eta sehaskan euskara jaso gabeko haurrik ez zen bertsolari izango. Pentsa nola aldatu diren gauzak: gaur egun plazan ari diren bertsolariak bertso eskoletatik igarotakoak dira, neska ugari ari dira plazan ikaragarritzako mailan, eta guraso erdalduinak dauzkaten bertsolariak asko dira. Mundu honetarako sarbidea asko erraztu da, eta hazkundera, behar bada, hortik etorri da. Eta horri esker, bertsolaritzarentzat arrotzak ziren guneeetako ikuspegiak txertatu dira plazan, eta ikuspegi horiek txertatu izanak oraindik gehiago errazten du bertsolaritzarako sarbidea. Uste dut bi fenomenoek elikatzen dutela elkar.









90eko hamarkadaren amaieran Bertsozale Elkarteak bertsolaritzaren booma arriskutsutzat jo eta hanpatze hori gelditzeko esku hartu zuen. Azken hamarkadan berriz gora egin du bertsozaletasunak, baina ez dira orduko ezaugarri berberak.

Azterketatik atera daitekeen ondorio nagusietako bat horixe da. 1990eko hamarkadan aparraldiaz hitz egiten zen, boomaz, eta bazirudien burbuila hura lehertu egingo zela. Lehertu aurretik aparra jaistea erabaki zen orduan. 20 urte igaro ondoren garai hari begiratu eta irakurketa orokorrak egitea beti da arriskutsua, salbuespenak ere izango zirelako, baina badirudi jaialdi erraldoien garaia zela, eta jendearen eman horretan garai hartan halako oihartzuna zeukan telebista programa bat edukitzeak sekulako pisua zeukala.

“Betik ez da erraza borondatezko langileen eta soldatapekoen orekari eustea. Baina hori da gure filosofia, hori da Bertsozale Elkartearen eta bertsolaritzaren mugimendu osoaren arteko lotura bermatzeko bidea”.

Bigarren goraldi honetan saio kopurua izugarri hazi da, baina saio bakoitzeko entzule kopurua ez da 90eko hamarkada amaierako kopuruekin konparagarria. Orduan baino jarraitzaile gehiago dauzka bertsolaritzak, baina bertso saio kopurua da hazi dena, ez saio bakoitzeko entzuleria. Gaur egungo kultura joerekin bat dator hori: gero eta eskaintza pertsonalizatuagoetara ohituta gaude, eta bertso saioak ere egokitu egin dira horra. Gune bakoitza ari da bere gustuak garatzen, eta hori osasungarria dela iruditzen zait. Azterketak aipatzen du gaur egungo bertsozalea ez dela 90eko hamarkadako bertsozalearen profil berekoa: bertsozalea da, baina ez bertsozalea bakarrik. Diziplina askotatik jasotzen du kultura.

Bertsolaritzaren gizarte mugimenduak, bere burua berriro asmatu ezean, hiltzeko arriskua duela iradokitzen du azterketak. Mugimendua birpentsatzeko beharra ikusten duzue?

Jakina. Baina birpentsatze hori etengabea delakoan nago: bertso eskolak sortu zirenean birpentsatu zen mugimendua, telebistara jauzia eman zenean ere bai, aparraldia murriztea erabaki zenean ere bai... Azterketak ondorio baikor asko ateratzen ditu, baina badaude autokritikarako osagaiak ere, bai esfera publikoarekin dugun harremanari dagokionez eta baita genero arrakalari dagokionez ere. Bigarren hori bereziki kezagarria da. Azterketak berak esaten du parekidetasuneranzko urratsak egin behar ditugula, ez bakarrik bidezkoa delako, ematen ez baditugu bertsolaritzaren gizarte mugimenduaren bideragarritasuna bera kolokan egon daitekeelako baizik.

Azterketak datuz agertzen du diskriminazioa badagoela, eta zein den bere neurria. Eta, aldi berean, datu kualitatiboagoak ere agertzen dizkigu. Agertzen digu, esate baterako, emakume entzuleen gustua aldatzen ari dela, gizonenak bere horretan jarraitzen duen bitartean. Gustuen eboluzio hori, neurri batean, emakume bertsolariak egiten ari diren lanari lotua dago. Gaur egun, sekula



baino emakume bertsolari gehiago dauz-
kagu punta-puntan: Maialen Lujanbio, Uxue
Alberdi, Alaia Martin, Miren Amuriza,
Oihana Iguaran, Oihana Bartra, Miren Ar-
tetxe... Izen asko aipa nitzake. Lehen ikus-
ten ez genituen gorputzak daude oholtzan,
lehen entzuten ez genituen ikuspegi eta ko-
kapenetatik kantatzen. Alde batetik, horrek
eragin egin du gustuen eboluzioan. Baina
banaka bakarrik ez, kolektibotasunetik ere
etorri da aldaketa: “Ez da kasualitatea” saio
musikatuak, Ahalduntze bertso eskola... Al-
daketa handiak etorri dira kualitatiboki, eta
entzule askorengana iritsi dira. Eta iritsi ba-
karrik ez: bertsozaleriaren zati handi baten
sozializazio gune ere izan da ekosistema
hori. Adibide ederra izan daiteke ekainean

Iruñean egin zen Bertsolaritza Genero Ikuspegitik ikastaroa. As-
tinaldi bat izan zen ikastaroa bera, baina atzetik zetorren astinaldi
zabalago baten isla besterik ez zen izan. Horrek guztiak leku bat
behar du bertsolaritza, ez egoteko soilik, eroso egoteko baizik.
Hori lortzen ez badugu, bertsolaritzak, bere burua eraldatzeko
aukera galtzeaz gain, zaleria handia galduko du, belaunaldi berri
bat ere bai beharbada, eta orain hain osasuntsu ikusten dugun
mugimendua ahul, gotortuta eta atzean geratuko litzateke.

Aldi berean, Bertsozale Elkartearen barne antolaketa ere gogoeta-gai zentrala duzue, bai eta belaunaldi berriak erakartzea ere.

Etengabeko kezka da hori Bertsozale Elkartearen. Ikaragarri za-
baldu da proiektua urteotan, eta, ondorioz, baita Bertsozale EL-
kartea bera ere. 70 langile ari dira gaur egun elkarteetan lanean,
egitura asko zabaldu da, erritmoa eta dimentsioa asko hazi dira...
Baina, aldi berean, borondatezko langileen eta soldatapekoen ar-

“Belaunaldi berriak gonbidatze hutsa ez da nahikoa. Gazteak proiektura
erakarri baino, proiektua bera gazteen mundu eta ikuspegiatarara eraman
behar dugu”.

teko lankidetzan sinesten dugu. Gure zuzendaritzetan borondatezko kideak dira gehiengoak, haiek dira erabaki estrategikoak hartzen dituztenak... Beti ez da erraza izaten orekari eustea, ez eta bere lanordu libreak Bertsozale Elkarteari eskaintzen dizkionak proiektuaren ikuspegi osoa izatea ere. Baina hori da gure filosofia, hori da Bertsozale Elkartearen eta bertsolaritzaren mugimendu osoaren arteko lotura bermatzeko bidea. Eta horrek esan nahi du etengabe berrikusi behar dugula gure antolatze eta funtzionatzeko modua. Izaera oso ezberdineko jendea dabil Bertsozale Elkartearen, oso leku ezberdinetatik iritsi dena. Ekipo hori zaindu beharra dago etengabe.

Bestalde, Bertsozale Elkartearen sorrerako helburua bertsolaritza geroratzea zen. Horrek esan nahi du proiektua bera belaunaldi berriei begira sortu zela. "Gazteak erakarri" esaten dugu askotan, belaunaldi berriak gonbidatze hutsa aski balitz bezala. Baina ez da nahikoa. Proiektu batean parte hartzera gonbidatzen dugunari proiektuaren sorkuntzan parte hartzen ere utzi behar zaio, diseinatzeke garaian ere zilegitasuna eta protagonismoa eman. Gazteak proiektura erakarri baino, proiektua bera gazteen mundu eta ikuspegietara eramatea. Ez da beti erraza izaten, baina belaunaldien artean lan egitea da Bertsozale Elkartearen gabiltzanok izan dugun zortetik handienetako bat. Bertsolaritzaren mugimendua ez da Bertsozale Elkartea bakarrik, gazte asko ari dira buru-belarri bertso eskoletan, plazan, gaztetxeetan... Alde horretatik, transmisioa oso ondo bideratua dago, baina ederra litzateke gune horietako indar eta ikuspegiak Bertsozale Elkartearen ere txertatzea.

KEINU

**FESTETAKO ZAPIAK, BLUSAK...
DANTZARAKO ARROPA
ERA GUZTIETAKO BORDATUAK
(TXAPELAK, MANTALAK.)**

Nagusia. 12 • ANDOAIN • 637-28 32 24 • keinuandoain@gmail.com
www.txapelasybordados.com • www.txapelabordatuak.eus



Urte askoan etxea eta lagunartea izan ziren bertsozaletasunaren transmisioaren gune nagusi. Gero bertso eskolak, hedabideak eta hezkuntza arautuko proiektuak etorri ziren. Baina gero eta jende gehiago da helduaroan bertsozaletzen dena.

Azterketak berak aipatzen du bertsolaritzaren sozializazio guneak asko direla. Bertso eskolak dira nagusi, baina plaza bera ere sozializazio gune bat da, Bertsozale Elkarteko dinamika bera ere bai... Gune asko sortu ditugu bertsolaritzara sarbidea izateko, eta helduaroan ere asko dira zaletzen direnak, bai. Hipotesi bat baino gehiago egin daitezke horren inguruan. Nabarmena da “bertsolaria egin edo jai” egiten ote denaren eztabaida gairak ez dagoela adinik bertsoan ikasteko. Bertsoa garapen pertsonalerako tresna ederra da: gogoetak antolatze teknikak ematen ditu, lagunak egiteko balio du, herrian eragiteko aitzakia ematen du...

“Bertsoa garapen pertsonalerako tresna ederra da: gogoetak antolatze teknikak ematen ditu, lagunak egiteko balio du, herrian eragiteko aitzakia ematen du...”.





Bertsolarien kanonari dagokionez, azterketak kanon artistiko bakarraren arriskua aipatzen du, eta polifoniaren alde egitea gomendatzen.

Azkenaldian asko entzun dugun zerbait da ez dagoela bertsolaritza bakarra, bertsolaritzak daudela, pluralean. Alde batetik, bertsolari bakoitzak bere ahots propioa daukalako. Plaza bera ere dibertsifikatu egin dela esaten digu azterketak: gune asko daudela, eta gune bakoitzak daukala bere izaera, bere erreferentziak. Eta guneak dibertsifikatu diren bezala, gero eta bertsokera gehiago eta gero eta gorputz ezberdinagoak ateratzen dira oholtzara. Eta oraindik ere gehiago aterako dira. Hori osasungarria da, baina, horretarako, ekosistema hori babestu eta elikatu beharra dago.

Kanon bakarrarena txapelketari lotuagoa dagoelakoan nago: baliteke bertsozaleak txapelketako une gorenean jasotzen duen hori eskatzea ondoren ere, eta une horrek daukan hedapenak eta oihartzunak kanon artistiko bat ikusgarriago egitea. Azterketak ez du zalantzan jartzen txapelketaren beharra. Baina bertsolaritzak baditu kanonak orekatzeko tresnak ere: txapelketatik



DESA CRISTAL

Autoen kristalak konpondu, aldatu eta tindatu
www.desacristal.com

INPAKTUEN KONPONKETA
Azkarragoa,
ekologikoagoa
eta ekonomikoagoa.

Ez itxaron kristala guztiz apurtu arte
Kostu barik zuretzako.
Aseguru etxeekin zuzenean tramitatzen dugu.

CRISTALBOX

TAILERRA ETA BULEGOAK BERGARAN: Santalaitz, 6 - 5. Pab. Tel.: 943 76 36 09

desacristalbergara@gmail.com |  **674 36 57 42**

TAILERRA IRURAN: Ibaiondo Bailara 17 Pab. 8 20271 Tel.: 943 69 16 16

desacristalirura@gmail.com |  **674 36 57 73**



kanpoko saioak, ikerketak, bertso eskoletan egiten den lana... Uste dut azken urteotan plazara proposamen oso ezberdinak iritsi eta ikusgarri egitea lortu dela, bai Elkartearen bidez eta baita bertsolariek egindako lanari esker ere. Baina beti jarri beharko dugu begia aniztasun horren zaintzan.

Esfera publikoaren indarra ere agerian geratu da. Bertsozale Elkarteak ez du orain artean gehiegi parte hartu nahi izan, baina azterketan esaten da ez esku hartzea ere esku hartzeko modu bat dela. Buruko min bat baino gehiago sortuko dio horrek Bertsozale Elkarteari...

Pertsonalki, uste dut Bertsozale Elkarteak parte hartu izan duela esfera publikoan, beste kontu bat da nola parte hartu izan duen. Bertsolari Txapelketa Nagusian, oholtza eta oholtzaren ingurua ahalik eta gehien soildu eta bertsoa erdigunean jartzearen aldeko apustua egin genuen; 2016an, *Europa Bat-Batean* topaketak antolatu genituen hizkuntza gutxituen gaia, transmisioaren gaia eta generoaren gaia erdigunean jarrita; hainbat elkarte eta erakunderekin ari gara lankidetzan... Hori izan da esfera publikoan

“Hori izan da esfera publikoan parte hartzeko gure modua: egiten dugunaren (eta, nahi bada, egiten ez dugunaren) bidez komunikatzea gure diskurtsoa eta gizartean daukagun kokapena zein den”.

parte hartzeko gure modua: egiten dugunaren (eta, nahi bada, egiten ez dugunaren) bidez komunikatzea gure diskurtsoa eta gizartean daukagun kokapena zein den.

Bestalde, esfera publikoa plaza da, Bertsozale Elkarteko bilerak dira, bertso eskolak dira, sare sozialak dira... Azken urteotan asko aldatu da publikoa denaren eta ez denaren definizioa, zailgoa da nork bere burua hor kokatzea. Sare sozialetan bertsolari bat iraintzen badute zer egin, bertsokera edo gorputz bat gutxiesten denean zer egin... Kasuistika zabala da, eta eztabaida sakona izan daiteke. Eta ematen diogun erantzunak lagunduko digu esfera publikoaren definizio zabal horretan gure burua kokatu eta gure nortasuna eta jardun eremua zehazten.

Duela urte batzuk amaitu zen telebistaren aroa. Bertsoa.eus proiektua aspaldi sortu zen, baina gizartea harago doa...

Telebistaren aroa ez dakit bukatu zen, baina telebistaren zentraltasunaren aroa behintzat bai. Oraindik *Hitzetik Hortzera* erreferentziala da bertsozale batzuentzat, eta, hala den bitartean, denboraldiz denboraldi hobetzen jarraitu beharko dugu telebistari egiten diogun eskaintza. 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian *Aulki Jokoa* ere egin genuen, bagenekielako oraindik badagoela jende bat bertsoa telebistatik jasotzen duena.



KALE NAGUSIA, 14
20003 DONOSTIA
943 424 797

enbatadenda@gmail.com
www.enbata.eus

ENBATA

ITSAS ESTILOA - ESTILO DE MAR - STYLE MER



Interneten dena dago egiteko. 2006an sortu zen *Bertsoa.com*, eta ordutik hona asko garatu dugu bertsolaritza hedatzeko daukagun proiektua. Gaur egun hedapen ikuspegi oso baten parte dira bai *Hitzetik Hortzera* eta baita *Bertsoa.eus* ere, eta horrek aukera ematen digu estrategia orokor baten barruan proiektu bakoitzari helburu konkretu batzuk emateko. Pantailaren beste aldean dagoena ere ez baita profil bakarreko bertsozalea.

Gero eta ohituago gaude Interneten eskaintza pertsonalizatua jasotzera. Bertsolaritzan, oraindik, *Bertsoa.eusekin* erantzuten diogu Interneten erronkari, baina gero eta ikuspegi zabalagoare-

“Azken urteotan asko aldatu da publikoa denaren eta ez denaren definizioa, zailagoa da nork bere burua hor kokatzea”. / “Plaza mota hainbeste ugaritu den honetan, zer, non, nola eta norentzat hedatu nahi dugun pentsatu beharko dugu”.

kin begiratzten diogu. Hala ere, erabiltzaileari soilik ez, edukiari ere begiratu behar diogu. Plaza dibertsifikatu egin dela esan digu azterketak, bertsolari kopurua hazi egin dela, gustuak ere dibertsifikatzen ari direla... Gogoetan ere atera zaigu gai hori: plaza mota hainbeste ugaritu den honetan, zer, non, nola eta norentzat hedatu nahi dugun pentsatu beharko dugu. *Bertsoa.eusek* bertsozale askori ematen dio plazaren jarraipena egiteko aukera, baina agian asmatu beharko genuke bestelako plaza mota batzuk bestelako erabiltzaile mota bati eramateko bidea ere. Internet bera ere bai baita bertsolaritzan sozializatzeko gune. Dena den, denboraren perspektibatik begiratuta, harrigarria da bertsolaritzak hedapenean eman duen jauzia ere: telebista programa bakarrik izatetik hedapen estrategia oso bat edukitzera igaro gara. Batzuetan kosta egiten zaigu dauzkagun tresnen eta potentzialaren kontzientzia hartzea.

Genero ezberdinkeria agerian uzten duten hainbat ebidentzia eman ditu azterketak. Eztabaidaezinak dira, baina eztabaidatzen jarraitzen dugu. Genero berdintasuna ardatz izango duen egitasmo global bat diseinatzeko beharra azpimarratzen du ikerketak...

Hamarkada bat baino gehiago da jada Bertsozale Elkartean Genero Taldea sortu zenetik. Ordutik hona Bertsozale Elkarte barruko funtzionamendua asko aldatu da: egituraren barruan, erabakiguneetan, emakumeen presentzia asko hazi da, bileretan hitz egiteko modua, elkarren zaintza... Etxe barruan, kontzientzia lan handia egin zen bere garaian, eta, kontzientzia hartu ondoren, bestelako praktika batzuk gauzatu ditugu.

Azterketak hori ez du zalantzan jartzen. Baina fokua plazan jarri du, eta, lehen aipatu bezala, genero ezberdinkeria begi bistakoa da: bertso eskoletan, 16 urtetik gorakoetan, lau ikasletik hiru mutilak dira; plaza bakoitzean, lau bertsolaritik hiru gizonezkoak dira... susmoak geneuzkan eta orain datuetan islatuta geratu da

hori, eta abiapuntu bat ematen digu horrek, badakigu zehazki zein den oraingo egoera. Eta ez kuantitatiboki bakarrik: kualitatiboki ere Azterketak aipatzen du plazan bertsolariei jarritako roletan nolako bereizketa egiten den, adibidez. Horri nola buelta eman? Kontua ez da neurri puntual batzuk hartzea soilik: bertsolaritzak proiektu global bat dauka eta, generoak pertsona guztiok zeharkatzen gaituen gisa berean proiektu guztiak ere zeharkatzen dituzenez, zehar-lerro gisa planteatu behar dugu: neurri eraginkorrak hartu behar ditugu eta ondo pentsatu zer transmititzen, hedatzen, sustatzen, ikertzen eta komunikatzen dugun. Osotasun hori kontuan hartu ezean, hartzen ditugun neurriak ez dira eraginkorrak izango.

Bertsolarien lan baldintza prekarioak duintzeko lan prozesurik abiatuko duzue?

Azken urteotan sekulako jauzia eman du Bertsozale Elkarteak bertsolaritzaren azpiegitura indartzeko 2003. urtean sortutako Lanku Kultur Zerbitzuak enpresak. Bertsolariek, orain, aholkularitza zerbitzua jasotzen dute, kontratuak zaintzen dizkien erakunde bat daukate... Hor pausoak eman dira urteotan. Garai batean, bertsolaria bakarrik joaten zen plazara, berak kudeatu behar izaten zituen kontratu eta bestelakoak. Orain, hor dauka Lanku. Babes bat da hori. Baina oraindik ere bertsolariak prekario izaten jarraitzen du, Euskal Herrian sortzaile gehienak diren gisa berean. Hiru eremuk zeharkatzen dute bertsolarien egoera: kulturgileek orokorrean jasaten duten prekarietateak; euskal kulturgileek, behar besteko babesik ez duen hizkuntza batean ari diren neurrian, jasaten dutenak eta bertsolariek, Gizarte Segurantzak eta ogasunak arte bezala ere sailkatu ez duten diziplina batean ari diren sortzaileek, jasaten dutenak. Euskal artistak lan handia egiten ari dira azken hilabete eta urteotan gai honen inguruan, eta guk ere hor egon behar dugu, lehendabizi gure izaera eta gure garrantzia aitortu daitezen, eta izaera eta garrantzi horren neurriko ordaina eta babesa jaso ditzagun.

“Generoaren gaian etxe barruan kontzientzia lan handia egin zen bere garaian, eta kontzientzia hartu ondoren bestelako praktika batzuk gauzatu ditugu”. / “Genero ezberdinkeria begi-bistakoa da. Lehen susmoak geneuzkan eta orain datuetan islatuta geratu da hori”.



**Lidergo teknologikoa ingurua
garatzeko eta herritarraren ongizaterako**

www.irizar.com

Jende asko biltzen du mugimenduak, bertsolaritzan kokatuta dauden lekuaren arabera, lehentasunen gaineko iritzi ezberdina izan dezaketena. Nola lortzen da denen arteko kontsentsua horrelako gogoeta prozesu batean?

Helburua ez da denok iritzi bera izatea: bertsolaritza oso mugimendu zabala eta anitza da, lehen aipatu bezala gune askotara iristen dena. Bertsozale Elkartearen helburua ez da gune horietako bakoitzetik ari direnak konbentzitzea, alderantziz baizik: gure proiektuan hain ezberdinak diren gune horietako ikuspegiak txertatzea nahi dugu. Gogoeta prozesu honen helburua ez da denok denean ados jartzea. Helburu estrategikoak markatzera goaz, hemendik 10-12 urterako norabideak. Hortik aurrera, gune horietako bakoitzaren esku egongo da norabide horri nola, zer erritmorekin eta zer ekiporekin jarraitu erabakitzea. Herrialdeetako Bertsozale Elkarteak autonomoak dira, denok proiektu baten parte garen arren. Autonomiaren eta batasunaren arteko tentsioa ez da beti erraz kudeatzen, baina horretan asmatzea klabea da proiektua benetan denona izan dadin. •





GURE KULTURAREN KOLORE GUZTIAK

Kolore guztiak ditu gure kulturak, era askotako gustu, joera eta edukiak. Eta horiek guztiak behar bezain txukun aurkezten eta irakurtzen laguntzen du inprimategi batek, liburu, aldizkari eta bestelako inprimakiak eginez. Adibidez, esku artean duzun *Bertsolari* aldizkari hau. Koloreez eta letrez arduratzen gara gu, zuk bertsoez, argazkiez eta komikiaz goza dezazun.

LEITZARAN
grafikak

Martin Ugalde Kultur Parkea
20.140 Andoain (Gipuzkoa)
Tel.: 943 303510 - Fax.: 943 593067

XABIER AIERDI URRAZA

“BERTSO-MUNDUA
TRADIZIO MODERNO
BAT DA”

TESTUA: AINHOA AGIRREAZALDEGI
ARGAZKIAK: CONNY BEIREUTHER



Zeberio (Bizkaia) 1957. • Soziologia eta Politika Zientzietan (Deustuko Unibertsitatea) eta Kazetaritzan (EHU) lizentziatua. Doktorea da Soziologian eta EHUko Soziologia fakultateko irakasle titularra izan da oraintsu arte. Pixkanaka, erretiroa hartzen ari da unibertsitateko lanetatik. • Migrazio, identitate eta etnizitate gaietan aditua da, eta bere ikerlan gehienak gai horien gainekoak izan dira. Hainbat ikerketatan hartu du parte, bai eta hainbat kongresutan ere. Immigrazioaren inguruko argitalpen ugari ditu, eta arlo horretako hainbat proiekturen sortzaile eta bultzatzaile izan da. Berak sortu zuen IKUSPEGI, Euskal Immigrazioaren Behatokia, eta bertako zuzendari izan zen hainbat urtez. 2011n, Jose Antonio Oleagarekin batera, BEGIRUNE sortu zuen: Immigrazioaren Ikerketarako Laborategia. • Euskara eta euskal kultura aztergai duten hainbat ikerketatan ere parte hartu du, gaiari buruzko hainbat argitalpen ditu eta hitzaldi zenbait ere eskaini izan ditu. Hauek dira landutako zenbait gai: etorkinek zer hizkuntza dakizkiten eta horrek zer zerikusi duen euskareneko egoerarekin; euskaraz egiten duten hedabideen egoera; abertzaletasuna eta euskara; euskal kultura nola eraikitzen da gaur egun... • II. eta III. Bertso-laritzaren Azterketa Soziologikoetako iker-taldeko partaide izan da.

BERTSOZALETASUNAREN AZTERKETA SOZIOLOGIKOA: ZERGATIK ETA ZERTARAKO

Zergatik eta zertarako jotzen du kultura eragile den elkarte batek azterketa soziologiko batera?

Ezagutza soziologikoak lagundu diezaioke edozein eragileren jakiten non dagoen, zelan dagoen, zein den berak duen lurra, zein den daukan eremu finkoa, nola ikusten den kanpotik ekimena... Gauza askotan. Ez gaude ohituta horrelako lanetara.

III. Bertsozaleatasunaren Azterketa Soziologikoa da hau. Azken bietako lan taldean egon zara zu. Zertan izan dira berdinak eta zertan ezberdinak bi azterketak?

Hari bat badago. 2005ean hasi ginen, eta orain 2016-2018 bitartekoa egun dugu. Aurrekoan hari bat atera genuen, eta esaten genuen gaur egun bertso mundu guztia tradizio moderno bat zela. Hari horrek jarraitu egiten du: 2005eko ikerketan sustraiak zeuden, eta orain areagotu ez ezik, nolabait frogatu egin da.







Bi elementu horiek uztartzea fenomeno oso kurioa izan da. Agian ez zela posible pentsatzen genuen, baina urteak pasatu ahala ikusi dena da nola berritu daitekeen tradizio bat osagai modernoekin, gizarte moderno batean. Eta nola, hein batean, bertsolaritzan gertatu den fenomenoak lagundu diezagukeen euskal gizartea ezagutzen eta euskal gizarteak izan dituen eraldaketak ezagutzen. Hau da, bertsolaritza, bertsogintza eta bertsozaleatasuna azken finean, bertso sistema osoa eraberritu egin da, baina, azken finean, gizartearen isla da eta gizartea ere hori islatu daiteke. Hau da, gizarte bat zeina erro batzuk mantentzen dituen, baina, era berean, oso modernoa den. Nire ustez, hori da garrantzitsua, eta batzuetan ez zaigu gustatzen bi elementu horiek uztartzea: badirudi tradiziotik gehiago izan behar duela modernotik baino. Baina, era berean, horretan datza, bi elementu horiek uztartzean, eta nola egiten duen posible gizarteak hori posible izatea, oso inportantea da.

Azterketa bi lanen gainean oinarritzen da: ikerketa kualitatiboa eta ikerketa kuantitatiboa. Zer informazio ematen du bakoitzak?

Biak bereiztea oso garrantzitsua da. Normalean, soziologian, ikerketa kualitatiboa aurkikunde eremua izaten da. Zerbaiten gainean gehiegi ez dakizunean, edo zerbaiten gainean dakizun guztia amaitu denean, ikerketa kualitatibora jo behar duzu. Ikerketa kualitatiboan egiten dena da fenomeno bat jendearekin intentsitatean eta sakoneran aztertu. Kuantitatiboak egiten duena da zabaleran neurtu. Baina oso garrantzitsua zen kualitatiboarekin hastea. Azken finean, izan da bertso munduko protagonistei galdetzea nola ikusi duten, barrutik, bilakaera guztia. Gero, hori agertzen diren datuekin eta ikusten diren joerekin, kuantitatiborako galderak diseinatzen dira. Ondoren, ikerketa kuantitatiboko erantzunek esango digute horko kezka eta iritziak zenbateraino dauden zabalduta sistema guztian. Gainera, uste dut oraino honetan eskertzekoa dela Harkaitz Zubirik egin duen

“Bertsolaritzan gertatu den fenomenoak lagundu diezaguke euskal gizartea eta euskal gizarteak izan dituen eraldaketak ezagutzen”.

ikerketa kualitatiboa. Ikaragarria da gaia aztertzeo erakutsi duen zorroztasun maila eta zer sakonerako elkarrizketak landu dituen.

Elkarrizketa sakon horietan, protagonista asko uste duena baino gehiago esaten ari da, eta guri dagokigu deszifratzea edo deskodetzea esaten duten horrek zer esanahi duen.

Ez zarete datuak jasotzera mugatu. Ebidentziak jaso eta ebidentzia horien gaineko hausnarketa egitea izan da zuen helburua.

Bai, batzuetan oso zabaldua dago “hemen ez da behar hainbeste teoria, hemen egin behar dena da ekin” dioen ustea. Kurt Lewin soziologoak zioen ez zegoela ezer praktikoagorik teoria on bat baino. Zuk beti teoria batetik abiatu behar duzu. Beste kontu bat da, esperientzia beti doala teoriaren aurretik. Orduan esperientzia eta bizipenetatik ateratzen dituzu hari mutur batzuk, eta galdetzen diozu zeure buruari: “Hemen zer ari da gertatzen?”. Eta, hortik hasita, teoriara jo behar da. Eta ikusi teoria horrek zenbateraino azaltzen duen zuk deszifratu duzuna edo zure bizitzan halako batean harriduraz ikusi dituzun kontuak. Azaltzen badu, ederki. Eta azaltzen ez badu, ikerketa kualitatibora jo behar da, jendeari galdetu: “Hau gertatu zenean zer gertatu zen? Beste hau zergatik egin zen? Nola bizi izan zenuen zuk beste hura...?”. Ikusteko norbaiti gertatu zaion esperientzia bat zenbatean den esperientzia zabalago bat. Hainbati gertatu zaionean antzeko kontu bat ez da norberaren arazoa, arazo soziologikoa baizik. Hori da ikerleak bilatzen eta deszifratzen duena. Ikerleak egin behar duena da ikusi jendeak esaten duenetik zer atera litekeen, prozesu zabalagoetan aztertuta. Prozesu hori oso liluragarria da.

Esaterako, bertso formatuetan ematen diren etengabeko eraberrikuntzak. Horrek adierazten du oso postmodernoak garela. Hau da, ezin dugula errepikatu zerbait, ohikeriazkoa iruditzen baitzaigu. Beraz, modernotasun edo postmodernotasunaren

“Elkarrizketa sakonetan, protagonista asko uste duena baino gehiago esaten ari da, eta guri dagokigu deszifratzea esaten duen horrek zer esanahi duen”.

ezaugarri bat izan daiteke esperimentazio etengabeen egotea. Horrelako fenomenoek adierazten dutena da gure buruaz irudi bat daukagula, baina praktikan beste gauza bat egiten ari garela. Hori da deszifratzea eta deskodetzea: ikustea zer esanahi egon litekeen egiten den horretan.

BERTSOLARITZAREN BILAKAERA

Bertsozaleen kezka nagusia honakoa izaten da: osasuntsu al dago bertsolaritza? Alde batetik baietz erantzun duzue, baina euskal kulturaren barnean dagoen neurrian, badira kezkatzeko motiboak.

Bai, alde batetik argi dago osasuntsu dagoela, eta datuek hala erakusten dute: daukan arrakasta ikusita, daukan presentzia, oihartzuna, dituen ekitaldiak, dagoen bertsolari kopurua, barruan

DURANGOKO UDALA BERTSOLARITZA HAUSPOTZEN

www.durango.eus

www.durango-euskaraz.eus



dagoen bilakaera, aberastasuna, dagoen umotze eta dekantazio prozesua... horiek guztiek adierazten dute osasuntsu dagoela.

Baina beste aldetik egia da egon litekeela arriskuan, sistema kultural orokor batetik begiratuta. Bertsolaritza bera oso sendo egon liteke, baina gainontzeko esparruak ez.

Bestalde, euskal kultura osoa egon liteke, arriskuan baino, nik esango nuke uneka ahulago. Seguruenera, ez dago hainbat adierazpenetarako oinarri nahikorik. Eta oinarririk ez badago zenbait adierazpenetarako, sistema guztirako ere ez dago. Hor agertzen dira datu batzuk: euskalgintzan zenbat jende dabilen, zenbatek irakurtzen duen euskal literatura... Badaude zenbait datu kezkatzeokoak, baina esango nuke horrek ez duela modu nabarmenean atzera egingo. Egia da gure espektatibak handiagoak zirela eta espektatiba horiek ez direla betetzen ari. Baina uste dut sistemak aurrera egingo duela eta, oro har, osasuntsuago dagoela ahulago baino.

Bertsolari kopurua hirukoiztu egin da azken hogeita bost urtean (1990-2015). Saio kopuruari dagokionez, laukoiztu egin da (ez dira 90eko hamarkadakoak bezain saio jendetsuak). Zer irakurketa egin genezake eta zer ondorio ekar ditzake horrek?

Ikerketan hitz egin dugu polifoniaz, fragmentazioaz... Galdera da zenbateraino egon gintezkeen hiru abiadurako logika batean. Bertsolari kopurua hirukoiztu egin bada, beharbada egon gintezke publiko partzializatuen aurrean, eta publiko bakoitza bere saio-etara joango da. Alde batetik hori ona izan daiteke, baina, bestalde, zenbat jende dago bestelako esparruetan ere kultura produktu esperimentalak ikustera joaten dena?

Posible da bertsolari guztiek kantatzea? Seguruenera ez. Horrek sor ditzake barruan arazoak? Seguruenera bai. Baina hor bi dinamika daude: batetik espektakularizazioa eta, bestetik, frag-

“Kezkatu egiten nau gaur egun adin batetik aurrera jendea erretiratzeko ikusteak: gero eta ordezkatze prozesu azkarragoak daude”.



mentazioa. Nik uste dut bi horiek abiadura ezberdinetan joango direla. Pentsa dezakegu espektakularizazioaren bidez prozesua handituz eta sendotuz doala, eta, era berean, izan daiteke ahulezia adierazten duen prozesu bat. Nik uste dut denentzako lekurik ez dagoela, eta iruditzen zait piramidearen goialdera joko dugula. Baina, aldi berean, ikusten da goiko alde horretan gero eta polarizazio handiagoa dagoela, eta bertsolari batzuk entzule gehientzat ezagunak izan arren, beste batzuk bere publikoarentzat izango direla ezagunak. Fragmentazioak espezializazioa ekarriko du, eta publiko jakin bat mugituko du espezialitate bakoitzak,

eta beste zirkuitu bat egongo da ezagunagoa izango dena, estandaragoa, espektakularizazioaren bidetik joko duena. Egongo dira batzuk arlo batetik bestera saltoka ibiliko direnak, nolabait esateko, bi autobusetan ibiliko direnak. Zirkuitu estandar hori, batetik ahulagoa izango da, baina, bestalde, indartze prozesuan lagunduko du. Uste dut prozesu oso dilematikoak egon litezkeela eta erabaki zailak eskatuko dituztenak. Baina, era berean, kontsumo gizarte batean gaude, eta horrelako gizarte batean gero eta produktu gehiago daude erabili eta botatzekoak: kleenex kultura da hori. Horrelako sistemek ere eragingo dute gure aukeretan eta gure produktuetan. Ezin duguna pentsatu da hautu orokor baten izenean sistema osoa mantenduko dugunik. Egingo ditugun hautuek beharbada jende bat erre eta beste bat mantendu egingo dute, eta horrek kezkatu egiten nau. Kezkatu egiten nau gaur egun adin batetik aurrera jendea erretiratzen ikusteak: batzuk ez dira txapelketatik bakarrik erretiratzen, errealitateak eta publikoak erretiratzen ditu sistematik. Eta gero eta ordezkatzeko prozesu azkarragoak daudela ikusten dut.

Hori abangoardiaren logika da. Abangardia batek beti izan behar du nolabaiteko distantzia bat bere erreferentziazko ‘masarekiko’. Beti egon behar du aurretik, baina, aldi berean, uztartu egin behar zaio jarraitzen dion jendeari. Agian sartu gara abangoardiaren abangoardiaren abangoardian, eta egin duguna da prozesuak azkartu, prozesuak gero eta laburragoak izan daitezzen bultzatu, eta jarraituko duen aski jende ez izatea ekar dezake horrek. Horregatik, masa kritikoa oso garrantzitsua da.

Gure zoritxarra, oro har, euskal kulturaren da gauza guztietatik ale bat baino ez daukagula: egunkari bat daukagu, aldizkari bat... Gehienetan produktu bakarra daukagu, ezin dugulako sare zabal bat izan, produktu berezituak... Agian, hori bertsolaritzan baino ezin da eman. Baina aldi berean prozesuak azkartuz eta jendea, halako indar zentrifugo batekin, sistematik botaz. Eta hori arriskutsua izan daiteke, bai barruan dagoen jendea erre daitekeelako,

“Bertsolaritzak, mugimendu gisa, bi gauza lortu ditu: iraupena –oso garrantzitsua– eta eraberritzea. Kateaketa apartekoa izan da gizartearen eta mugimenduaren artekoa”.

bai zenbait prozesu heldutasun puntu hori lortu gabe amaitu daitezkeelako.

Bertsolarien transmisioan ere garrantzitsuak izan dira belaunaldien arteko harremanak, eta gerta liteke belaunaldiek prozesua gero eta arinago amaitzea, eta behar zuten heldze prozesua ez egitea, erreflexio denborak txikitu egiten direlako. Eta, beharbada, hainbat etapa amaitu daitezke ondorioz atera gabe: hori ere arriskutsua izan daiteke.

BERTSOLARITZAREN GIZARTE MUGIMENDUA

Asko azpimarratu duzue bertsolaritzaren gizarte mugimendua dela bertsolaritzaren ezaugarri bereizgarriena. Mugimendu hori sare moduan osatuta dago eta nahiko autonomia dela esan duzue.

Autonomo izateak, bere autonomia eta indar propioa garatu ahal izateak, indar handia eman dio. Beharbada, kulturako beste arlo





“Gakoa da zenbat iraungo duen mugimenduak ahalik eta jende gehien tropelean eramanez. Hori izan daiteke etorkizuneko arazo handiena”. / “Gizarte euskalduna une honetan edozein berrikuntza interpretatu, bere egin, dastatu eta jarraitzeko prest dago”.

batzuek laguntza handiagoa behar dute. Bertsolaritzak, mugimendu gisa, bi gauza lortu ditu: iraupena oso garrantzitsua eta eraberritzea. Bi elementu horiek bere indar propioz garatu ahal izan ditu. Garatu ahal izan ditu eduki duelako gizarte bat ulertu duena mugimendu horrek zer nahi zuen. Gizarteak ulertu eta bultzatu egin du prozesu hori. Zentzu horretan kateaketa apartekoa izan da gizartearen eta mugimenduaren artekoa.

Autonomo izateak baimentzen diona da gaur ere autonomia hori izatea. Eta hori da muinean edozein gizarte mugimenduk hasieratik nahi duena, amesten duena: bere indar propioz garatzea.

Kontua da pelotoia zenbat taldetan zatikatu daitekeen. Egon daiteke talde bultzatzaile bat, egon daitezke beste azpitalde batzuk bide propioak hartzen dituztenak. Beti galduko da jendea tropeletik. Hori da gakoa: zenbat iraungo duen mugimenduak ahalik eta jende gehien tropelean eramanez. Hori izan daiteke etorkizuneko arazo handiena.

Betidaniko kezka izan da Bertsozale Elkartearentzat mugimenduaren transmisioa bera. Nola erakarri proiektura belaunaldi berriak?

Epe laburrean baino, nire kezka epe luzera begirakoa da. Ez bertsolaritzagatik. Baina bertsolaritza txertatzen badut gaur egungo gizarteko prozesu dominanteetan, hor ikusten ditut iluntasun handiagoak.

Bertsolaritzan badago transmisio natural bat, agian, inplizitua dena. Eta beharbada hemen eskatzen ari dena da esplizitua izan dadila. Nik uste dut ez duela beharbada hain esplizitua izan behar. Inplizitua izateak edozein sozializaziotan gauza bat suposatzen du: inplizitua dena da mantentzen dena, inplizitua dena da ohikoa dena... Jakina, ikusi egin behar da gero zer transmititzen dizuten. Transmititzen badizute genero sistema bat non emakumeak beti galdu egiten duen, ba, “honaino iritsi gara” esango duzu.

Mugimenduan bertan baino arazo handiagoak ikusten ditut nik sortzaileengan. Sortzaileengan gerta daiteke fede galtze edo sekularizazio prozesu bat. Bertso gintzarekiko sekularizazio prozesua bizitzea. Horrek kezka handiagoa sortzen dit.

Bertsolaritzaren gizarte mugimenduan framingean (markoen eta ikuspegiaren eraikuntzan) egin den lanak sekulako garrantzia izan duela diozue. Gaur egun framing sendoa al du bertsolaritzak?

Fringa da jendeak begira dezala zuk jartzen duzun leihotik. Nik uste dut orain sartuko garela ugalkortasun batean, eta azpiframing desberdinak sortuko direla. Kontua da azpiframing ezberdin horiek framing orokor batean sartzea. Lehen aipatu ditugun segmentazioa eta fragmentazioa agertuko dira, eta kontua da Elkartetik framing berbera helaraziko den.

Gizarte euskalduna une honetan edozein berrikuntza interpretatu, bere egin, dastatu eta jarraitzeko prest dago. Nik uste dut bertsolaritzaren arrakastaren zati handi bat horretan datzala. Gauza bera gertatzen da literaturan, gertatzen dena da eskatzen duela hainbat ordu liburu baten gainean egotea.

Azpileiho horiek guztiek legitimitate berekoak izan behar dute, eta denek egon behar dute erakundetik legitimatuta. Hor dago kontua: leiho asko eskaintzea, leiho horiek baliagarriak izan daitezela eta, behintzat, sektore batentzako erabakigarriak izan daitezela, edo izan daitezela bere framing dominantea. Kontua izango da framing guztiak errelato berebanean uztartzea. Hori lortzen bada ez dago arazorik.

Hauxe diozue azterketan: “Gizarte mugimenduak inoiz ez dira berdin mantentzen. Arruntena da sortzea, bizitzea eta desagertzea. Baina gizarte mugimendu batzuk gai izaten dira beren burua berriro asmatzeko, eta horri esker belaunaldi bat

“Generoak nolabait hautsi egiten du existitzen den guztia baina ez bertsolaritzan bakarrik, edozein arlotan”. / “Ezker abertzale ideologikoari eta soziologikoari dagokie burgesia kultural nazionalaren lana egitea”.

**gehiago bizitzeko aukera irabazten dute.
Bertsolaritzaren gizarte mugimenduak ere une hori
bizi du oraintxe”.**

Bere garaian modernotasuna klabea izan zen bezala, modernotasunen baitako dibertsitatea dator orain. Eta dibertsitate erabakigarria dago tartean, generoarekin lotuta dagoena. Azken finean, generoak, nolabait, hautsi egiten du existitzen den guztia, baina ez bertsolaritzan bakarrik, edozein arlotan. Badakigu zein den errezeta, errezeta hori esplizitatzea erraza delako. Badakigu orain arte gizarte mugimendu gisa funtzionatu duela, gizarte mugimendu horrek eraberritu egin duela, merkatu ezberdinei erantzun bat ematen jakin izan duela, jakin duela, hein berean, kontsumoak zatikatu egiten duela, eta hainbat produktu eskaini dira bertsozale tipologiaren arabera.

Hemen garrantzitsua da euskararen inguruko ezker abertzaleak (eta berarengan jartzen dut fokoa) bultzatzailea izaten jarraituko duen honetan guztian, eta, era berean, ez den zorabiatuko proiektu politikoan bakarrik, eta atentzioa jarriko duen berriro



EUSKAL HERRIA
esnea

Behien tulun-tuluna
bailaraz bailara
baserrien arnasa
lurraren taupada.

Geure onena heldu da
saltokietara
Euskal Herria Esnea
bertatik bertara

BEZEROEN ARRETA:
Soskaño auzoa z/g
Karrantza Harana
(Euskal Herria)
Tel. 618 829 964
arreta@
euskalherriaesnea.com

Dastatu betiko esnearen zaporea

proiektu kulturallean. Hogei urte luze daramatzat esaten ezker abertzale ideologikoari eta soziologikoari dagokiela burgesia kultural nazionalaren lana egitea. Eta beraiei dagokie. Eusko Alderdi Jeltzaleak ez dauka pultsu kulturalik, sekula ez du izan. Hemen bultzada beti etorri da ezker abertzaletik, euskara batuaren bultzatzaileengandik... Historiako paradoxa da ezkertiarra izan eta burgesia kultural nazionala izatearena, baina horrela da. Berak inposatu behar ditu gustu dominanteak.

Bestalde, eta etorkizunari dagokionez, guri falta zaiguna da sinestea. Amaitu da euskararen defentsan aritzeko aroa, euskararen prozesu guztia garatzeko euskara bera erabiltzearena esanez, “es ke euskara...”. Nik uste dut hiztunaren garaia dela. Kontua da hiztunetatik abiatuta nola lortu mugimendu kolektibo bat. Zaila da, baina prozesu berbera dago gure gizartean puri-purian. Posible da indibiduo bakunetatik abiatuta prozesu kolektiboak garatzea, moral kolektiboak sortzea? Hemen gauza bera gertatzen da. Hiztunetatik, hiztunen gustuetatik, hiztunek esaten dutenetik abiatuta, posible dugu hori dena uztartzea mugimendu kolektibo batean? Alde batetik *influencer*-ak edo erreferentziatzko pertsonak izan gaitezke, hiztun mordoa dago izugarritzko kapital kulturala daukana, kapital intelektuala, kapital politikoa, kapital soziala... Horrek guztiak hemen izan behar luke isla. Hori lortuko dugu? Gero eta zailagoa da, aitor dezagun. Ea mugimenduak eskaintzen duen gizarteak behar duen tokitik, eta ea gizarteak onartzen duen eskaintzen zaiona.

Beraz, errazagoa da esatea berrasmatu egin behar dela, zertan berrasmatu behar den esatea baino.

TRANSMISIOAREN TESTUINGURU SOZIALA

Non eta nola sozializatzen da bertsozaleasuna gaur egun? Bertso eskolak dira gune nagusi, baina gero eta

“Amaitu da euskararen defentsan aritzeko aroa. Hiztunen garaia da. Kontua da hiztunetatik abiatuta nola lortu mugimendu kolektibo bat”.





jende gehiago dago helduaroan bertsozaletu dena...

Zaletasunerako bide berriak daude gaur egun. Bertsolaritzan ohiko guneetatik harago, adin helduan jende berria bertsozaletzea egin duena da eskaini zaiona askoz konplexuagoa izan dela. Eta garaiari lotuta dagoen produktu bat eskaini zaiola, batez ere kalitatezko edukiarekin. Aurreiritziek bertsolaritza mundu antigoaleko eta klasikoarekin lotzen dute, baina egia oso bestelakoa da. Eta bertsolariak ez zarete konturatzen zuek errealitate modernoa arnasteko modua denik gero helarazten duzuen, eta bizitzako eguneroko kezken inguruan kantatzea zenbateraino den modernoa. Ez zarete kontziente zenbatean den berria eta zenbatean den eraberritua bertsolaritza. Jendeak egunerokoaz di-tuen gogoeta berberen inguruan kantatzeak engantxatu egiten du.

Igaro gara garai batean egon zen politikazentrisimo batetik soziozentrismo batera. Gai sozialek izugarritzko garrantzia dute. Eta gai sozialak zer dira? Egunero pertsona batzuek, tipologia batekoek eta seguruena elite batekoek bizi duten egunerokotasuna. Eta, orduan, jende horri oso erraza zaio engantxatzea, horretaz hitz egiten baitaia.

Gainera, era berean, nolabait landu da oholtza gainean dagoena eta oholtzaren aurrean dagoena. Hor badago interakzio historiko bat. Eta interakzio horretan, gainera, euskaldungoa da, nolabait, herri honetan elite intelektuala. Eta, askotan, hori ez da ikusten eta, askotan, mespretxatu egiten da, suposatzen baita gutxiengo baten kulturak automatikoki izan behar duela nostalgia inplizitu

bat edo melankolia inplizitu bat, eta, beraz, ezin du hitz egin gauza inportanteez. Gezurra. Kontrakoa frogatzen da egunero. Beraz, gaurko nobelagileek idazten dutena, bertsolariek kantatzen dutena... gai hiper-aktualak dira, eta engantxatzeko bideak egon dira egon delako, inplizituki, eskaintza berezitu eta modernoak. Nik, esaterako, entzuten dut nola hasten diren agurrak, eta nola garatzen diren, eta ondo dago, baina askoz gehiago interesatzen zait tartean gertatzen dena. Agurretan ateratzen dira gai politikoak, presoenganako elkartasuna... baina gero dago tartean dagoena. Eta hor modernotasuna, aktualitatea, gaien sakonera... arnasten duzue.



Txapelketek egiten duten ekarpenari balio handia ematen dio azterketak. Eta bestelako formaturen bat probatuko balitz, ekarpen horiek guztiak kontuan hartuta egitea gomendatzen du. Txapelketek, ordea, badituzte kritikariak: txapelketak bertsolari guztien kantaerak berdindu eta fragmentazio edo espezializazioaren kontrako bidea bultzatzen duela esaten dutenak...

Euskal Herrian, euskararen inguruko munduari ideologikoki tokatu zaion uneagatik eta bakoitzari tokatu zaigu tokatu zaiguna.

“Adin helduan jende berria bertsozaletzea egin duena da eskaini zaiona askoz konplexuagoa izan dela”. / “Euskaldungoa da nolabait herri honetan elite intelektuala, nahiz eta askotan mesprezatu egiten den”.

Marxek esaten zuen: “Gizakiak historia egiten du, baina ez berak aukeratutako baldintzetan. Baldintzak emanak etortzen zaizkio”, tira, tokatu zaigun uneagatik, jarrera antiinstituzionalista oso potentea da, oso kaltegarria dena erakunde sendoak antolatzeke.

Askotan, instituzioa instituzionalizatu egin behar da, edozein giza-arlo instituzionalizatzen den moduan maitasunetik hasita ekimen politikoetaraino. Instituzionalizazioak suposatzen du gehienetan hil egiten dela hasieran zegoen bulkada zati bat, horri ez zaiolako erreparatzen, eta beste bat errutinizatu egiten dela. Baina horiek prozesu normalak dira. Eta horren kontra borrokatzen da gaur egungo gizarte modernoa etengabe, gauzak berrasmaturik eta berrasmaturik, pentsaturik egunero egon behar duela berrikuntza. Hori, alde batetik, horrela da, baina behar dugu, era berean, instituzioek izan dezatela iraupen bat. Ze, iraupen bat ez badute ez dago astirik gogoetarako, prozesuak amaitzeko. Gertatzen dena da honetan guztian gaudela gauza batekin eta bestearekin. Gaur ez daukagu “hau ala bestea”, gaur daukagu “hau eta bestea eta bestea”.




Txapelketei dagokienez, nik ez dut bertsoegintzaren sakoneko ezagutzarik, baina esango nuke bertsozaleekiko harremanerako oso garrantzitsuak direla.

PUBLIKOAK ETA KANONAK

Zein da egungo bertsoegintzaren definizio soziala?

Bertsoegintzak zerbait adierazten badu da euskal gizarte euskaldunaren eboluzio arrakastatsua. Hori dela inportanteena uste dut. Adierazi egiten du, islatu. Neurri batean, bideratu egiten du. Eta, beharbada, zeharka aitortzen ari gara, bertsoegintzaren bidez, garapen hori; gero, maila diskurtsiboan agian egiten ez duguna, eta bakarrik ikusten ditugu alde negatiboak edo oraindik egitear daudenak.





Egongo da esan duzuna gehitxo esatea dela esango dizunik...

Gerta liteke zu ez izatea bertsozalea. Baina horrek ez du esan nahi ezin duzunik onartu momentu batean ildo nagusi batzuk daudela eta ildo lagungarriak, paraleloak, periferikoak... daudela. Eta nik uste dut bertsolaritzak adierazten duela hori beste edozein adierazpidek baino hobeto. Zein beste arlotan daukazu Lujanbio bat? Igual mundu unibertsitarioan egongo da, ikerleen arloan, baina mundu horiek ez dute bertsolaritzak daukan oihartzuna.

Publikoaren ezaugarriek asko baldintzatzen dute bertsozaintza. Baina bertsolariaren eta bertsozaintza jakin baten legitimotasuna eta prestigioa irabazi eta galdu egiten direla diozue. Ez dela soilik kalitate kontua, eredu kontua ere badela. Kanona. Nola eraikitzen da kanon bat?

Uste dugun baino modu hautemanezinagoan, uste dugun baino modu luzeagoan. Eta pentsatu arren egun batean sortzen direla eta norbaitek inposatua dela kanon bat... uste dut kanona dela prozesu oso landu bat, denborarekin datorrena, proba asko izan duena, gauza batzuetan asmatu duena, beste batzuekin ez. Eta horren guztiaren ondoriozko emaitza da sortzen dela eredu bat.

Amurizak egin zuen iraultza, Egañak iraultzaren iraultza, Lujanbioarena, seguruena nahiz ez dagoen beti aitortuta, iraultzaren iraultzaren iraultza izango da, eta, gainera, sakonera handiagokoa. Baina kanonak nik uste dut posible direla momentu batean gizarteak onartzen dituelako. Egon liteke jenio bat mundu oso bat eraberritzen duena. Egon liteke gizarte bat behartzen duena eraberritze horretara. Nik uste, bi gauzak ematen direla. Hau da, Picassok zergatik eraberritzen du jenio baten moduan? Ba, ordurako beste askok antzeko saiakerak egin zituztelako. Era berean, aurreko arte forma guztiak berak ezagutzen eta kontrolatzen zituelako. Esaten dute estilo guztietan zekiela margotzen.

“Instituzioek iraupen bat izan dezaten behar dugu. Iraupen nahikoa ez badute, ez dago astirik gogoetarako, prozesuak amaitzeko”.

Beharbada, hori erakutsi duzunean, erraza da apurtzea eta beste zerbait eskaintzea. Kanona oso eredu landua da, oso prozesu luzekoa, eta, halako batean, onartua geratzen da. Hau da, abangoardia batek ez badauka bere masarekiko loturarik, abangoardia horrek ez du arrakastarik izango. Egon behar du egoera bat neurri batean garatua. Baina, gero, egon behar du azkartze bat. Azkartze hori kanona da, baina prozesu interaktibo bat, prozesu interaktibo artistiko-soziala. Beharbada, orain sortzen egongo da kanon bat, oraindik ikusten ez duguna.

Kanonak desdefinitu eta kalitate irizpideak izatea bateragarria dela diozue.

Lehen esan dudan bezala, egon daiteke leiho orokor bat eta, gero, azpileihoak. Nik uste dut seguruenik kanon ugaritara joango gara. Edo, gutxienez, bi edo hiru kanonetara joango gara. Fragmentazioa edo polifoniaren kontua hor aurrean daukagu, praktikatzen ari gara. Baina kanon indartsu baten presentzia, beste kanon bat edo beste egotea ahalbidetuko duena, uste baino garrantzitsuagoa izango da. Kanon ugari egotea eta denak indar eskasekoak, hori ere ez da ona. Hor oreka bat egon behar da, baina oreka hori lor daiteke? Ez dakit. Oreka hori erraza izango da? Ez, zeren eta kanon ezberdinak sortzen ba-



Baztanen ere geurea dena babestuz

AISIALDIA, ARKITEKTURA
GASTRONOMIA, NATURA
EUSKARA JATOR, JENDE ALAIA
KIROLA TA ABENTURA
BAZTAN AIPATU ETA MILA HITZ
NAHIZ TA ETORRI BURURA
GEURE BEGIEK HITZAK JARTZEKO
GARAIA ORAIN HELDU DA.



948 580 006 www.baztan.eus

BAZTANGO UDALA



dira, barne borroka baten ondorio ere badira. Izan ere, errealtatea sekula ez dago geldi. Plano diskurtsiboa ere ez: zuk irabazten ez duzuna beste norbaitek irabazten du, zuk amore ematen duzun tokian beste batek irabazpen bat atera du. Eta, orduan, hor etengabeko borroka dago. Borroka sinboliko inplizitua barruan.

Bestalde, kanona daukanarekiko errespetua oso garrantzitsua da. Zu egon zaitezke sektore batetik kanon hori desegitearen alde. Baina, era berean, zuk errespetu, beldur puntu bat badiozu, horrek adierazten du oso indartsua dela, badaukazula zeren kontra borrokatu eta, gainera, erreferentzia potente bat daukazula. Hori liluragarria da.

SABAIA

Genero ezberdinkeriaren arazoaren izaera soziala azpimarratu duzue.

Fenomeno hauek denak sozialak dira. Sozialki sortu da, sozialki garatuko da eta sozialki aldatuko da. Hor ikusten da nolako alde dagoen jauzi kualitatibo eta kuantitatiboen artean. Alde batetik iraultza bat emana dago. Iraultza hori batzuek mugatutzat ikusiko dute, eta beste batzuek pentsatuko dute tartean muturra sartzea

“Bertsolaritzak zerbait adierazten badu da euskal gizarte euskaldunaren eboluzio arrakastatsua”. / “Kanona prozesu oso landua da, denborarekin datorrena”.

izan dela. Iraultzaren zati bat emana dago: generoa sartu da, generoak eraberritu du edukia, eta eraberritu du bertsolaritza osoa. Izan ere, bertsolaritza soziozentrismora eramán dutenak esango nuke emakumeak izan direla. Emakumeak oholtzan, emakumeak gaiak proposatzerakoan, emakumeak entzule... emakumeen presentzia gogoeta orokorrean.

Deigarria da azterketan ematen den datu hau: publikoko emakumezkoen gustua azken urteetan aldatu egin da, gizonezkoena ez.

Bai, hor badaude hainbat zulo beltz, eta asko kostatuko da barrutik ere aldatzea, baina uste dut publikoak momentu batean oso erraz ulertuko lukeela finalean hiru-lau emakume egotea, eta onartuko duela. Kontua da zenbat urte beharko diren lehen parte hartze hartatik parte hartze kualitati- boak lortzera igarotzeko. Esaterako, %20-25eko presentzia badu, %35era pasatzea, behar bada, izugarri kostako da. Hori gertatzen da, oro har, gizarte osoan eta esparru askotan. Eta, gainera, badaude prozesu batzuk, isilak, non alde batetik inkorporazio progresiborako bide batzuk zabaldua dauden, baina beste kontrabide diskurtsibo eta praktikoak ere badauden. Gai horretan borroka sinboliko bortitza dago.



txintxilin@gmail.com

MERTZERIA
José Zorrilla, 16
94 655 61 02

EUSKAL JANTZIAK
José Zorrilla, 2
94 437 17 20

48902 BARAKALDO

Beraz, dauden inkoherentzia eta ezberdintasunak gainditzeko askotan hautemanezinak direnak lanean jarraitu behar da. Zeren izan, mingarria izango da. Mingarria izango da modu intentsoan ezberdinkerien aurkako borrokan aktiboki parte hartzen ari direnentzat edo modu lasaiagoan etsiago, jarrera ez hain aktiboarekin daudenentzat. Baina aldaketak gertatuko dira, gertaraziko dituzue. Kontua da zenbat potentzial galtzen den nerabegarotik helduarora igarotzean.

SORTZAILEEN LAN-BALDINTZAK

Kulturarik ez dago sortzailerik gabe. Baina sortzaileen lan egoera oso prekariora da egun. Arlo eta herrialde askotan dago kezka hori, eta gurean ere egoera ez da oso ona. Eta sortzailerik gabe ez dago kulturarik. Zer egin liteke egoera hobetu eta sortzaileek lan baldintza duin eta egonkorrak izan ditzaten?

Horretan, uste dut Frantziatik ikasi behar dugula, oro har. Eta Frantzian gai horretan duten harrotasun/harrokeriatik. Sortzaileen egoera bultzada instituzional sendo batekin konpondu behar da. Amuriza batek esan dezake berak ez duela nahi soldata sozial bat edo domina bat, berdin dit. Baina nik uste dut herri batek ezin duela eduki Amuriza bat aitortzarik gabe. Eta herri batek esaten dudanean da instituzio batzuek. Jende batek egin duen lana aitortzarik gabe amaituko da: Txillardegia omenaldi nazionalik gabe joan zen. Uka diezadala berak, esan diezadala ez dela ekimenera joango, baina nik antolatu egin behar dut.

Maila horretan, uste dut euskal kulturako arlo batzuk objektibatu egin behar direla, eta horiek babes instituzionala behar dutela. Zeren, ez daukagu masa kritikorik. Espainian aktoreen %5 bizi bada antzerkitik, hortik kontu batzuk atera behar ditugu.

“Generoaren gaian bide batzuk zabaldu daude baina beste kontrabide diskurtsibo eta praktiko batzuk ere badaude. Gai honetan borroka sinboliko bortitza dago”.



Haurrentzako, esaterako, produkzio gutxi dago, eta nerabeentzako ia batere ez... Sortzaileari lan baldintza zainduak eman behar zaizkio. Hor egon behar du RGI kultural batek. Onartezina dena da Euskal Gobernua gai honetan gero eta aurrekontu murriztagoekin aritzea. Hor seriozki hitz egin beharko lukete euskal kulturarekiko interesa duten partidu politikoek, nahiz eta batzuen kasuan, partidu horretatik hurbil kultura sortzaile gutxi egon. Programa instituzional sendo, iraunkor eta epe luzera begirako bat behar da, oso-oso prekariora baita sortzaileen egoera.

Kulturak lehentasun nazionala izan behar luke. Baita krisirik ez dagoen garaian ere. Zeren, gu beti egongo gara fase kritikoan. Zeren, herri ez normal batek dauka historia ez normal bat, kultura ez normal bat, gizaki ez normalak... Eta politikak bereziki adierazi behar du errespetua adierazpen kulturalekiko, baita kulturatik kritikak jasotzen dituzten alderdi politikoek ere. Kultura oso adierazpen garrantzitsua da. •

SORM

ENNA

UNIBERTSOLARITZAN

ZIENTZIA ETA BERTSOLARITZAREN ARTEKO TALKA ETA LAZTANAK

TESTUA: ALAIN ULAZIA

ARGAZKIAK: IÑIGO SIERRA ETA ION MARKEL





Dirac: “Oppenheimer, esan didate poesia idazten ari zarela. Ezin dut ulertu nolatan gizon batek aldi berean fisikaren mugaldeen lan egin eta poesia idatzi dezakeen. Aurkakoak dira”.



OPPENHEIMER FISIKARIAK GAUZA ASKO EGIN ZITUEN BERE BIZITZAN, AGIAN GEHIEGI: sanskritoz irakurtzen ikasi, Estatu Batuetako alderdi komunistan sartu-irten batzuk ‘gorrien sorgin-ehiza’ zeritzonaren garaian, zulo beltzei buruz eta unibertsoaz teorizatu, bonba atomiko txiki bat egin (lehenengoa) eta desertu batean probatu eta abar luze bat. Fisika kuantikoaren oinarriak ezartzen ari zen Dirac haren kideak hala galdetu zion poesia ere idazten zuela enteratu zenean: “Oppenheimer, esan didate poesia idazten ari zarela. Ezin dut ulertu nolatan gizon batek aldi berean fisikaren mugaldeen lan egin eta poesia idatzi dezakeen. Aurkakoak dira. Zientzian, aurretik inork ez zekien zerbait esan nahi duzu, edozeinek uler ditzakeen hitzekin. Poesian, edozeinek dakien zerbait esan beharra duzu, inork ulertzen ez dituen hitzekin”.

Diracentzat fisikaria uni-bertso-laria da, unibertsoan gauza berriak topatu eta esplikatuz nahi dituen neurrian, eta unibertsoan legeen neurria kantatzen du matematikaren bidez, lege horien batasun baten bila, lege nagusi eta bakarraren bila, bertatik guztia eratoritzeko eta azaltzeko. Aldiz, bertsolari poeta, multi-bertso-laria litzateke, bizitzako gauza jakinak modu anitzetan esaten eta kontestuaren arabera formula berriekin adierazten dituen.

Edota Oteizaren iruditerian bertsolaria atzeraka itsasoan sartzen den eta cromlech hutsetik zeru zenitarekin (ortzimugarekiko 90°ra) konektatzen duen hodi-izakia baldin bada, hots, garraio-bide izpirituala, zientzialaria itsaspetik gureganantz bueltaka datorren masa dentso eta borobila litzateke, hots, geroz eta handiagoa bihurtzen den goroldio-alga meta beltz bat, lurreratzean su hartzen eta sua ematen duena. *Jakinduriek Mundua Erreko Dau* izendatu zuten (JMED aurrerantzean), ez kasualitatez hain apokaliptiko, zientzia eta bertsolaritza uztartu nahi dituen saioen bilduma. Bertsolaria eta zientzialaria kontrajarrita ikus daitezke horrela, sortzailea suntsitzailearekin aurrez aurre ipinita edo.

“Zientzian, aurretik inork ez zekien zerbait esan nahi duzu, edozeinek uler ditzakeen hitzekin. Poesian, edozeinek dakien zerbait esan beharra duzu, inork ulertzen ez dituen hitzekin”.



Bere ikerketa-taldeak sortutako lehen bonba atomikoa Los Alamosko desertuan lehertzen ikustean liburu sakratu hindu bateko bertsoa aipatu zuen Oppenheimerrek:

Orain herio bilakatu naiz
Munduen suntsitzaile.

Poeta/zientzialari = Sortzaile/suntsitzaile ekuazioa asintota urrunetara eramandako sinplifikazioa da, bai, baina gizartean zein irizpidetan mugitzen ari den ulertzeko egokia izan daitekeena. Hala ere, zatibanaketa bitar horren tartean aurkitzen da maiz aipatzen ez den zubi bat: sormenarena. Hain ezberdinak al dira bertsolariaren eta zientzialariaren sormen prozesuak?

Horretaz galde egin diogunean, Kepa Korta EHUko hizkuntzaren filosofiako irakasleari ez zaio gustatu Diracek Oppenheimerri esan ziona, poesia eta zientziaren arteko oposizio hori. Argipen

Poeta/zientzialari = Sortzaile/suntsitzaile ekuazioa asintota urrunetara eramandako sinplifikazioa da, bai, baina gizartean zein irizpidetan mugitzen ari den ulertzeko egokia izan daitekeena.

kontzeptual hau egiten du: “Ez dut uste harridurarako arrazoi gehiago dagoenik zientzialari poesiazale baten aurrean edo poeta zientziazale baten aurrean”. Batasun argia seinalatzen du Kortak giza jarduera gisa: “Zientzia —zientziak, pluralean hobe— eta arteak giza ekin-tzak dira, giza jarduerak eta, hala izanda, batzuek zein besteek daukate tokia sor-kuntzarako eta aurkikuntzarako, tradi-zioari jarraitzeko eta tradizioarekin hausteko, arrazoiarentzako eta emozio-arentzako, edertasunerako eta egia-rako”. Askotan galdetu ohi da: “Zer nahiago duzu, itsasoa ala mendia?”. Eta tentazioa izan dezake batek erantzuteko: “Igeri egiteko, itsasoa; oinez ibiltzeko, mendia”, Lazkao Txikik egingo zukeen moduan. Erantzuna egiazkoa litzateke, eta zintzoa, baina hutsala, Kortak nabarmendu duenez, batzuetan ikusi nahi ez diren gauza ebidenteak ma-haigaineratuz, eta poesia eta zientziaren arteko oposizio artifiziaia deseraikiz.

JMED saioetan gai-jartzaile ibili den Kike Amonarrizek ere antzekotasun handiak topatu ditu bai batzuen eta bai besteen mintzaldietan. Hala baieztatzen du Amonarrizek komunikazioan erreparatuta: “Bai zientzialariak eta bai bertsolariak publikoarengana zuzentzen dira saiootan, eta publikoari komuni-katu nahi diote zerbait. Zutik denek, eta



publikoari begira. Esan beharrekoa aldeaz aurretik prestatuta ekarri ohi dute zientzialariek. Bertsolariek, noski, bat-batean kantatzen dute, baina biek ala biek buruari eragin behar diote publikoarengan emozioak nola sorrarazi



asmatzeko. Ideiak ordenatu, hurrenkera bat eman, ‘kolpeak’ dosifikatu... Komunikazioari dagozkion oinarritzko lege komun asko aurki daitezke “bakarrizketa zientifikoen eta bertsolaritzaren artean”. Gaiak aukeratzeaz gain, gai horiek nola jorratu, nola azaldu ahoz landu dute saio hauetan zientzialariek, zenbaitetan umorea, elipsiak edo esaldi deigarriak erabiliz. “Ez dabilta, beraz, bertsolaritzatik horren urrun”, Amonarrizen ustez.

Komunikaziorako baliabide poetikoen erabilera iradokitzen da hemen. Baina sorkuntzan bertan ere hala izan daiteke, hau da, problema zientifikoarentzat edo bertsotarako gaiarentzat aterabide bat asmatzerakoan. Uxune Martinezentzat (JMED saioen koordinatzailea eta EHUko Zabalkunde Zientifikorako Arduraduna), bertsolariak gai-jartzaileak irudikatutako testuinguru berri bati erantzun behar dio eta forma propioa eman. Horretarako, hainbat galderari erantzun behar die. Errima, doinua eta neurria jartzen diote gai bati, istorio bat josten dute, ulergarria den azalpen koherente bat landuz. Bestalde, zientzia ere sormenean datza, Martinezen ustez. “Zientzialaria erantzun bila dabil haren zereginen, inguratzen gaituen errealitateak dituen inkognitak azaltzeko asmoz eta horien gakoak aurkitu nahian”. Eta bidearen bukaeran “errealitate berri bat sortzen dute”.

Biek gaia, arazoa edo inkognita azalduko duen eredu bat eraiki behar dute, beraz. Baina hori sortzeko helduleku edo gako bat behar da, baliabide bat, ‘gauzak bere esentziaren arabera begira-

Kike Amonarriz: “Esan beharrekoa aldeaz aurretik prestatuta ekarri ohi dute zientzialariek. Bertsolariek, noski, bat-batean kantatzen dute, baina biek ala biek buruari eragin behar diote publikoarengan emozioak nola sorrarazi asmatzeko”.



tzea', Anibal Lecterrek Marco Aureliori zita eginez barrote atzetik esan zuenez.

Sagarrondoaren itzalpean lasai zegoela erori zitzaion sagarrak xuxurlatu ei zion belarrira Newtoni Grabitate Unibertsalaren Legea. Utikan! Marierrauskinen ipuinak egia izateko aukera gehiago dauzka. Izatez, literaturaren eta poesiaren eremura bakarrik mugatu ohi duten metafora erabili zuen Newtonek. Bai, metafora bat fisikaren jaiotzan. Sagarra ortzimugarantz indar handiz jaurtiko balu, hura antipodetaraino (Errezildik Australiaraino) iritsiko litzatekeela imajinatu zuen unibertsolari hark. Are indar han-







diagoz jaurtiz gero, munduari bira eman eta bere orpoan ereriko litzatekeela; indar handiagoz igorrita, bira eman eta bere buru gainetik igaroko litzatekeela, edo bi edo hiru bira emango litzatekeela; eta existituko dela indar oso-oso handi bat, zeinaren eraginez, sagarra orbitan mantenduko litzatekeen... Ilargia bezala! Hara hor, lurreko gorputzen higidura eta zerukoena bat eginda, metafora bisual batean: ilargiaren gure inguruko higidura oso-oso bizi jaurtitako sagar batenaren gisakoa da. Biei indar ikusezin batek lurraren zentrorantz tira egiten die, inguruko orbitatik ihes egin ez dezaten. Unibertsolariak unibertsoko lege bat topatzen du horrela, beste planetetan, sateliteetan eta izarretan ere betetzen dena.

Ez da bertso batez une txiki batean jende askoren aurrean sortutako metafora bat, jende gutxik ulertuko duen eta betirako lege bat ezarriko duen teoria ahaltzu baten aurreko metafora bat baizik. Baina metafora ederra da, bertso eder bat mamitu dezakeena bezala. Eta azken punturako pentsatutako metaforak bertsolaria sormenaren itsasoan murgildu dezakeen gisan (oroitu Lujanbionen sua, “bi begiradek pizten dutena”), halako metafora bisual

Biek, bertsolariak eta zientzialariak, gaia, arazoa edo inkognita azalduko duen eredu bat eraiki behar dute. Baina hori sortzeko helduleku edo gako bat behar da, baliabide bat.

batek zientzialaria eraikuntza teorikoan eta matematikoan murgiltzen du, maiz urte luzez.

Hala sortzen dira zientziako metafora iradokitzailak: lente grabitatorioa, astro batek atzeko izar baten argia erakarri eta desbideratzean sortzen den anplifikazioa; edo zulo beltza, ingurune kritiko batean dena tragatzen duen hildako izar ikaragarri hori. Maiz erabili da literaturan halakoen indar metaforikoa. Egañak JMED saio batean sagardo kupel bati bizkarra emanda nazioarteko zientzialariei kantatu zienean, zulo beltzaren iradokitze ahalmena erabili zuen: “Baina konfiantza daukat / zientziaren esanean / zuloak arakatuaz / segi zazue lanean / bertsolariak onenak gera / janean ta edanean / eta zulo beltz bihurtzen gera / mahaian jartzen geranean”. Paiaren itzulpenean, zientzialarientzat: “...bertsolaris are the best drinking and eating/ we absolutely are black holes when we are close to a table”.

Saio hori eta gero fisikari famatu bat hurbildu ei zitzaion Egañari eta zera esan: “Zure bertsoak txundigarriak dira, baina gehiegi erretzen duzu”. Hara hor errealitatearen behaketa zintzoa, zien-





zientzialariaren begietatik eta ahotik. Izan ere, zientzialariak oso pelmak izan daitezke gauza oso konkretuekin, batez ere fisikariak eta matematikariak. Bohr fisikari kuantikoarekin inork ez zuen nahi izaten zinera joan, westernetan, pelikularen erdian horrelako galderak egiten hasten baitzen adibidez: “Hau al da apatxeak hil duen gizonaren emaztearen zaldia?”. Newtonek ere grabitazio lege unibertsalaz zeruko gorputzen higidura deskribatzeko matematika berri bat asmatu ondoren, gobernuarentzat detektibe lana egin zuen tabernetan infiltratuta, eta zilarrezko eta urrezko txanponak ertzetatik gastatzen zituzten hainbat faltsifikatzaile bidali zituen urkabera.

Gauza konkretuak eta detaileak nabarmentzeko ez ezik, horiek sailkatzeko eta erlazio sistema batean barneratzeko joera aipa-

Saio hori eta gero fisikari famatu bat hurbildu ei zitzaien Egañari eta zera esan: “Zure bertsoak txundigarriak dira, baina gehiegi erretzen duzu”. Hara hor errealitatearen behaketa zintzoa, zientzialariaren begietatik eta ahotik.

tutako uni-bertso-lariarengan presente dago beti, itxuraz fenomeno urrunenak eta ezberdinenak nolabait batzeko imajinazio jarduera etengabean.

Ikasle bat aspaldi agertzen ez eta matematika laga zuela poeta bilakatzeko esan zioten Hilbert matematikari eta maisu ezagunari. “A, ondo, ez zeukan matematikarako nahikoa imajinazio”, esan zuen. Diziplina bakoitzak bere aldera ekartzen du meritua, baina zenbat dira matematikarien aparatu mental irudimentsuak ulertzeko eta aitortzeko kapaz? Gremioko beste lauzpabost lagun, munduan. Matematikan ez dago, urteetako lanaren ondoren, estadioa betetzen duen masa-jendearen txaloa eta olatua. Baina, klase logikatik, nork balidatzen du lan matematiko bat? Elite bategen. Aldiz, herri xeheak badaki bertso on bati antzematen.

Enetz Ezenarroren ustez (matematikaren filosofian egin zuen tesia eta EHUko irakaslea da), bat-batekotasuna desberdintasun garrantzizko bat da. Matematikan, eta zientzian oro har, ahalegin jarraitua, sarritan denbora luzekoa behar da, eta emaitza partzialak limatzen joatea da kontua. Bertsoetan ez daki holakorik dagoen. Izatekotan, igual bertsolari baten ibilbidea konpara daitenke, emaitza partzialak limatze horrekin. Hala eta guztiz ere, plazer estetikoaren bilaketa, bi kasuetan, motor garrantzitsua dela dio, teoriaren edertasuna maiz egokitutasunarekin lotuta doalako. Matematika



zatarrek ez ei dute luzerako bizitzarik, ez eta aplikagarritasun handirik ere. Ildo horretan, fisikariek Maxwellen edo erlatibitate orokorreko ekuazioen simetria ederrez hitz egiten dute, zirkunferentzian inskribaturiko Leonardoren Vitruvioren gizonean idatzita baleude bezala.

Eta galdera interesgarri bat bota digu Ezenarrok bat-bateko edertasunaren harira: Eurekarik ba al dago bertsolaritzan? Arkimedes bainuontzian sartu eta urak egiten zion bulkadaren neurriaz jabetu zenean bezalako une distiratsurik? Egañaren behiak jezteko aulkia Eureka arkimedestarrarekin alderatzea euskal-handikeria da, baina antzeko sormen mekanismoak badaude tartean. Eureka hitzetik dator Heuristika hitz garrantzitsua, grekoz “arazoak soluzionatzeko artea” adierazten duena, eta, eskola batzuetan, matematika eta zientzia irakasteko erabiltzen da estrategia didaktiko gisa. Teoria magistralik gabe, problema bat aurkezten zaie ikasleei eta hori ebazteko denbora bat ematen. Problema-ebazpen ariketa etengabean murgiltzen dira horrela, eta kontzeptu teorikoak problema horretan pentsatzen hastean mamitzen dituzte, irakaslearen laguntzaz. Polya matematikari hungariarrak horrelako problemen aurrean tresna heuristiko jakin batzuk daudela zioen, denontzat —ez bakarrik matematikari super-inteligenteentzat— berdina: analogia, muturreko kasuen azterketa, abstrakzioa, etab. Egañaren behiak jezteko aulki txikia, Ikean ere ez dagoena (edo azkenean baze goen?), muturrera eramandako kasu baten azterketa da. Edo Lujanbioren sua-begirada erlazioa, analogia bat. Tresna heuristiko



Ikasle bat aspaldi agertzen ez eta matematika laga zuela poeta bilakatzeko esan zioten Hilbert matematikari eta maisu ezagunari. “A, ondo, ez zeukan matematikarako nahikoa imajinazio”, esan zuen.



berdintsuak problema matematiko batentzat nahiz bertso problema (jarritako gai) batentzat.

Zumaiako bertso eskolako ikasle eta irakasle izandako, eta orain Irlandan olatuen energia ikertzen ari den, Markel Peñalbak ere tesi horri eusten dio. Oinarrian, sormen prozesua berdintsua da bertsolaritzan edo zientzian: “Iruditegia oso antzekoa da. Errealitate bat sortu behar da, eta bietan behar da azterketa zehatza eta hausnarketa sakona”. Diferentzia exekuzioan dago. “Bertsolariak errealitatea nahi adina bihurritu dezake, are gehiago, errealitate paralelo batzuk asma ditzake. Ez dago inongo mugarik”.



Aldiz, ikerketa zientifikoan bihurtu ezin dena horixe da, “errealitatea oso zurruna da, ez da batere elastikoa”. Edozein aurrerakuntza zientifiko errealitateara ekarri beharra dagoela dio zumaiairak, baina, bertsotan bezala, iruditegi bat eraiki behar dela hausnarketa zorrotz batez.

Horrek zientzia eta letren arteko lubaki klasikoa kolokan jarri behar luke, eta matematika humanizatu. Baina ‘zientziak versus letrak’ gaia JMED saioetan ere ateratzen da. Lujanbio eta Uria euren alabak zer ikasi beharko lukeen eztabaidan ari dira: Lujanbiok zientziak dio, Uriak letrak. Zientziaren alde argumentu merkantilistak erabiltzea ohikoa da jakinduriak mundua erre baina bitartean gauzak produzituko dituelako: “Ikas itzazu zientziak / merkatura irten / letrei inork ez die / kasurik egiten”. Baina zailak dira zientziak: “Kimika ta fisika / a ze anabasa / baietz karrera egiten 7 zortzi urte pasa”. Eskuineko argumentuak, berriz, zientzien alde: “Filosofia fuera / ta kimika gora / Wertek esan bazuen / hala izango da”, edota “hori ikasten badu / diozun planean / baietz Alemanian bukatu lanean”.

Bertsolariak gizarteko ohiko rola hartzen ditu eta zientzia negozioarekin lotzen da sarri, egungo matematikari eta fisikari onenek show audiobisualetako hainbatek baino askoz gutxiago ko-bratzen dutenean. Sistema hegemonikoak zientzia eta —batez ere bere hizkuntza— matematika, pentsamendu robotikoarekin

Enetz Ezenarro: “Eurekarik ba al dago bertsolaritzan? Arkimedes bainuontzian sartu eta urak egiten zion bulkadaren neurriaz jabetu zenean bezalako une distiratsurik?”.



eta naturaren bortxaketarekin nahita lotzen duela dirudi, errealitatea esplikatzeko hain garrantzizkoa den tresna elite gutxi batzuen formula enigmatikoetan gordetzeko. Akaso, “letra” jendeek, zenbaitetan, Zientzia-Letrak lubakian lurra botatzea komeni da aitzurra eta pala hartuta, beti ohiko argumentu binarioak erreproduzitu gabe. Horregatik eskertzen ditugu zientzialariok Gagarin astronauta sobietarraren omenez Durangoko DJ Itsuak egindakoa bezalako lanak, edo Jone Uriaren simetria edo funtzio matematikoari buruzko bertsoak “bertsotate” bideoetan.

Sarriegik hola agurtu zuen JMED saio bat: “Bertsoa ez da zientzia baina bere legeak baditu”. Ez hori bakarrik, sormen tresna irudimentsu eta antzekoak erabiltzen dira bietan, bertsolariak jendea emozionatu eta zientzialariak naturako fenomenoak hotzean azaldu nahi dituen arren. Errealitatearen eraldaketari buruzko arazoan ere antzekoak dira: badaude zientziak gizartea hobetu eta eraldatu dezakeela pentsatzen duten zientzialariak, bertsoak



IKUS-ENTZUNEZKOAK
EKITALDIEN GRABAKETA
BIDEOKLIPAK
DRONE ZERBITZUA
SPOT PUBLIZITARIOAK
MOTION GRAPHICS
DOKUMENTALAK
STOP MOTION • LIP DUB
TIME LAPSE • MANNEQUIN CHALLENGE
GATTIKEN.EUS



berdina egin dezakeela pentsatzen duten bertsolariak bezala. Eta bi arloetan daude hori ezinezkoa dela, akats larri baten arriskua beti dagoela pentsatzen dutenak. Argi dago akats posiblearen nahiz bertute posiblearen tamaina askoz handiagoa dela zientzialariarentzat, beste ardura bat daukala bere gain. Galdetu bestela Openheimerri. •

BIDEO ERREFERENTZIAK

Zientzia edo letrak . Maialen Lujanbio eta Jone Uria.

<https://bertsoa.eus/bertsoak/13537-jone-uria-eta-maialen-lujanbio-zientziak-eta-letrak>




Bertsolariak gizarteko ohiko rolak hartzen ditu eta zientzia negozioarekin lotzen da sarri, egungo matematikari eta fisikari onenek show audiobisualetako hainbatek baino askoz gutxiago kobratzen dutenean.

-
- M- Ikasitzazu zientziak / merkatura irten / letrei inork ez die / kasurik egiten.
- J- Kimika ta fisika / a ze anabasa / baietz karrera egiten /zortzi urte pasa.
- M- Filosofia fuera / ta kimika gora / Wertek esan bazuen / hala izango da.
- J- Hori ikasten badu / diozun planean / baietz Alemanian / bukatu lanean.
- M- Ze diferentzi dago / joan ihesian / edo hemen geratu / ta langabezian.
- J- Kazetaritza egin / dezala ta akabo, / ETBn aldatzeko / zeozer badago.
- M- Gero ETBn eman / eguraldi txarra, / hori baita sinistu / litekeen bakarra.
- J- Ta baietz diru pila / artea aitzaki, / ze gero obra bat zer den / inortxok ez daki.
- M- Ta harri batez bi kolpe / izango dira, ño / poetikoagorik / ez da zientzia baino.
- J- Poztuko gintuzke ta / gu biok harritu, / zientzia politikoak / egingo balitu.
-

Egaña, zulo beltzari buruz: fisikaren indar poetikoa, ba al dago zulo beltza besteko indar poetiko metaforikoa duen kontzepturik.

<https://bertsoa.eus/albisteak/5119-bertsoa-eta-zientzia>.



Fina eta Manuri

Ane Labaka



DOINUA:
LAGUNDURIKAN DANOI

1.
*Niki zuri-gorri bat
eta bi galtzerdi
odolez tintatu ez
balira gaitzerdi.
Norbere etsipenaren
aurka zenbat derbi
oinazea bihurtu
duzue izerdi
zenbat malko ote dira
sei urte (e)ta erdi?*

2.
*Umelduta agertzen
zaizkigu lau masail,
zenbateraino egin
ote zaizue zail?
Ez bertsio ofizial
ez Herrizaingo Sail,
bi hitz ezberdin dira,
trenaren bi errail,
egi bakarra dago;
"hii" ez dela "erail".*

3.
*Istripurik ez dago
zuen egietan
injustiziak sortu
arren hegietan...
Zuek ikusiz prentsan,
albistegietan...
nahiz nekea sumatu
bi aurpegietan
denok kabitzen gara
zuen begietan.*

Gatazkari kantari

Oihana Bartra



Giroa bor-bor zegoenean horixe ateratzen zitzaigun batzuei. Hala bizi genuen eta bertsotara ere hala eramaten genuen. Gure eguneroko bizitzaren parte zen gatazka armatua eta askotan gai zabalak jartzen zizkigutenean hortik jotzen genuen. Presoak, torturak, jazarpen politikoa, heriotza, beldurra.

Gaur, plazatik guztiz ez baina ia guztiz ezabatu da gaia. Jakin badakigu gatazka armatua bera bai, baina gatazkaren jatorria izandako arrazoiak eta gatazkaren ondorioak ez direla desagertu. Alabaina, gure praktikak kontrakoa dio. Plazatik gatazka (hori) desagerrarazi dugu.

Jendea nekatua omen dago; jendeak umorea nahi du, ondo pasatu. Ez ur lar handitan sartzerik, ez betiko gauzei kantatzerik. Hori joan zen. Garai berriak. Bertso berriak, garai berriari jarriak.

Neu ere egon nintzen neure buruaz nekatuta. Joe, Oihana, kantatu beste zerbaiti. Gatazka mota asko

dago gure jendartean, askotariko arazoak. Kantatu horiei, ez betikoari. Jendea aspertzen ari zara.

Orain ez nago neure buruarekin ados. Gatazkari kantatzeko gogoia eta beharra sentitzen dut, arrazoi askorengatik. Jurgik hurrengo urte luzeetan espetxeko irratitik segi beharko dituelako txapelketako saioak; batzuetan gauzez zarak entzuten ditudanean asaldatuta esnatzen jarraitzen dudalako; Maialenek eta alaba Ametsek 1600 km egin behar dituztelako hilerio aitegaz egoteko; egun nire oholtzakide (gazte) diren askok gatazkaz entzun edo irakurri bakarrik egin dutelako; gure entzule askok ohe hutsak dituztelako etxean; sufrimenduak badirauelako, gatazka egon badagoela azaleratzeko ardura sentitzen dut.

Hasteko, aurtengo Bizkaiko kanporaketaren egun berean espetxetik aterako den @erreharria -ri kantatzeko deseatzten nago.

•

Euskaradun eta puntuu

Nahia Sasco



Urriaren 12ko asteburuan hasiko da taldekako lehen XILABA, duela gutti Bizkaiko Txapelketako udazkeneko fasea hasi zen bezala. Azken hilabeteetan, Euskal Herritik 1000km bizi izanik, teorian nahiko urrunetik begiratzen dut euskal mundua. Baina bertsoa izan liteke euskararekin hain urrunetik atxikitzen dudana lotura bakarrenetarikoa.

Eta euskara? Frantzia iparraldean ez da euskaraz hitz egiten, euskaraz hitz egiten dakigula erraiten da. Eta hori adierazita, jendeak euskalduna zirela ulertzen du. Eta euskaraduna bakarrik, euskal hiztuna eta puntuu. Han ez da gehiago «euskaldun berrri», «euskaldun zahar», «etxean ikasi duen euskaldun» edo «euskara ikastolako ondareztat» duen hiztunik.

Euskal Herrian, batzuen miresmena piztu izan dut sarri, euskara etxean ez nelako ikasi, eta hemen, berdina sentiarazi ohi diet, munduko 4 hizkuntza zaharrenetarikoa bat darabildalako ahoan. Eta han,

ez dakite ze maila dudan. Inork ez daki, euskaraz sortzen eta inprobisatzen ikasi nuela. Batzuek usteko dute, euskaraz 5 esaldi erraiten dakizkidala eta besteek imajinatuko dute agian, euskaraz poesia egiteko gai naizela. Baina berdin du, inork ez dio bere buruari pausatu ze heinerainoko euskalduna naizen. Euskalduna naiz, eta euskalduna bakarrik.

Euskal Herritik gure hizkuntzak duen ezagupenaren galdera bazter batera utziz momentu batez, ez ote genioke gure buruari galderarik pausatu behar?

Guk ere ez ote genuke etiketarik gabeko euskaldunak sortzen ikasi behar?

Bakoitzak, edozein maila izanik, ez ote luke bere hizkuntza egoera hobeki biziko, euskaldun kategoria bat kopetan kolatua izan gabe?

Euskalduna, hau da, euskaradun soila izateaz gozatzen ikasiko ote dugu?

•

Prezioa eta balioa

Oihana Iguaran



Askotan hitz egiten da plazaren balioaz, nola norberetzat hala komunitatearentzat; gutxitan, ordea, plazaren prezioaz. Askotan hitz egiten da saio bateko sarreren prezioaz, eta gutxi sarrera horri esker saioan bizitakoaren balioaz. Oso

gauza desberdinak dira prezioa eta balioa berez, baina batzuetan elkarri lotuta datoz edo elkarrekin nahasten ditugu. Eneko Sagardoy-ri entzun nion Karlos Zabalak esana: “onenak ez, aguantatzen duenak” betetzen duela erronka. Bertso plazak ere badu hortik.

Plazarako balio behar du bertsolariak, iraungo badu. Eta plaza(k) pluralean deklinatzen den momentutik, zorionez, balio duten bertsolari ereduak gero eta anitzagoak dira. Funtsean, baina, ahalegina, pasioa, denbora eta sakrifizioa eskatzen dizkio balio duenari. Horregatik ezagutzen ditugu balio duten bertsolariak, plaza euren irismenera egokitu eta mugatu dutenak. Eta agian plazan d/gabiltzan askok ez dute/gu hainbeste balio, baina aguantatzeko prest d/gaude.

Plaza ederra baita, bere anitzean, bere zabalean; baina denbora eta energia asko eskatzen du (eta ez gehiena ziurrenik, bertsoan aritzeko uneak). Plazak nahikoa laster agertzen du bere prezioa, eztehi egunak agortu orduko seguru asko. Kontua da, sekulako balioa sumatzen diola bertan hasi denak. Orduan, norbere prezioa finkatu behar den unetik beretik hasten da bat bere balioa zalantzan jartzen (bertso eskolako lehen egunetik hasi ez bazen).

Geroztik, zalantza eta lana dira ordaindu beharreko prezioa, norbere balioak gora egingo badu. Norbere balioek balio dezaten ahalegindu beharko du bertsolariak. Eta ez aguantatzea ere zilegi da.

Presioa prezio den plazan, balio duenari balioko balio...

•

Aireportuko kafetegitik

Enare Muniategi



Bertsolariak saio bakar baten hamaika pertsonaiaren azaletik kantatu ohi du. Izaera, sexu, jatorri, ezaugarri, etab luze ezberdinez jantzitako pertsona bihurtu ohi da mikrofono aurrean. Pertsonaia horiek sortzeko inspirazioa hainbat lekutan bila daiteke, liburuetan, pelikuletan zein aireportuetan.

Aireportuko kafe eskasa bi euro eta piku pagatu ostean aurrera eta atzera dabilen jendeari begira nago. Alboko mahaian kafe zantar berdina hartzen pamela eta guztiko 70 urteko andrea, ilobak gehiago zaindu behar ez dituen oporretan doana. Hasiera baten ez zekien Benidormera edo Malagara joan, eta azkenean Tenerifera joatea erabaki du; hori bai, ez du hartu bueltarako hegazkinik, batek jakin noiz gogaituko den, edo itzuliko den ere.

Pantailera begira dabilen enpresariak, ordea, badaki noiz bueltatuko den. Madrilera lehenengo hegazkina hartuko du eta azkenengoan etorriko da bueltan. Maletinean bilerarako ordenagailua eta paper garrantzitsuak daramatza. Bada ez bada jesarri ere ez da egiten, denbora galtzea ez dago bere planen artean.

Alde handia dago maletin bat eraman edo Luis Vuittonen lau maleta. Aberatsak horrela joan ohi dira bidaian, edo lanera, edo batek jakin nora

doan bere atera korrika doan 45 urteko bidaiari elegantea. Agian, maletak hutsik daude eta New Yorkera doa, bertan erosketak egin eta beteta ekarriko ditu bueltan; egia esan, ez da plan txarra horrelako diruduntzat.

Umeak ere ikusten dira tarteka maletarik gabe zein modako marrazki bizidunen motxilarekin. Hauek pozarren doaz, batek daki nora eta batek daki noiz arte. Badaki ondo pasatuko duela eta bueltan hamaika istorio kontatu ahal izango dituela eskolara bueltan. Eta sentimendu berdintsuekin doa 25 urteko gaztea, motxila hartu eta Hego Amerika ezagutzera doana, ahal dela asko bidaiatzera eta bidaiok ordaintzeko lanen bat topatzeko asmoz, batek daki non amaituko duen eta noiz bueltatuko den, edo bueltatuko den ere.

Bertsolaria pertsonaia hauen maleta barruan zer dagoen, nora doazen, zer sentitzen duten, zertara doazen, etabar luze baten sortzaile da. Alegia, kantatzen hasi orduko segundo laburrak aireportuan hartutako kafe zantar eta luzeen fruitu dira.

Bertsolariak saio bakar baten hamaika pertsonaiaren azaletik kantatu ohi du. Izaera, sexu, jatorri, ezaugarri, etab luze ezberdinez jantzitako pertsona bihurtu ohi da mikrofono aurrean. Pertsonaia horiek sortzeko inspirazioa hainbat lekutan bila daiteke, liburuetan, pelikuletan zein aireportuetan.

Aireportuko kafe eskasa bi euro eta piku pagatu ostean aurrera eta atzera dabilen jendeari begira nago. Alboko mahaian kafe zantar berdina hartzen pamela eta guztiko 70 urteko andrea, ilobak gehiago zaindu behar ez dituen oporretan doana. Hasiera baten ez zekien Benidormera edo Malagara joan, eta azkenean Tenerifera



joatea erabaki du; hori bai, ez du hartu bueltarako hegazkinik, batek jakin noiz gogaituko den, edo itzuliko den ere.

Pantailatara begira dabilen enpresariak, ordea, badaki noiz bueltatuko den. Madrilerako lehenengo hegazkina hartuko du eta azkenengoan etorriko da bueltan. Maletinean bilerarako ordenagailua eta paper garrantzitsuak daramatza. Bada ez bada jesarri ere ez da egiten, denbora galtzea ez dago bere planen artean.

Alde handia dago maletin bat eraman edo Luis Vuittonen lau maleta. Aberatsak horrela joan ohi dira bidaiari, edo lanera, edo batek jakin nora doan bere atera korrika doan 45 urteko bidaiari elegantea. Agian, maletak hutsik daude eta New Yorkera doa, bertan erosketak egin eta beteta ekarriko ditu bueltan; egia esan, ez da plan txarra horrelako diruduntzat.

Umeak ere ikusten dira tarteka maletarik gabe zein modako marrazki bizidunen motxilarekin. Hauek pozarren doaz, batek daki nora eta batek daki noiz arte. Badaki ondo pasatuko duela eta bueltan hamaika istorio kontatu ahal izango dituela eskolara bueltan. Eta sentimendu berdintsuekin doa 25 urteko gaztea, motxila hartu eta Hego Amerika ezagutzera doana, ahal dela asko bidaiatzera eta bidaiok ordaintzeko lanen bat topatzeko asmoz, batek daki non amaituko duen eta noiz bueltatuko den, edo bueltatuko den ere.

Bertsolaria pertsonaia hauen maleta barruan zer dagoen, nora doazen, zer sentitzen duten, zertara doazen, etabar luze baten sortzaile da. Alegia, kantatzen hasi orduko hartuendo laburrak aireportuan hartutako kafe zantara eta luzeen fruitu dira.

Emakumeak ez dira

Ainhoa Agirreazaldegia



Aldaketek, egiazkoak izan daitezzen, ezinbestekoa dute prozesua hasi, mamitu eta gorputza hartzea. Eta hiru urrats horiek emateko, denbora behar dute.

Prozesuak behar duen denbora baino lehen amaitutzat eman nahi diren transformazioak ez dira benetan transformazio izatera iristen. Azkarregi jotzen dira "gainditutzat" aldatu beharrekoak, eta arazo zaharrek sustraietan egoten jarraitzen dutenez, behin eta berriro azaleratuko dira hutsuneak.

Baina lekuz kanpokoa izango da berriro aldaketa aldarrikatzea, ofizialki prozesua burututzat jo baitzen.

Halako zerbaiten kezka sortu zait azken aste hauetan "bertsolaritzan mutil-gazteen belaunaldia galtzeko arriskuan gaude" eta "genero garden baterantz jo behar genuke" bezalako esaldiak entzun ditudanean. Mamitzen hasi baizik egin ez den aldaketa bat amaitutzat jotzen ari zirela iruditai zait, horrek duen arrisku guztiarekin.

Zenbat emakume dabilta plaza plaza bertsotan? Zenbat denbora da horietako bakoitza plazan dabilela? Zenbat Txapelketa Nagusitan kantatu dute? Herrialdeetako zenbat txapel dituzte? Zenbat iritsi dira plaza plaza ibilbidean erreferentzia izatera? Horietako zenbaten bertso-ibilbidea goraiatzan

da, bertsolariaren izen-abizenak emanda?

Genero-desberdinkeria gaunditzeko gakoa ez baita aukera berdintasuna, posizio berdintasuna baizik. Plazaz plaza bidetxoa egiten hasi diren emakume bakan batzuk ikuste hutsarekin aldaketa gauzatzat ematen badugu, ez gara ari genero-sistemak gizaratean duen pisuaren eta

eraginaren neurria aintzat hartzen.

Bestalde, gizon bertsolari gazte asko ikusten ditut nik, esaterako, gazte-txapelketetan. Gehiengo dira. Baita herrialdeetako txapelketetan ere. Eta hala ez balitz ere, iritsi gintezke genero garden batera gizonentzat emakumeek erreferente izan ezin badute?

Harri & Irri

Paula Heras



Miel Tuberosa idazlearen "Txerriak" enpresariaren harria

Oinak

Jon Martin



Esakuntzaren hiru ibai dira. Eskuineko ibai erdian zira jira, eta ezinezkoa ekarri erria, prozesua hasteko berriz eskubira... gaueroko garia osatzen ari da. Zein momentuzan lotu didazu begira?

Zure ilean gorri badator barkua sortaldien topatu du labainkor ardua kostata gainditu du zure bordakua laster topatuko du zer abordatua. Betiko geratu raiz, harra hor datua, zure izarrean txirikordatua.



EUSKAL UNTXIA

...eta on egin!

HARAGI XAMUR ETA OSASUNGARRIA
GOZATU ETA ZAINDU ZURE ELIKADURA!

bertakoa

www.euskaluntxia.com

BERTSOLARI *letna-egileak:* BUKAERAK PENTSATZETIK, HASIERAK MARRAZTERA

TESTUA: JOKIN BERGARA
ARGAZKIAK: ANDONI LUBAKI



Bertsolariak,
bere ohiko forman
sortzen duenean,
bukaerak pentsatzetik egiten
du aurrera, garbi du nora doan.
Bestelako diziplina artistikoekin nahastu
denean, ordea, musikarekin batik bat,
bukaera zein izango zen jakin gabe ekin
dio, konbinazio berriak bilatuz, ezer ez
zegoen lurralde artistikoetara
sorkuntzak ekarriz, nolabait
ere, harreman berrien
hasierak
marraztuz.

HARREMAN HISTORIKO ESTUA IZAN DUTE BERTSOAK ETA MUSIKAK GUREAN. IZAN ELKARRENGANDIK GERTU DAUDEN ADIERAZPEN ARTISTIKOAK DIRELAKO EDO GUREA BEZALAKO HERRI TXIKI BATEAN SORTZAILEEK ELKARLANERAKO JOERA HANDIAGOA IZAN DUTELAKO, ZERRENDA LUZEA OSATU DUTE MUSIKARIEK ETA BERTSO-LARIEK ELKARLANEAN.

Batak musika, hitzak besteak, bietatik edan behar du kantak, forma eta garai ezberdinetan, gai sozial eta politikoetatik hasi eta gizakioi unibertsalagoak zaizkigun egonezin eta kezka emozionaletaraino; maitasuna, giza harremanak, galdera existentzialak... belaunaldi bakoitzak bere ekarpena egin du, euskararen biziberritzea ipar izanez zenbaitetan eta probokatzaille izatea helburu jarriarik bestetan, altxor ederrak aurki ditzakegu, kantagintza-bertso-gintza arteko harremanetik jaiok.

HASIERAKO PAUSOAK

Badauzkagu hamaika adibide harreman honen berri eman dezaketenak. Xabier Letek berak egin zuen saiakera bertso jarriak musikatzeko, Antton Valverde eta Julen Lekuonarekin batera argitaratu zuten *Bertso zaharrak* diskoa da horren lekuko.

Beste kontu bat da, ordea, bertsolariari zuzenean eskatzea kanta baterako letrak egin ditzala. Zeresan handia dauka hor Xabier Amurizak. Herriz herri bertsoak jarri zituen 80ko hamarkadaren hasieran, tokian tokiko kontuen berri emanez. Musikariekin kontaktuan ipini ondoren, herri horietara joan eta musikaturik kantatzen zituen bertsoak, herritarren harridurarako. Esperientzia horretatik tiraka topa ditzakegu geroago etorriko ziren eta ondo erroturik geratu diren kantak, *Mendian Gora Haritza* Imanol Larzabalekin batera egina, *Euskal Herrian Euskaraz* Oskorrik musikaturako kanta ezaguna edo berriagoa den eta Anje Duhalderekin elkarlanean sorturiko *Xabier Amurizarekin kantari* diskoa.

ABANGOARDIA, BERTSO-MUSIKA TALDEAK?

Ibilbide honetan bidea zabalduagatik, atzetik etorri ziren belaunaldi, ideia eta estetika berriak ere. Jon Maiak Negu Gorriaki egin zizkion ekarpenak aipa ditzakegu *Gure Jarrera* diskoan bost kantatan baitaude bere letrak. Noski, Unai Iturriaga eta Igor Elortza durangarrek Josu Zabalararekin batera eginiko Zazpi Eskale lehenbizi eta Gu Ta Gutarrak ondoren, ezin ditugu aipatu gabe utzi. Bertsoa ordura arte sekula erabili gabeko eremuetara garraiatu zuten, edozein musika estilotara hurbilduz, euren kultura kaletarra baliatuz horretarako. Esperimentazioa metodologiatzat harturik, pieza ederrak aurki ditzakegu, bertsoaren formatutik asko dutenak, baina, aldi berean, zerbait berria ekartzen dituztenak.

Batak musika, hitzak besteak, bietatik edan behar du kantak, forma eta garai ezberdinetan, gai sozial eta politikoetatik hasi eta gizakioi unibertsalagoak zaizkigun egonezin eta kezka emozionaletaraino.

Berriagoak diren esperientziak ere baditugu. Odei Barroso bertsolari urruñarrak Gorka Rodrigezekin sortu duen ZZIO taldea kasu, rapa eginez eta Hip Hoparen barruan kokatu ditzakegun estiloak erabiliz. Bertsoaren formatatik eta erri-mategitik lanketa handia egin dagoela igartzen zaie letretan, elkarrengandik uste baino gertuago dauden generoak direlako agian. *Pausuz Pausu* diskoarekin hasi ziren 2013an *Bideak*-ekin jarraitu (2015) eta *Orain eta Hemen* diskoa atera berri dute, oso aktibo dabilizan eta terreno emankorra den seinale. Euskarazko hitzak pentsatuz, idatziz, aurkituz eta aldi berean nazioartean indarra duten baliabide musikalekin uztarketa eginez, oraindik ere artista berriek esploratu dezaketen lurralde interesgarri baten aurrean jarri gaituzte. Ez dira bakarrik izan rapera hurbilketa hori egin dutenak, Iñaki Viñasprek ere antzeko proiektuak eraman ditu aurrera *Bertso Rap* moduko modalitateak probatuz.

Badaude bestelako estiloak lantzen ari direnak ere, Folk musikara hurbilpena egin duten Bidelapurak taldea, Ander Solozabal bertsolariaren eta Ekaitz Aranberriren eskutik. Bi disko atera dituzte dagoeneko *Zenbat Negar Bazterretan* (2014) eta *Gorriak eta Bi* (2018). Bertso jarrien eredutik urruntzen dira gehiago, baina euren kanten letragintzan hainbat bertsolari aritu direla jakinekoa da.

Gu Ta Gutarrak en estilotik gertuago egon daitekeen beste adibide arrakastatsu bat azken urteetan eszenara agertu den Bi Bala taldea da. Aitzol Barandiaranek eta Iñaki Gurrutxagak rock musikaz jantzen dituzte bertso-letra zirikatzaileak. Bertso jarrien formulak, baina musikatuak izateko idatziak diren letretan, badute probokaziorako, kontraesanak azaleratzeko eta kritikarako joera. *Wasabi* diskoarekin egin ziren ezagunak, 2014an, *Gure Eroyak* atera zuten ondoren (2015), eta argitaratu duten azkena *Arazo Modernoak* izena duen diskoa da. Kantagintza eta bertsogintzaren arteko loturaren adibide garbienenetako bat dugu, azken garaiotan.

EKITALDIETAN EKARPENAK

Lotura honen bueltan taldeak sortu eta bidea egin duten arren, ekitaldi zehatzetarako egin izan diren kantetan bertsolarien esku hartzea nabarmena izan da historia laburrean. Korrika, Nafarroa Oinez, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak edo Herri Urratsen behin eta berriro aritu izan dira bertsolariak letrak jartzen, 1999an Joxe Ripiauk musikatu eta Maialen Lujanbiok Korrikarako idatzitako *Bat eta Bat* abestia edo ZZIOk 2018ko Herri Urratserako konposatu zuen *Prefosta!* abestia kasu.

Ertz asko dituen harremana da, gure herrian bere pisua duena eta arte adierazpen berriei zein kulturagintza aktibo bati atea zabaldu izan diena. Punta guztiak ukitzea zaila den arren, gaiak sakondu nahi izan dugu hiru belaunaldi

Bertsoa ordura arte sekula erabili gabeko eremuetara garraiatu zuten, edozein musika estilotara hurbilduz, euren kultura kaletarra baliatuz horretarako.



ezberdinen bizipenak ekar zitzaketen kideekin. Xabier Amuriza, Igor Elortza eta Maddalen Arzallusekin saiatu gara harreman honetan sakontzen, sorkuntza prozesuen korapiloetan murgiltzen eta bertsoagintza-letragintza-musikagintza hirukoak ekar ditzakeen bide berri potentzialen inguruan hausnartzen. Hirurek ere, klabe interesgarriak eman dizkigute, bertsoen mundu txiki anitz hau hobeto ezagutzeko, bakoitzak garai eta sorkuntza ibilbide baten lekukoaren ahotsetik hitz eginez.



XABIER AMURIZA

“Idazten jartzen naizenean saiatzen naiz literarioki testu ona egiten”

Bertsoak musikara eramaten edo musika bertsoetara ekartzen aitzindarietako bat izan zen Xabier Amuriza (Etxano, Bizkaia, 1941). Herrietako istorioekin bertso jarriak egin eta musikarekin kantatu, Korrikarako eta ekitaldietarako letrak idatzi, Oskorri edo Imanolentzat letrak egin edo Anje Duhalderekin diskoak ere argitaratu izan ditu. Ibilbide landua dauka bertsoegintza eta kantagintzaren arteko harremanean. Herri iruditerian geratu diren kanta askoren hitzen egilea da. Bere esperientziaren berri izateko, Andikoa auzo baketsuan elkartu gara udazken hasierako arratsalde eguzkitsu batean, anekdotaz jantzitako kontakizun eta teorizazioak entzuteko inguru paregabea.

70eko hamarkadaren bukaera aldera egin dezakegu topo zure lehenbiziko kantuen letrekin. Zerk motibatuta hasi zinen kanten letren sorkuntzan?


Lehenik eta behin bertsolari gisa hasi nintzen plazan. Kartzelan eginak nituen sortak, baina plazan bertsolari aritu gabea nintzen, 76an egin nuen debuta, Gernikan, Oskorriekin batera. Gogoratzen naiz saio hartan bertan, langileen grebarekin zerikusia zuen gai bat jarri zidatela, hiru bertso kantatu nizkion gaiari. Oskorri bertan zegoen, gustatu zitzaizkion nonbait eta disko batean kantatu eta grabatu zituen. Hori izan zen nire lehenengo esperientzia, nik sortutako hitzekin musikari batek kanta bat egiten zuena.

Handik aurrera, eskariei erantzuten aritu nintzen batik bat. Enkarguak pasatzen zizkidaten, eta nik hitzak jarri. AEK-k, Oskorrikerak edo beste kantari batzuk ere eskatzen zizkidaten letrak. 78tik 81erako garaian, Gontzal Mendibilekin batera, tokian tokiko bertsoak jartzeko lanean aritu nintzen, eta, gero, musikariek laguntzen ninduten. Bertso jarriak ziren, baina ez zeukan zerikusirik gaur egun egiten diren bertso saio musikatuekin.

80ko hamarkada hasierako giro sozial eta politikoa gogorra zen. Garai hartan idatzitako letrek aldarrikapen kutsua dute normalean. Nola eragin zizun giro soziopolitiko hark letrak idazterako orduan? Uste duzu bertsoetan esan ezin zenezakeena esateko aukera ematen zizutela kantek?

Esan behar dugu bertsoetan ere bi modalitate daudela, elkarren artean oso ezberdinak direnak. Bat-batekoak eta bertso jarriak. Nik behintzat, bertso jarriak ez ditut egiten inola ere bat-batekoaren mekanismoarekin. Poema bezala ulertzen ditut, neurturik eta errimaturik egongo dira, baina ez dago beltanik, prozesua ezberdina da. Kantarako letra eskatzen didatenean ere nik

“Kantarako letra eskatzen didatenean ere nik bertso jarrien prozesu antzekoa erabiltzen dut. Bietan ere poema bat egiten ari naiz, ematen zaizun gaiari erantzuten saiatuz”.



bertso jarrien prozesu antzekoa erabiltzen dut. Bietan ere poema bat egiten ari naiz, ematen zaizun gaiari erantzuten saiatuz.

Giro sozial eta politikoarena, ba, garbi dago eragina izan zuela. *Euskal Herrian euskaraz* da nire letrarik ezagunenetakoa, eta enkargua pasa zidatenean, jada aldarrikapena, mezua eta giroa ere pasatzen dizute. Oskorriri ere egin nion letra (*Nafarroa* kantarena) hortik gutxira, azkenean ‘Euskal Herriaren batasuna’ ematen badizute gaia, aldarrikapena gaien bertan badago, emana dator. Zailena da “egin nahi duzuna” esaten dizutenean.

Beraz, nahiago duzu gaia emanda etortzea? Bertsolariak aritzen dira gai librean ere, eta batzuk erosoago aritzen dira formatu horretan. Sortzaile-bertsolari ikuspuntutik, zer erronka eskatzen dizkizu sorkuntza libreak? Paralelismorik egin daiteke plazako jardun librearekin?

“*Euskal Herrian euskaraz* da nire letrarik ezagunenetakoa, eta enkargua pasa zidatenean, jada aldarrikapena, mezua eta giroa ere pasatzen dizute”.

Plazako jardunarekin paralelismo gutxi, beste ibilbide bat darama bertsoak hor. Bat-batean edo txapelketetan baloratua izan daitekeen metrika, zorrotasuna eta errima alde batera uzten ditut idaztean, era zabalagoan eta era literarioan osatu nahi dut testua. Azkenean, bertsoak eskatzen badizkizute, bertsoak onak edo oso onak izan behar dira.

Egia da tematika batzuk exigenteagoak direla, bere eduki politikoagatik edo. Baina badaude beste batzuk askatasun gehiago lagatzen dizutenak. Esaterako, Tapiak eta Leturiak festa girorako letra eskatu zidaten, ondoren *Hik lan eta nik jai* izango zena. Hor ez daukazu hainbesteko zamarik, baina beti ere gauza elegante bat eman behar duzu.

Bertsoa, poesia, kantagintza... genero ezberdinak direla esaten da. Sormen prozesu aldetik, zertan esango zenuke ezberdintzen direla gehienbat?

Bertso jarrien eran baldin bada, ez dut uste alde handirik dagoenik. Bat-bateko bertsoetan ahokadak edo panfletoak botatzeko arriskua egoten da eta hori ekidin nahi dut. Idazten jartzen naizenean, saiatzen naiz literarioki testu ona egiten, giro bat adierazten duten testuak, beti ere inor mindu gabe.

Batzuetan pasatzen dituzten gaiak ere oso gogorrak izaten dira. Niretzat gogorrena Gurutze lantzirena izan zen, torturatua eta hila. Anje Duhalderi musika eta niri letra eskatu ziguten, eta benetan gogorra egin zitzaidan. Hor bai, behar da poesia... metaforak eta bestelako baliabideak bilatu behar dira, baina gaiari ere ezin diozu hutsik egin. Edukia eman behar diozu, poesiaren barrutik konparazioak-eta harrapatu behar dituzu, indarra emanez, baina suntsitzen hasi gabe.

Gurute lantzirena moduko egoera latzei idaztean, poesia da gauzak adierazteko biderik egokiena?

Poesiak salbatu egiten zaitu. Halako samin baten aurrean, zer kantatu behar duzu, ba? Poesia salbatzailea da. Nahiz eta egia izan eta prosan beste era batera esan, adierazi behar duzu mina, adierazi behar duzu biolentzia ere... baina ezin duzu direktoki esan. Direktoki biolentzia adieraztea ez zait ona iruditzen. Zinean ere gertatzen da; tiro bat nahikoa den lekuan, hogeitaz sartzen badira, hemeretzi horiek soberan daude. Ikuskizunerako biolentziaz baliatzea

Serigrafia

kamisetak, itsasgarriak ,...

Inprimaketa digitala

pankartak, rollup-ak, itsasgarriak ,...

Errotulazioa

ibilgailuak, lokal komertzialak, horma inprimaketak ,...

Mugitegi industrialdea , D bidea, 40 - 943 72 58 07 - URRETXU (Gipuzkoa)



da hori. Kantetan ere berdin, mina adierazi behar baduzu, poesiak laguntza handia egiten du. Noski, poesia ona izan behar da konparazioan. Konbin-tzenteak izan behar dute bai kausarako, baita hilaren gertukoek sentitzeko modukoak ere, ez panfletarioak.

Kantagintzan eduki duzun ibilbideak balio izan dizu gero bat-bateko bertso jardunerako? Mezuak, baliabide literarioak, ideiak edota landutako errimak ekartzeko?

Bai, argi dago. Nik beti esan izan dut bat-bateko bertsolaritza den arren arrakasta zabalena duena eta jendeari gehien gustatzen zaiona, bertso jarrien kalitatea gorago dago beti, aurrerago doa. Bertso jarrietan metrikak, errimak edo baliabideak erabiltzen badituzu, zure buruan dabilta, ez dituzu ehuneko ehunean aplikatuko, baina etorriko dira moduren batean edo bestean, buruan dabiltzalako.

Esaterako *Mendian Gora Haritza* jarritako bertsoak dira, kontzientzia osoz jarriak gainera, azkeneko hitza ere ondo pentsaturik, ez bakarrik pentsaturik, ustez ondo aurkiturik ere. Orduan, atera izan ditudan doinuetan eta, aurretik erabiliak nituen eta ideiak buruan ibiliak.

Idazlea eta zutabegilea ere izan naiz. Txapelketan ideia batzuk erabiltzen nituen aurrez zutabeetan erabiliak. Batzuek esaten zuten: “Nondik dabil hau? Ikasitika eta...”. Baina zergatik ez nituen erabiliko zutabeetan jendeari gustatu izan zitzaizkion ideiak, ustez egokiak?

Kantagintzan ere berdin, bertso jarrietan aurreratu baduzu literarioki, erritmoak diferentek izan arren, ekarriko duzu aurretik erabili duzuna letrak idazterakoan.

Bertsoa bat-batean, unean eta tokian sortua da. Kantetarako letrak, aldiz, sortzeko denbora eta pentsatzeko lasaitasunarekin ekartzen dira. Zure esperientziatik, zeinek du jendearengana iristeko ahalmen handiagoa? Edo zein modutan eragiten du jendearengan bakoitzak, mezuak antzekoak direnean?


Kalitatez ezin dira antzerakoak izan. Bat-batekoak unean bertan sor dezake txalo zaparrada izugarria, baina hor joan da normalean. Egia da batzuk gertzen direla, niri gertatu izan zait plazaren batean, —lehen aipatu dudan Gernikako saioan, adibidez—, bertso batzuk jendearen buruan geratu izana. Aurreko batean batek goitik behera kantatu zizkidan orduan botatakoak. Izugarritzko poza hartu nuen.

Gero, beste bertso batzuk ere musikariek hartu izan dituzte eta jendeak ikasi egin ditu, ez bertsolariak momentuan kantatu dituelako, ondoren musika jarri diotelako baizik. Egaña eta Peñagarikanoren ofizioa Negu Gorriakek

“Poesiak salbatu egiten zaitu. Halako samin baten aurrean, zer kantatu behar duzu, ba? Poesia salbatzailea da”.









musikatu zuenean bezala. Baina oso kasu berezia da hori, musikariak testu landuak nahi izaten ditu.

Sortzailearen jokabidearen aldetik esan nahi dut. Izaten da diferentzia, publiko jakin baten aurrean kantatzean edo paper zuriaren aurrean sortzean?

Bat-batean ari zarenean parean duzun jendearengana iritsi nahi duzu, eta ezin da metafora abstrakturik eta holakorik erabili, ez du balio. Kantetan ere, gertatzen da hasiera batean jendeak ez ulertzea edo. *Mendian Gora Haritza* lehendabiziko aldiz kantatu nuenean jendaurrean, Aulestin izan zen, baina ez zitzaien aparteko ezer iruditu. Gero Imanolek musikatu zituen, jendea behin eta berriz kantatzen hasi zen, eta arrakasta eduki zuen.


Irakurtzea bezala da. Testu idatzi batek, ulertu ez baduzu, behin eta berriro irakurtzeko aukera ematen du. Bat-bateko bertsoa, ordea, hor joaten da.

Badago joera gurean, inguruko kulturetan horrenbeste ez dagoena, letren munduan dabilzane, batez ere bertsolariei, kanten letrak eskatzekoa. Musikariek beraiek idatzi ordez, elkarlan hori bilatzen da sarri. Nondik dator joera hori, bertsolarien generoa ez denean *per se*?

Gure mundu txiki baina aldi berean handian bertsolariek badute prestigio eta ospe bat, eta kantariek pentsa dezakete bertsolariaren izena erabiltzeak



“Beti esan izan dut bat-bateko bertsolaritza den arren arrakasta zabalena duena eta jendeari gehien gustatzen zaiona, bertso jarrien kalitatea gorago dago beti, aurrerago doa”.



mesede egin diezaiekeela agian... Baina hemen idazleek ere letra asko egin izan dituzte: Atxaga, Sarrionaindia... Beharbada harremanak hurbilak direlako izango da, ez dakit fenomeno hori zergatik den.

Frantsesez eta gazteleraz ez dago tradizio hori. Baina gazteleraz adibidez, poeten, nolabait bertsolari kultuen, poemak kantatu dituzte harrotu arte. Bertsolarien kasuan, errazena hori da, agian, gertuen dagoena bera baita. Garantia bat ere ematen du. Egia esan, kanta askoren letrak txarrak dira. Kanta batek indarra behar du, eleganzia bat. Korriente bat haizeak eramateko da.

Zure esperientziatik, konbinazio berriak bilatzen dituzten taldeak eta bertsoa bestelako eremuetara eramaten ari direnak, uste duzu arrakastatsuak izan daitezkeela?

Ez nago oso jarria, bertsolaritza Anbotoz bestaldeko gauza bat bezala bizi dut. Etxean ere badaukat, baina ez dakit eskaria nola dagoen. Oraindik kantatzen ari nintzela, bertso saio musikatuak eta bazeuden, baina ni horretarako ez nengoela esan nien, amaitzen ari nintzela eta ez nintzela horretan sartuko. Entzun izan ditut bertso egunean-eta, baina ez dakit ondo nondik nora doan.



Nik letra bat hartzen dudanean kalitatea eskatzen dut, berdin zait Hip-Hopa edo zer den, baina kalitatea badago balio du. Beste kontu bat da balio duen formula gisa, musikalki eta abar... Esaterako, segidillarena badakit jendeari asko gustatzen zaiola, espektakularra da, baina testu moduan ez du batere balio. Orduan, kanta baterako idazten duzunean, musika kenduta ere balio behar du testuak.

Bat-batekoa utzi duzun arren, kantak idazten jarraitzeko asmorik baduzu?

Bat-batekoa erradikal laga nuen. Ez zait orain momentuan bertsojaritza asko interesatzen, eta bat-batekoa utzia dut. Beste gauza bat da, baten bat letra bat edo bertso jarriak eskatzera hurbiltzen bazait, ba, agian egingo dut. Nik kanta asko egin izan ditut, eta badakit kantaren arrakastari asko musikariak

“Nik letra bat hartzen dudanean kalitatea eskatzen dut, berdin zait Hip-Hopa edo zer den, baina kalitatea badago balio du”.

edo kantariak ematen diola. Gorakada moduko bat sentitzen dut kanta horietako batzuk entzutean.

Uste dut letrak ere nahiko onak eta beste batzuk oso onak egin izan ditudala, baina kalitatea ez da bakarrik zabalitzen. Musika ona izan behar du, kantagarria izan behar du, jendeak kantu-afarietan eta horrelakoetan kantatzeko aproposa. •

IGOR ELORTZA

“Bagenuen apur bat abangoardia izatearen kontzientzia, baina naturalki bizi genuen”

Kaleko giroan hazi eta bertsoa musika hainbat estilotara zabaldu zuen belaunaldiko kide ezaguna da Igor Elortza (Durango, Bizkaia, 1975). 19 urte gazterekin hasi ziren, Zazpi Eskaleren bidez, bertsoari terreno berriak zabalitzen eta arakatu gabeko lurraldeetan esperimentatzen. Ibilbide horretan, Gu Ta Gutarraken osatu zuten lanik mardulena, “bertsoaren eta musikaren arteko oreka” lortuz. “Kantak baino bertso-kantak egiten genituen”, esan digu Igo-rrek, kantagintzaz eta bertsoagintzaz duen ikuspuntu propio interesgarria solasaldira ekarriz. Durangoko Plateruena kafe antzokian egin dugu hitzordua, kultur jarduera aberatsaren lekuko, toki ezin aproposagoa sorkuntza esperientziaren korapiloetan murgiltzeko.

Noiz hasi zinen hurbiltzen kantagintzara? Zein izan ziren zure lehenengo esperientziak kanten munduan?

Lehenengo, nahi eta nahi ez, zaletasuna aipatu behar dut. Bertsozale besteko kantuzale ere banintzen gaztetxotan. Kantuzaletasun hori oso berbari lotua zegoen. Ingelesa ondo jakin gabe ere, beti letrak begiratu eta gustatzen zitzaizkigun katek zer esaten zuten ulertzen saiatzen nintzen.

Gero, gurera etorrira, Leteren oso zalea nintzen, eta uste dut asko zuela bertso-laritik. Bi mundu elkarren artean oso lotuak daudenak dira bertso-laritzea eta kantagintzarena, edo nik hala bizi dut behintzat. Ibili dira beste batzuk ni baino gehiago letragintzan. Nire esperientzia gehiago egon da musikariekini batera ibiltzetik; lehenengo, Zazpi Eskalerekin; eta ondoren, Gu Ta Gutarrarekin.

“Bi mundu elkarren artean oso lotuak daudenak dira bertso-laritzea eta kantagintzarena, edo nik hala bizi dut behintzat”.

Esan liteke zuen belaunaldiak, musika estiloekin nahasketak egitean, bertso jarrien forma tradizionalekin hautsi zuela. Bazegoen abangoardia izateko nahirik zuen artean?

Bai eta ez. Neurri batean baginen kontziente hori gerta zitekeela, baina, beste aldetik, naturalki bizi genuen. Bertsoen zaletasuna bizi genuen neurri berean rock zaletasuna eta beste batzuk ere bizi genituen. Baina uste dut gehiago dela bidean topatzen dituzun lagunen eragina. Gure kasuan, musikagintzan murgiltze hori, oso lotua egon da Josu Zabalarekin.

Hasiera batean Zazpi Eskalarekin esperimentazioak egin eta gero, uste dut Gu ta Gutarraken lortu genuela bertsoaren eta musikaren arteko oreka. Bertso kantak zirela esaten genuen. Nolabait ere, bertsoa bera zainduz eta mimatuz, eta esango nuke erdigunean jarriz, horri begirako lanketa musikal bat egitea zen kontua, horregatik “bertso kantak”. Bai doinua sortzerako orduan, edo zenbat musikari behar ziren kontuan hartzerakoan, bertsoa zaindu nahi izaten genuen. Zazpi Eskalen, adibidez, pasatu egin ginen instrumentistekin, zarata larregi zegoen bertsoaren inguruan. Ondoren, oreka hori oso modu kontzientean landu genuen, baina beharrezkoa izan zen aurreko prozesu guztia.

Moldeak apurtzeari zegokionez, Josu Zabalaren nahia bazen bertsoa ahalik eta musika genero gehienetara eramatea. Hori da, agian, Zazpi Eskale: rapa, kantu poperoak, swinga, bakaladeroa... Bazegoen kontzientzia bat moldeak apurtzekoa, baina ez apurtze hutsagatik. Gehiago zen bertsoa guri gustatzen zitzaizkigun beste eremu batzuetara ere eraman zitekeela demostratzea.

Gu Ta Gutarraken oreka lortu zenutela aipatu duzu. Oreka hori lortzeko bidean, erreferentziarik bilatzen zenuten kanpoan, nazioartean?

Ez bereziki. Gustu konpartituak ziren batez ere, Hertzainaken kontzertu batzuetan bertsoan eginda geunden, Josurekin berba eginda genuen gure gustu musikalez, izan Leonard Cohen, Tom Waits edo Bob Dylan, mundu anglosaxoikoak gehienak ere. Egin genezakeenaren zumeak geure arteko afinitateak zetozen, ez kanpoko ereduak kopiatzetik. Bazeuden, noski, kanpoan ikusten genituen eta gustatzen zitzaizkigun kontuak: eszenaratze teatralizatua izatea, eskema orokorra opera-rock antzekoa izatea... Erreferentziak kontzientzia gehiagoz edo gutxiagoz hartu genituen. Cirque du soleil zer da? Bai zirku bat bada, baina munduko leku askotatik hartutako elementu eta teknikekin egina, gauza berria sortzen duena. Nik uste gureak asko zuela hortik.

Bertsoa ahalik eta genero musikal gehienetara eramateko borondate horren atzean, bazegoen gaitegi edo tematika jakin batzuk beste publiko batengana eramateko nahia, euskalduntasunaren kontzeptua zabaltzearekin lotura izan zezakeena?

Konturatzen ginen lortzen genuela, eta positiboki baloratu ere. Esan beharra

“Bertso kantak zirela esaten genuen. Nolabait ere, bertsoa bera zainduz eta mimatuz, eta esango nuke erdigunean jarriz, horri begirako lanketa musikal bat egitea zen kontua”.





dago, oso gazteak ginen Zazpi Eskaleren garaian, nik 19 urte izango nituen. Josuk esperientzia musikal potenteagoa zuen, bai musikarekiko eta bai euskal eszenarekiko. Baina ez zegoen zuk diozun moduan teorizatua. Gehiago zen Josuren buruan zegoen nahia, bertsoa edozein ildo musikaletara eraman zitekeela demostratzekoa.

Musika estilo zehatz batzuk jarraitzen zituzten euskal herritarrengana jotzea baino bertsoak berak musikalki izan ditzakeen posibilitate estetikoak zabaltzea zen helburua. Horrekin bagenekien beste jende mota batengana iritsiko ginela. Bertso tramak egiten hasi ginenean, adibidez, Josu Goikoetxea eta Jon Maiarekin, zinearen, antzerkiaren eta, oro har, literaturaren munduko beste zaletasun batzuk bertsoetara ekarri genituen. Bagenekien horrekin, agian, ohiko bertso plazetara joango ez zen jendea etor zitekeela. Trametan garbi detektatu genuen hasieratik, euskara ikasleentzat oso ate ona zela, adibidez. Hizkuntzaren munduko erreferentzia asko ez izan arren, unibertsalagoak diren generoak ekartzean, western bat, nobela beltza... oso erraz ulertzen zituzten saioak, denek baitzekiten nondik zihoan istorioa. Maizpidetik eta beste euskaltegietatik asko eskatu ziguten.

Gero, gaitegiari dagokionez, Zazpi Eskaleren kasuan, aurrez egindako proposamen batzuk ziren. Gai batzuk interesatu arren, beti behar izaten dira bultzadak. Trintxera Basauriko elkarte batek jardunaldiak egiten zituen urtero, eta lehenengo pobrezia-aren inguruan antolatuta zuten; hortik izena, Zazpi Eskale. Bigarren urtean droga izan zen gaia, eta horren barruan zer landu nahi genuen erabakitzen zen. Gaupasa drogoso bati buruzko kanta bat, adibidez. Musika bakaladeroa jarri genion, bertsoa edonora eraman daitekeelako ideiarri jarraituz.

“Bazegoen kontzientzia bat moldeak apurtzekoa, baina ez apurtze hutsagatik. Gehiago zen bertsoa guri gustatzen zitzaizkigun beste eremu batzuetara ere eraman zitekeela demostratzea”.

Bakaladeroa edo beste musika generoekin, bertsoa bera adierazpen artistiko-estetiko bezala eraldatu zenuten. Sortu zuen horrek erresistentziarik bertsogintza klasikoagoan?

Zazpi Eskaleren lehen agerraldia bertso egun batean izan zen, 96an. Baxujolea eta gitarristarekin joan ginen Unai eta biok, eta sustoa izan zen hangoa. Kontrakotasun espliziturik ez genuen topatu, baina ez da oso argia izan behar kontratazko bazegoela ondoez bat. Bageneukan apur bat abangoardia izatearen kontzientzia eta jendeak bazekien hori, baina naturalki bizi genuen, gustatzen zitzaigun egiten genuena. Ez gindoazen inoren kontra, ez eta diskurtso abangoardista zehatz bat jarraitzera ere, gustura genbiltzan egiten genuen horretan. Baten bati ez bazitzaion gustatzen, berdin zitzaigun, hori ere egia da.

Konturatzen ginen nora heltzen ginen eta nora ez. Mapa geografikoa ere egin daiteke. Arabar Errioxan emanaldia egitera heldu ginen, eta frontoian bertso saio handiak egiten diren herrietan gaztetxeetan jo genuen. Horrek eman ditzake pista batzuk harrera aldetik nola ibili ginen. Nik Gu Ta Gutarraketik daukadan satisfazio handienetako bat, Zuberoan 6-7 emanaldi egin izana da. Bertsotan, hogeitaka urtetan, ez dut hainbeste kantatu han, eta Gu Ta Guta-





rrakekin bai, epe laburrean. Bertsoaren geografia hegemonikotik aldendu ginen apur bat, bere alde ezkor eta baikorrekin. Nire ustez, baikorrak gehienak.

Kanta bat sortzerako orduan, bertsolari zaren aldetik eta zure esperientziatik, zertan esango zenuke ezberdintzen dela bertsoa sortzeko prozesua eta kanta?

Ba, asko eta ez hainbeste, esango nuke. Nahiko borroka egoten da hor musikariaren doinua eduki edo norbera hutsetik hasi. Hustasuna zaila da denontzat. Bat-batean daukagun heldulekua ere melodia bat da, pentsamendua abiatzeko beharrezkoa duguna. Niretzat errima eta metrika baino doinua da inporta duena, sonoritate bat du, erritmo bat du...

Hortik aurrera, hitzei lotuta, niri doinu bat edukitzeak asko laguntzen dit. Zehazki zer ez dakizu, baina gauzak iradokitzen ditu. Nork kantatuko duen jakiteak ere lagundu dezake. Beste batzuetan, gai bat ere izaten da. Adibidez, Gu Ta Gutarraken nahi izan genuen denbora eman geure buruari, barrutik zer irteten zen ikusteko. Hiru-lau hilabete egon ginen batzen eta berba egiten, oraindik ezer eduki gabe.

Gai zehatzak lantzeko helburuarekin?

Ez zegoen horrela planteaturik. Zazpi Eskalerena zertan hobetu zitekeen, geure momentu bitala, Euskal Herria, mundua... eta genituen kezka diferenteak. Konturatu ginen geure kezka pertsonalak, geure mundutik pentsatuak

“Bertsoaren geografia hegemonikotik aldendu ginen apur bat, bere alde ezkor eta baikorrekin. Nire ustez, baikorrak gehienak”.



zirela behin eta berriz ateratzen genituenak, hortik sortu zen izena, Gu Ta Gutarrak.

Hori guztia ondoren idazten eta orrazten hastean, garbi dago askoz ere exigenteagoa zarela bat-batean baino. Bat-batean gai zehatz bat asko landuta ere faktore asko daude kontuan hartu beharrekoak. Idatziz bekatua da bost silaba alferrik galtzen uztea.

Iruditzen zait norbera dagoen boladak ere eragin handia duela sormenean. Egon zaitezke bertsoak metaforaz eta baliabide literarioz janzteko sasoian, edo gauzak ahalik lehorren esatekoan, su artifizial ahalik gutxien ipiniz. Kontatu nahi duzunak ere pisua du. Eguneroko kontua bada, adibidez, sinpletasunetik asko esan daiteke. Goizean, pareko etxean argiak piztu direla kafea egiten ari zaren bitartean eta zain zaudela umeak noiz esnatuko, ea gauzez zenbat hazi diren ikusteko... Bere soiltasunean indar handia du horrek, adibide bat jartzeagatik.

Idazketa horrek, bat-bateko jardunerako balio dizu?

Musikarekin ibili zaren aldi horretako langintza bat-batera ekartzen saiatzen zara, noski. Beti ezin da, baina bost silaba hutsak ez botatzen ahaleginduko zara. Letrak idazterakoan bezala, bat-batean su artifizialak sartzeko garaia eduki dezakezu bat-batean ere, edo gauzak ahalik eta modu soilenean esatekoa. Metafora bat sartu behar badut, izan dadila esan nahi dudan hori esateko aurkitu dudan bide hoberena delako, eta ez metaforak egite hutsagatik.

Badakit lan hori egin izan ez banu, bat-batean ez nukeela berdin egingo, eta bat-bateko jardunari ere ez niokeela begiratuko begiratzen diodan moduan. Ondo egiten saiatzetik aparte, egiten ari zaren horren funtzioaren kontzientzia izatea bada beste kontu bat.

Kantuentzako letrak egitea, bere horretan, genero bat gehiago dela esango zenuke?

Bai, dudarik gabe, bada generoa. Bertso jarrietako moldeetatik urruntzen bada, oraindik eta gehiago. Begira poesiarekin zer gertatu den. Zenbat talde saiatu dira Euskal Herrian poesiatik tiratzen kantuak egiteko eta ez dute lortu nahi zuten emaitza? Egia da poema batzuk ezinhobe egokitzen zaizkiola kantuari, ziurrenik genero horretatik asko zeukatelako, alegia, kantatuak izan zitezkeen pieza idatziak zirelako. Hala ere, gehienak ez dira ondo geratzen. Nik uste horrek garbi erakusten duela poesia badela genero bat eta kantua beste bat, bertso jarria eta bat-batekoa ere bi diren bezala.

Esango nuke bertsoa nahastu dugula beste hainbat diziplinarekin, baina oso azalean geratu garela. Bertsoa beste diziplinen ondoan jartzera iritsi gara, baina uztartzea bestelako kontu bat da. Bat esatearren, bertsoak zer ekarri diezaioke antzerkiari? Ba, agian gehien aportatu dezakeenak ez dauka kantuarekin eta errimarekin zerikusirik. Antzerkilari batzuekin lan egin izan dugu eta ahokotasuna orokorrean interesatzen zitzaien, “esateko” testu bat eduki nahi zuten, ez paperean lo geratuko zena. Errimatua edo kantatua izatea ez zen lehentasuna. Alderantziz ere, bertsoari elementu dramatiko edo eszenografikoek lagundu badiezaioke, edo ildo horretan sakondu gura bada, beste pauso batzuk emateko garaia dela uste dut.



“Txapelketetara denak apuntatzen dira, baina badakigu bide horretatik ere frustrazioak sortzen direla. Bide egonkortuagoa da, baina beste batzuk badaude topatu beharrekoak. Aldekotasun eta kontrakotasunak erakarriko ditu, hormaren kontra jo behar da, hanka sartu...”.



Badaude konbinazio berriak bilatzen ari diren taldeak ere, hip-hopa edo kultura urbanoagoekin lotura duten estiloetan. Iruditzen zaizu bertsoak konektatu dezakeela estilo horiekin? Edo belaunaldi berriek esateko modu eta bide berriak bilatuko dituztela?

Bertsoa, bere ohiko forman, gaztetxoentzat, lantzeko merezi duen adierazpen modua dela uste dut, aberatsa eta asko eman diezaikeena. Agian derrigorrean ere ez da mantenduko, baina ez zait iruditzen zakarretara botako denik.

Kaleko kultura urbanoekin konektatzearena, geure munduan badago gaitasuna eta garatzeko arte bat, noski, lanketa eskatzen duena. Irabazi behar diren terrenoak dira. Kalera irtetea ere gogorra izan daiteke... Beste zirkuitu eta gertaleku batzuk ere bilatu daitezke, kalea ez direna izango derrigorrean, baina eraginkorrek suerta daitezkeenak. Kezkatu egiten nau horretarako gogo, indar eta egitasmorik ez dagoela ikusteak. Askok poztuko nintzateke 15-19 urte arteko gazteak ikusiko banitu, euskaraz, rap, trap edo antzeko estiloetan zerbait muntatzen. Gaitasuna eta teknika badagoela uste baitut.

Txapelketetara denak apuntatzen dira, baina badakigu bide horretatik ere frustrazioak sortzen direla. Bide egonkortuagoa da, baina beste batzuk badaude topatu beharrekoak. Aldekotasunak eta kontrakotasunak erakarriko ditu, hormaren kontra jo behar da, hanka sartu...

Zuen belaunaldia, berritasuna ekartze horretan eta bertsoa beste arte batzuekin nahastean erreferentzia da. Gaur egun ez da sumatzen gure belaunaldian abangoardia izateko gogo edo giro handirik. Zuek klima sozial eta politiko zehatz bat bizi izanak, nola eragin zuen terreno berri horiek arakatzera salto egiteko orduan?

Guk suertea eduki genuen, hori esan behar da. Lehenengoak ginen bertsolarien belaunaldi arteko hutsune bat betetzen, Bizkaian bereziki. Aurretik zeuden bertsolariekiko desberdintasun estetikoak, izandako bizipenenak edo munduari begiratzeko moduenak argiak ziren, eta gauza berriak ekar ginitzakeen. Gaur egun ere, 20 urteko gazteen eta gure artean dagoen adin dife-

1884







rentzia antzekoa da. Agian, geu ere eguneratzen joan gara, bertsoaren funtzio sozial eta artistikoaren kontzientzia izan dugu eta dedikazio, kakotx artean, profesionala izatera ere iritsi gara. Egia da, egunerokotasunean ipintzen joan garela apurka, eta berritasunekin janzten, eta gu iritsi ginenean ez zegoela halako ezer.

Belaunaldi moduan, kaletarrak ziren lehenengoak izan ginen gu. Telebista euskaraz ikusiz hazi ginen, gatazka politiko eta soziala bizi-bizirik zegoen, egunero ikusten genuen geure begien aurrean, horrek kulturalki zekarren guztiagaz. Rock erradikala, gaztetxeak... eferbeszentzia horretan ikastoletan genbiltzan belaunaldia gara. Bertsoan sartu ginenean, hortik urte gutxira, hori guztia ginen eta bertsoara eraman genuen, horrek zekarren berritasun guztiarekin. Derrigorrean bertsozaleak ez ziren tokietara eraman gintuzten: izan gaztetxe, izan aldarrikapen politikorako gune, izan euskara elkarte...

“Uste dut gaur egungo bertsolari gazteei txipa berpizteko motiboak eta heldulekuak badaudela: izan sarean esperimentatuz, kalera bajatuz...

Agian ez duzue Woodstock-ik bizi izango, baina bueno, guk geure Woodstock txikiak bizi izan genituen bezala bizi ditzakezue zuek ere”.

Euskal Herrian mugimendu oso aktiboa zegoen. Gaur egun hori askoz amatuago dago.

Bertsoen arlotik gauza asko egiteke zegoen garai bat da, irakinaldi kolektibo horrekin batera kointziditu zuena denboran, eta hor agertzeko suertea ere izan genuen. Euskal Herriko egoera soziala oso diferentea den arren, uste dut gaur egungo bertsolari gazteei txipa berpizteko motiboak eta heldulekuak badaudela: izan sarean esperimintatuz, kalera bajatuz... Agian ez duzue Woodstock-ik bizi izango, baina bueno, guk geure Woodstock txikiak bizi izan genituen bezala bizi ditzakezue zuek ere.



MADDALEN ARZALLUS

“Kantatzea bera oso gustuko dut eta izan dut beti. Ez dago momenturik, bakarrik nagoenetan, buruan kanturen bat bueltaka ez dabilkidanik”


Azken boladan, irratian *Gaztean* eta telebistan *Gure Kasa* saioan, ekarpen musikatuak egiten ikusi dugu Maddalen Arzallus (Hendaia, Lapurdi, 1990). Izan modako melodiei letrak jarritz edo euskal kantagintza klasikoagoko bertsoak eginez, hitza eta musikaren arteko uztarketa eguneroko langintza du Maddalenek. Nazioarteko inprobisatzaileen biraren erdian tartetxo bat egin digu. Goizeko kafearen bueltan, kantagintzaz, gazteez, edo bertsolaritzak har ditzakeen forma berriez aritu gara.

[Zein da kantagintzarekin duzun harremana?](#)

Ni hendaiarra izanik, Iparralde osoan dagoen kantatzeko joera horrek eragin nabarmena izan zuen nigan. Hendaian bi familia mota daude; batzuek Hegoaldera asko jotzen dute eta beste batzuek Iparraldean egiten dute bizitza. Gure familia, agian, bigarren multzo horretakoa izan da, nahiz eta Hegoaldera joan Iparraldean bizitza dexente egin duena. Ohitura dago, edozein herritako festetan edo ospakizunetan, bazkaldu eta kantatzekoa. Ni txiki-txikitatik ohitua egon naiz horretara.

Anekdotak bezala, gogoan daukat ume ginela nire ahizpak trikitia jotzen zenean kantatzeko eskatzen zidala. Agian hor izan nuen lehendabiziko harre-

“Letrari garrantzi handia ematen diot. Melodia oso ona izanda ere, letra eskasa baldin badu, baztertu egiten dut kantua”.



mana. Asko lagundu zidan goiko eta beheko ahotsak bilatzen eta kantuari gustua hartzen. Gero ere esan beharra dut solfeo ikasketak egin nituela konserbatorioan. Nire bizitzako lau urte gogorrenak izan ziren.

Ume garaia pasata, edozein kantatuzaleren harremana izan da eduki dudana. Kantatzea bera oso gustuko dut eta izan dut beti. Ez dago momenturik, bakarrik nagoenetan, buruan kanturen bat bueltaka ez dabilkidanik. Kotxean, paseoan... edozein lekutan, ahots goran ez bada ere, beti dut kantua presente.

Kantu sorkuntzak bi zati elkarren oso desberdinak ditu, musika eta hitzak. Zu bertsolaria izanda, nola bizi duzu kanta bat sortzeko prozesua?

Egia da kanta baten letra idaztean beti daukazula askatasun gehiago. Bertsoa asko maite eta bizi dudan arren, badauka metrika zurrun hori, egitura jakina-

“Letrak jartzen ditudan momentuan, gai sozial bat hartzen dut eta horren inguruan pentsatzen dihardut. Ideiak sortzen, gai horri esaldiak jartzen... Horrek denak balio du bertsotarako, noski”.

rekin edozein doinutan dela ere. Kantuan, aldiz, nahi duzuna egin dezakezu. Nahi duzun melodia sortu eta, hortik abiatuz, egitura nahierara osa dezakezu: errimak iruditzen zaizun lekuan sartuz, edo errimarik ez sartuz ere.

Esan duzun bezala, kanta bi zati izaten ditu, musika eta letra. Badago jendea letrari erreparatzen ez diona eta musikan zentratzen dena. Nire kasua ez da hori. Agian bertsoan aritzen naizelako-edo izango da, baina letrari garrantzi handia ematen diot. Melodia oso ona izanda ere, letra eskasa baldin badu, baztertu egiten dut kantua. Arreta handia jartzen diot letrari.

Musika eta hitzak batera egonik, iruditzen zaizu kantaren bidez bertsoak baino esan-ingar handiagoa lor daitekeela? Errazagoa da kantaren bidez jendearengana iristea, bertsoen bidez baino?

Ez, ez nuke esango. Are, uste dut bertsoak bere soiltasunean ingar gehiago eduki dezakeela. Bertsoa momentuko zerbait izanik testuinguru horretan ulertu behar dugu. Kanta, aldiz, atemporalagoa da, nahiz eta gero modaz pasatu. Kanta batentzako hitzak pentsatzen direnean, edozein unetan eta edozein lekutan kantatua izateko pentsatzen da: kotxean, mendian, dutxan goizez, arratsaldez edo gauzez... Ez dauka bertsoaren une eta leku jakineko izaera hori.

Zuk kanta batentzako hitzak idaztean, beraz, kontuan izaten duzu atemporaltasun hori?

Gaur egun, adibidez, *Gaztean* aritzen naiz kantentzako letrak idazten. Normalean aktualitateko gai bati buruz egiten dut. Orduan, esango dugu ez dela hain atemporal, momentuan puri-purian dagoen gai bati kantatzen baitiot. Ez zait iruditzen, hala ere, bertsoak baino irismen ingar handiagoa duenik. Gehiago esango dut, momentuan bertsoa indartsuagoa dela eta aurrean dagoen entzulearengan eragin handiagoa lor dezakeela uste dut, kanta batek lor dezakeenarekin alderatuz.

Hala ere, normalean kanta izaten dira herri iruditerian geratzen zaizkigunak, bertsoak ez horrenbeste.

Bai, bertsoa momenturako eta sortua dagoen egoera jakin horretarako sortzen baitu bertsolariak. Une horri balio dio. Kanta, aldiz, beste modu batean pentsatuak daudenez, normalagoa da denboran zehar gehiago irautea.

Aktualitateko gaiak lantzen dituzu irratan, ezagunak diren edo modan dauden kantuen melodia hartu eta gai sozial edo politiko baten inguruko hitzak lotzen dizkiozu. Zer dela eta egiten duzu nahasketa hori?

Alde batetik, esan behar dut, niri kantua bera asko gustatzen zaidala, eta euskal kantagintzaren inguruko jakintza dexentea daukadala. Hala ere, ez naiz gauzak memorian gordetzekoa, ez izenak, ez taldeen izenak... Nahiko

memoria txarra daukat, alde horretatik. Esango nuke nazioarteko kantagintzan edo historikoan ez daukadala horrenbesteko jakintzarik.

Bestetik, Euskadi Gaztea da. Badakigu irrati kate horren helburua izan daitekeen perfila nolakoa den. Beraz, pixka bat egokitzen naiz irratia ren egiteko modu horretara.

Iruditzen zaizu era horretan mezu zehatz batzuk hel daitezkeela jende mota batengana, bertsoen edo bestelako moduen bidez helduko ez direnak?

Egia esan, ez dut horretan pentsatu, baina esango nuke baietz. Badago jende asko ia bertsoerik entzun ez duena bere bizitza guztian, baina Euskadi Gaztea entzuten duena. Horiengana ere iritsi beharko da, ez? Ni ez naiz dantzari hasiko, ez naiz *Dantz&Gora* joango, baina kantei letrak jar diezazkieket.

Gaiari dagokionean, enkarguz etortzen zaizkizu eskaerak edo zuk erabakitzen duzu zeri kantatu nahi diozun?

Zentzu horretan guztiz libre uzten naute, bai kanta, bai gaia... Programako kide bati esaten diot, bezperan, zer melodia aukeratu dudana, baina besteek ez dute ezer jakiten. Astero egin beharra daukadanez, exigentea ere bada, etengabe bilatzen aritzea eskatzen baitu, zer doinu, zer gai, zer hitz...

Egoten dira letra batzuk dagoeneko doinua emanda eta, enkarguz, gai zehatz bati idazteko eskatzen dizutenak. Zure kasuan, zer zaizu sortzeko errazago, enkarguz datozenak edo sorkuntza librekoak?

Egia da enkarguz datorrenean errazagoa dela, ez duzulako pentsatu behar zeri kantatu behar diozun, ezta zein melodiaren barruan ere. Gehienetan, sorkuntza baten parterik zailena hori izaten da, lan pisutsuena hor dago. Agian, zeri kantatu ez dakienak ez du kantatu behar... Ni ideiak bilatzen saiatzen naiz, eta, normalean, etortzen zaizkit; onagoak edo txarragoak, baina izaten ditut.

Izaten dituzun ideia horiek, kantetako letretan erabilitako hitz, esaldi, errimek... nola lagundu dezakete ondoren bertsoak kantatzeko orduan? Doinu berriak ekartzen, gauzak esateko beste modu bat bilatzen...

Nire iritziz, bi modutan lagundu dezake. Lehendabizikoa da burua aktibo daukazula, eta bertsoerik ibiltzeko erabiltzen dugun muskulua da. Besoak gimnasia behar duen bezala, garunak ere behar du. Berdin dio kantu bat buruz ikasten ibili, letrak egin edo hiztegia irakurri eta hitzak buruz ikasi... Buruari denak balio dio biziago mantentzeko eta lo ez edukitzeko. Hortaz, astero-astero kantak egiten aritzeak bai, balio dit burua esna edukitzeko.

Bestalde, letrak jartzen ditudan momentuan, gai sozial bat hartzen dut eta horren inguruan pentsatzen dihardut. Ideiak sortzen, gai horri esaldiak jar-

“Kontziente izan behar dugu bertsolaritzak, gaur egun, gizartean baduela pisu bat, baina historian gauzak hasi eta bukatu egiten direla. Eta orain loraldian egonagatik etorkizunean beste forma batzuk har ditzake”.

tzen... Horrek denak balio du bertsotarako, noski. Inprobisatu egiten den arren almagazean gordeta dauzkazu ideiak eta esaldiak, eta hitzez hitz errepikatuko ez dudan arren, zerbait buruz pentsatu eta hausnartu baduzu, eta gai hori jartzen badizute plazan, garbi dago errazagoa egingo zaizula.

Doinuari edo melodiari dagokionez, oraindik ez zait gertatu aukeratu ditudan kantekin bertsotara egokitutako doinu bat ekarri izana, baina seguru badagoela baten bat eta noizbait ekarriko dugula.

Estiloekin jolasean ibiltzen zaren neurrian, uste duzu bertsolariak bertsoaren oinarritik abiatuta jar ditzakeen hitzak hobeto egokitzen direla musika estilo batzuetara besteetara baino? Edo zuri zein iruditzen zaizkizu egokienak?

Dudarik gabe rap-arekin lotura handia dauka bertsoak. Ikusi da Odei Barroso, Viñaspre eta beste batzuekin bertsolaria izan daitekeela raperoa. Agian, ber-









tsoa bere zurruntasunean hartuta, bai egokitzen da errazago beste herrialde-
etako kantu tradizionaletara: kantu irlandarrak, countrya... Bertsoa horietara
egokitu daiteke ia egokitu beharrik gabe.

Beste kantugintzetara zabaltzen bagara, malgutasun gehiago eduki behar
da, eta bertsoetik gehiago urrunduko gara. Bertsoa ez da 7-6 edo 10-8
bakarrik, bere errimak eta metrika aldakorrek dauzka, eta denetara egokitu
daiteke, ezaugarri horiek bai behintzat.

**Bertsogintza eta kantagintzaren gaur egungo harremanaren inguruan,
hasieran bertso jarrien moldetik sortzen ziren arren kantak, belaunaldi
berriak konbinazio berriak bilatzen ari dira: Bi-zio, Bi Bala... Iruditzen
zaizu, oro har, badagoela bulkada berri bat bertsogintza beste estilo ba-
tzuekin nahasteko eta lurralde berriak arakatzeko?**

Epe ertainera begira, uste dut bertsolaritzak berean mantentzen jarraituko
duela. Ez dut ikusten, bertsolarion aldetik, bertsolaritza aldatzeko gogorik
edo beharrik. Hori bai, bertsolaritza bere horretan gordeta, paraleloki proba-
tzeko gogoia, bai, nabari dut. BertsoJazz-arekin izan zen bere garaian, aipatu

**“Kanpotik datozenek erakusten digute beste herrialdeetan kantu
inprobisatua beste era batean garatu dela”.**

dituzun musika talde berri horiekin, dantza, margoketa... Molde askorekin nahastuta egiten da.

Kontziente izan behar dugu bertsoaritzak, gaur egun, gizartean baduela pisu bat, baina historian gauzak hasi eta bukatu egiten direla. Eta orain loraldian egonagatik etorkizunean beste forma batzuk har ditzake. Nik uste, iritsiko dela bertsoaritzza moldatzeko beharra.

Zer itxura har dezakeela esango zenuke? Genero berriak sor daitezkeela uste duzu, musika estiloekin nahastuta?

Bai genero berriak izan daitezke, musikak lagunduak. Atzerriko inprobisatzaileak egon dira emanaldiak egiten egunotan Euskal Herrian, eta guztiek kantatzen dute musikarekin. Bakarrenetakoak gara ahots hutsarekin kantatzen dugunak. Badaude gurean ere *Ez da kasualitatea* eta era horretako saioak musikatuak direnak.

Bertsoaren generoa mantenduko den arren, bai, uste dut sortzen ari diren nahasketa eta esperimazio berri horiek geroz eta leku gehiago izango dutela, zeren berria berria ere ez da. Guretzat da berria. Kanpotik datozenek erakusten digute beste herrialdeetan kantu inprobisatua beste era batean garatu dela. Gurean ere gerta daiteke hori. •



URKABERAKO KANTAK DIRELA ETA JEAN ETCHEPARE DONAPALEU- KOAREN KONPLAINTAK 1873-1890¹



TESTUA: PATRI URKIZU
ARGAZKIAK: GIPUZKOA KULTURA, ZUMALAKARREGI MUSEOA,
PAYS BASQUE 1900

CESARE BECCARIA MILANGO MARKES ILUMINISTAK IDATZITAKO *DEI DELITTI E DELLE PENE* (1764) LIBURU TTIPIAK EUROPA OSOAN ARRAKASTA HANDIA LORTU ZUEN, ETA BATEZ ERE FRANTZIAN ILUSTRATU ETA ENTZIKLOPEDISTEN ARTEAN. Heriotza zigorrak gizarte arazoak konpondu beharrean okertu egiten zituela, zioen. Gainera, bizitza eta heriotza Jainkoaren dohainak zirenez, zein eskubidez gizonak ausartzen ziren sartzera beren alorrek ez ziren egitekoetan?

Ia mende bat iragan zen Victor Hugok bere aldetik sorkuntza eta bestelako obretan lekukoa hartu arte, bereziki *Kondenatu baten Azken Eguna* eleberritxoan². Parlamentuan ere saiatu zen hitz sutsuz politikariak bere ideietara erakartzen, baina, tamalez, frantses gizarteak kasu egin arte urte anitz igaro behar izan ziren, heriotza zigorraren deuseztatze osoa Robert Badinter-en eskutik 1981eko urrilaren 9an lortu baitzen. Hiru urte lehenago Espainian onartu 1978ko Konstituzioak hamabosgarren artikuluan honakoa zioen: *Queda abolida la pena de muerte, salvo lo que puedan disponer las leyes penales militares para tiempos de guerra*. Halaber salbuespen hori ere *Código Penal Militar*-etik 1995eko azaroaren 17an kendu eta ezabatu zuten.

Beraz, ikusten da Beccaria eta Hugo aitzindariak izan zirela, gizarte justuago baten borrokalari eta ameslari. Aitzindari. Haien ondorengo gizakien krimen eta zigor hunkigarrien zerrenda luzea eta ia etengabea izan da, eta tamalez, oraindik egun ere, zenbait herrialdetan zigor gorenak tinko eta bidegabeki dirau.

Zer diren konplaintak

COMPLAINTE, *nigar-kantu*; chant funèbre, *hil-eresi*. Honelaxeko ordainak ematen dizkigu André Tournier eta Pierre Lafitteren artean burutu frantses-euskara hiztegiak³. *Orotariko Euskal Hiztegiak* ez dakarren arren *konplainta* hitza jasorik, aurkezten dugun koplariak, alegia, Jean Etcheparek 1873an jadanik badarabilenez, ez dugu baztertuko.

Heriotzak eta literaturak, gauza ezaguna da, harreman zuzenak izan dituzte mendeetan zehar. Joseph Le Floch-ek⁴ dioskunez mendebaldeko hirietako kaleetan zehar eta plazetan kantari ibiltzen ohi ziren bertso saltzaileak Erdi Aroko juglar berriemaileen ondorengotzat har ditzakegu. Eta kantatzearekin batera saltzen zituzten bertso-paperak era orotarikoak izan zitezkeen: gerra kantak, amodiozkoak, kantikak, noelak, santuen bizitzak, irri eta ziri egitekoak, urkamendi eta gillotinako istorioak kontatzen zituztenak...



Patakonen inguruko ilustrazioa.



Eskuinean Nikolas Ormaetxea, Orixen.

Azken horietan arreta pixka bat paratuz ohartuko gara jada XI. mendean *Codex Calixtinus*-ean aipatzen zaigula *Urkatuaren Miraria*, zeina XIII. mendean Alfonso X.a jakitunak bere *Cantigas a Nuestra Señora* liburu ospetsuan jadanik jasotzen duen. XV. mendeko bukaeran moldatu zituela François Villon poetak bere *épitaphe* edo *ballade des pendus* ospetsuak eta XVI. mendean, 1587an hain zuzen, Maria Stuart hil zutenean, historialariak dioenez Parise beterik zegoela gertakizun triste hari buruzko bertso-paperez, *pasquils* [*complaints*], *placcards*, *tombeaux* et *discours sur cette morte violent*...

Airean zebiltzan bertso-paperak zirela-eta frantsesek izen hori emango diete, hain zuzen: *feuilles volantes*... Espainian hedatu ohi zirenei *pliegos de cordel* deitzen zitzairen, eta jada XVI. mendean geroztik hilketak eta gertaera odoltsuak

Bertso saltzaileak erdi aroko juglar berriemaileen ondorengotzat har ditzakegu.

kontatzen zituztenak ere ez ziren gutxi⁵. XVIII. mendean Louis-Sébastien Mercier-ek, Pariseko kronista ospetsu batek, kale kantariei buruzko honako irudia utziko digu: *Un parricide, un empoisonneur, un assassin, le lendemain, que dis-je, dès le jour même de leur supplice, enfantent des complaints qui ont chantées dans tous les carrefours et composées par les chanteurs du Pont-Neuf*.⁶ Alegia, gurasoen hiltzaile baten, pozoitzale baten eta asesino baten hilketaren biharamunean edo egun berean hasiak zirela plaza eta izkina orotan Pont-Neuf-eko kantariak moldaturiko konplaintak saltzen eta kantatzen. Euskal Herrian ere ez ziren ezezagunak horrelako kantak, horixe baitio Francisque Michelek bederen, *comme ailleurs, les complaints composées dans le Pays Basque à l'occasion de crimes célèbres et du supplice de leurs auteurs sont en grand nombre*⁷, hots, ugariak zirela gurean ere hilketen ondoren urkamendiko edo gillotinako zigorraren okasiorako moldatzen ohi ziren bertsoak eta kantak. Horixe dio 1857an Michelek, baina tamalez ez dira asko iritsi zaizkigunak, prestatu berri dugun *Urkamendiko baladak* deitu edizio argitaragabe batean soilik 40 bildu ahal izan baititugu, arruntak ziren bertso haietarik.

Nor den Jean Etchepare

Hemen aurkeztuko dugun Jean Etchepare donapaleutar bertsogilearen kantu berrien multzoa ildo beretik doa. Baina nor da Jean Etchepare delako hori? Xabier Kaltzakortak⁸ Jon Bilbaoren *Bibliografia* aipatu ondoren, bere artikulua amaieran honako bertsoak ematen dizkigu: DOGA BURU-PIKATÇALIAREN CANTU BERRIAC; CANTU DOLOROSAC 1888an emanac AINGE-RUEKIN DAGO; eta CANTU BERRIAC 1888an emanac CRIMA LAZGARRIA.

Jean Etchepare anitz bada euskal literaturan, bederen hiru ezagunak: apaiza⁹, medikua eta saiogilea (1877-1935), zeinen obrari buruz Jon Casenavek tesi eder bat borobildu zuen¹⁰, eta gazterik hil zen ipuin idazlea (1937-1961)¹¹. Eta hemen aurkezten duguna laugarren idazlea litzateke.

Donapaleuko Udalaren agiri-liburuetan arakatzen aritu naiz, eta XIX. mendeko hiru Jean Etchepare ezberdin ateratzen zaizkit. Zein ote da bertsogilea? Bada bat 1852ko urtean klasatuak direnen artean, eta hogeiren bat urte izango zituena, baina 1832ko jaiotze-agirietan ez zaiguna agertzen. Eta beranduago jaiotako beste bi Jean Etchepare ere bai. Bat 1846ko maiatzaren 30ean jaioa, Catherine Etchepare 22 urteko neskaren semea, aita ezezaguna duena, eta bestea 1847ko urtarrilaren 14an jaioa, aita-ama ezagunetarik. Azken horren gurasoak Pierre Etchepare eta Marie Etchechoury dira.

Aitak, beste askok bezala, Ameriketako bidea hartu zuen, Argentinakoa hain zuzen, eta Montserratren hil zen, Buenos Aireseko probintzian. Jean Etchepare semea 1870eko urtarrilaren 17an ezkondu zen Marie Lataillade Donapaleun



(1844-III-7) jaioa eta bera baino bi urte helduagoa zen andereñoarekin.

Kontuak ateratzen baldin baditugu, hori Jean Etchepare koplaria balitz, 1847an Donapaleuko Murru etxean jaiotako primua, 1870ean Marie Latailladekin ezkondua, eta Baionako hiriko heriotza agirietan ere Jean Etchepare bat ageri zaigunez 1898an hila, bera litzateke agian. Litekeena. Kanta batean dioenari jarraitzen badiogu *Gu Ameriketean soldado ihesi* Ameriketean ere egona litzateke soldaduskari ihes eginez, baina ez dirudi oso oroitzapen onik ekartzen zionik bidaia horrek. Aita hilaren, Pierre balitz, gorabeherak jakitera joana ote?

Pasaiaiko Udaletxeko agirietan¹² bada 1854an CHARLEMAGNE itsasontzia Montevideorako hartu zuteen errolda, eta hemen 473 pasaia-rien artean ageri zaizkigu bi Jean Etchepare. Bat lukutzarra eta 17 urtekoa; eta bestea baigorriarra eta 23 urtekoa bere anaiarekin doana, hirurak laborariak. Ez dirudi, beraz, gure Jean Etchepare, koplari donapaleutarra, baigorriar hori izan daitekeenik, izen bera eraman arren.

Bestalde, 47an jaioa *maçon* bezala agertzen zaigu, alegia *hargin*, eta Jean Etchepare bertsogileak sinatzen duen arabera, *ancien boulanger*, ofizioz lehenik okin izan zen, beraz agian ez litzateke koplagilea bera, ez bazen bi ofizio horietan aritua bederen. Ikerketa, noski irekirik dago. Geroago bertsotan ageri dena honakoa da: 1876 [...]. *Etchepare, Jean. Rédacteur*. Zein dira beraz, erredaktore horren lanak? Garbi dagoena da bertso-paperean jabego kontzientzia oso garbia zeukala, eta hori azpimarratzen du behin eta berriro bertsoen bukaeretan modu zehatzez: *Propriété réservée de Jean Etchepare. [...] Tout contrefacteur ou colporteur sera poursuivi selon la rigueur des lois. [...] "vendu par les époux Etchepare"*. Alegia, bere jabego erreserbatua zirela bertso-paper haiek eta kopiatzen zituenari legearen zigor astuna gainean eroriko zitzaiola. Eta salmentan laguntzen zion emaztea Marie Lataillade ote? Agian.

Ugariak zirela ere gurean hilketen ondoren urkamendiko edo gilotinako zigorraren okasiorako moldatzen ohi ziren bertsoak eta kantak.



Jean Etchepare koplariaren konplaintak

Hona ondoren zerrenda, Jon Bilbaoren bibliografiatik eta Pariseko Liburutegi Nazionaletik harturik. Ematen ditugun urteak ez dira halabarrez gertakizun tristearen urtea, saiatu baikara gaiei buruz mintzatzerakoan zertzelada horiek argitzen, bertso-paperaren urtearena baizik:

1. 1873 *Complainta dolorosac Marseillaco Probenzian hamalau brigant italianouec egin dusten hamar Assassinamendu Crudelen gainian 1873an emanac*¹³.
2. 1876 226 *Passajers ithoric*¹⁴.
3. 1876 *Inondacione berrien gainian çombeit berçu berri guciec cantatceco emanac*¹⁵
4. 1876 *La Tombelle jaun baroina-*

*ren asasinamenduaren gainian*¹⁶.

5. 1876 *Accione crudelen gaineco, complainta dolorosac 1876an emanac*¹⁷.
6. 1882 *Marseillan içan den assassinamendu baten gainian cantu berriac*¹⁸.
7. 1882 *Cantu berriac hamalau briganten eta hamaçaspi assassinamenduen gainian emanac*¹⁹.
8. 1888 *Cantu dolorosac 1888an emanac. Aingeruekin dago!*²⁰.
9. 1888 *Cantu berriac 1888an emanac. Crima lazgarria!*²¹.
10. 1889 *Apez pozoindatzalea.*²².
11. 1889 *Botikario muthilaren asasinatzea*²³.
12. 1889 *Aguer-Mizpirateguiren krima*²⁴.
13. 1889 *Doga buru picatçailiaren cantu berriac*²⁵

Gehiago idatzi ote zituen Jean Etchepare donapaleutarrak? Dударик gabe, bai, beraxek esaten baitigu *Briganten jauregia*... titulua daraman bertsoaren amaieran honakoa: ... *Complainte sur le rapt de 18 jeunes filles. Parisen laü urtheco haur bat içan da berrogoi eta hirur pusketan eçarriric. Courier bat assassinaturik. Eman dugu heyen cantuac, cembeit egunen burian AS-*

AGUER-MIZPIRATEGUIN

CANTU BERRIAC

Airla : Ponadut eta a dolora

1^o COEPLAZ
Guizon gazte crimineel bat bekakalduna
Aiharrazteco ordolan egon dena,
Aguer-Mizpirateguy, baita las, izena,
Cantus explicatu nahit duet haren crima.

2^o COEPLAZ
Hogoi eta bederasti, urthe dita,
Lioq Añhereyco herrian, baitaco sortua,
Anac zueo hamreite gazte gobernatu
Hogoi urthe bethe arto monacala.

3^o COEPLAZ
Chorbia thiratu, eta soldado cen
Haren cherbaitacoa gaitu colomaten :
Fractioaco handera, gaitu obraticeo
Askotan hola ikhositin da, anac galteen.

4^o COEPLAZ
Bordeleco hirian cen Aguer sartu
Andere, gazte batokin atakidetu
Behar dorela elgerrakia espositin
Julietec bere boras conditatu.

5^o COEPLAZ
Juliet gaichua hil du trompatoric
Buru gozka bat rakitan ikhomeri
Promenatcevat ereman du bakaldarie,
Molisa har eta lan utzi du guero hilitic.

6^o COEPLAZ
Emazte-gai, gaichua guero inganatu.
Leku ihilan botatara ereman du
Sei ukhaldeco pichioletar porrokatu,
Arnoldi baten iratsian guero egarri du.

7^o COEPLAZ
Leku guetean kurti yun factura,
Habe hitomani ipan du gorpaita hura.
Cec horetse lagaxia / Cec maitera II
Madera barten fondatua creatura.

8^o COEPLAZ
Espainialat nahit cen, Aguer sartu
Oihaneg oihan goberlea eskapatu
Hamar egun triditice gaitu, lan pasatu
Erit baltaco, baitaco arrotzatu.

9^o COEPLAZ
Hamar yandarmu brigada oihanian,
Aguer hitomani baitute saac-pian
Chakhar baitoe atheratu du sinicinan,
Ekhaitzen hura egotia cen lokian.

10^o COEPLAZ
Languisec hamasturic yandarmekin
Haren onditic gabiltzen, fustekin
Bi tiro eman deraitzote beldorakin,
Bai eta guero amarratu burdinkin.

11^o COEPLAZ
Bordeleco asietan da yuyatu,
Tuyo guetice bilizetate condematu,
Carnot, presidentice guero du graitatu
Guillomac etanen nahit cherbaitacoa.

12^o COEPLAZ
Galeratan eman dute acualaco
Buro crima laz gurtiaz orbotzeco,
Exemple handia huri da gaiten dano
Crimitatice nola dituzte tratatario.

J. ETCHEPARE.

AGUERREN CRIMAREN

ESPLICACIONIAC

Aguer-Mizpirateguy, sortlan cen, Aiherrata
en eta à Naulen arriaco, Lioq Añhereyco herrian
Gaitore ipan cen bere amac gazte gobernatu-
rie. Oroc badakitice aguerren hicia bogoi urthe-
taraino.

Chorbia thiratu eta partitu cen soldado. Eguin
du bere cherbaiticoa falditatu eta onakera
handerkin. Cherbaiticoa finitu ondutan, yiten
da Maulerat; hainan anac, cen berece miac
arha gaiti herta.

Aguer batus Bordeleco hirirat. Han egon da
zaper papier begala, eta guero ehai baitan,
mutili, Toki guetean, Aguer comportatu da
oneki.

Baleraki horetzat egun zueo Julietic An-
drieuren egutza.

Neska gaicho huri ezarri zueo esperantico-
tan, eta hitz onditin dicit emazte-gaiterico espo-
sicioaco. Gaichuac ukhan du, Aguer-bailian

conditicehita, eta erien dicit bezuela zazpi chun-
libera.

Igande egun baita bakarkitico dicit elgerrakin,
eta Aguerren eremaden du Julietic promenada
baten eguitere, eta han du sei ukhaldeco pich-
iolet batokin hitzen, eta haren ihasla bolboraz
porrokatu eta serola baltetari lotzen.

Biharmanian tectar baitoe hitomani du
Julietico gorpaita. Aguer eskapatice da bere
natez Espainialat, Hamar egunec egon du Lan
deco sobanatan guetice, kase batus gurtzen
eta goita trupu, yandarmac eta laboratoriac
ezten onditic chakhar baitoe du hitzemari.

Bordeleco asietan dicit hitzariac Condematu
Carnot, gure Presidentice, granaturic bogoi da
acualaco galieratari.

Hogoi eta bederasti iribitan pasatu, behar
du bere ihasa burmatan cen exemple !!!

Fols, impr. GADRAT Abat.

EUKKADI

56

BOLETIN INFORMATIVO DEL PARTIDO NACIONALISTA VASCO

Donibone: homenie a Rezolu

CAINECOAC ERE. Eta, beraz, badago ikerketa lana oraindik. Aurkitu ahal izan ditugunak hamahiru dira eta, honela, Kaltzakortak bildu hiru kantei beste hamar erantsi ahal izan dizkiegu, aski interesgarriak direnak gure ustez, eta ondoren aztertu eta emango ditugunak.

Konplainten gaiak

Bi motatako gaiak ditu tratatzen Etcheparek bere kantuetan: krimenak eta zorigaitz naturalak, hala nola itsasontzien ondoratzeak eta uholdeak. Azken horiek aurkezten hasiko gara lehenik. Esan bezala, badira bi kantu ezberdin naturak eragin zorigaitzen gainean, hau da, bat 1873an gertatu *Ville du Havre*ren hondoratzea kontatzen diguna, lainoek eragina, non *226 pasajers*

[Etcheparek] Bertso-paperean jabeago kontzientzia oso garbia zeukala, eta hori azpimarratzen du behin eta berriro.

Apaz pozoindatzailea.

APHEZ POZOINDATZALEA

APHEZ POZOINDATZALEA

CANTU BERRIAC

Perginoco ondauz hogoi eta zortzi artheco Apaz Bulec hi ahizpa
Machardin pozoindataric.

Aizic: Nahi gabe ondu da munduan gorthasen.

<p>1. Espadatoa berria hori bat Perginoc Nah eguztu katu dute ezina berria Aizicoz eguztu ezin adieru 2. Ahizpa ezan da biazat puzat</p> <p>3. Apaz arropatu bat dute onduen ezin gaitu eta biazatuz biazatuz Bere danduz quon hax biazat biazat Biazatuz biazatuz ezin onduen</p>	<p>4. Apaz arropatu ezin onduen Biazatuz ezin onduen ezin onduen Cuz biazatuz ezin onduen ezin onduen Biazatuz ezin onduen ezin onduen</p> <p>5. Biazatuz ezin onduen ezin onduen Biazatuz ezin onduen ezin onduen Biazatuz ezin onduen ezin onduen Biazatuz ezin onduen ezin onduen</p>
--	--

BIGARREN SUYETA

Pariseren eta Versailles artian Botikio nuzil bat asustinaric.

Aizic: Aizic ondu ezin onduen ezin onduen.

<p>1. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p> <p>2. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p> <p>3. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p> <p>4. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p> <p>5. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p>	<p>6. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p> <p>7. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p> <p>8. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p> <p>9. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p> <p>10. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p> <p>11. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p> <p>12. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p> <p>13. Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen Ezin onduen ezin onduen ezin onduen</p>
---	---

Manoeh ETCHEPARE.

ithorik bukatu zituzten beren egunak, eta bestea 1875eko *inondazioneak*, uholde izugarriak aipatzen dituen.

Dena den, hilketa bortitzak, asasinamenduak izanen dira bildu ahal izan dugu euskarazko corpuseko kantu gehienak, hots, hamahirutik hamaika. Eta zergatik hori? Aipatu dugu sarreran jenero beltz horren, edo urkamendiko bertsoen eta istorioen arrakasta handia dela medio, mende anitzetan zehar eta batipat XIX. mendeko bigarren partean. Etcheparek berak ere, besteak beste, frantses *complainte* baten aitzin solasean dioen bezala: [...] *A toutes les époques de la vie on a dû enregistrer les actes célèbres et criminelles [...], les Mandrin, les Latour, les Troppmann à comparer aux deux scélerats, dont aujourd'hui nous faisons le sujet de notre narration?*²⁶

CANTU BERRIAC EMANAC

1888 AN

GRIMA LAZGARRIA!

Laü Punduco Aïrian

1. Nahi gabe ahalte da, iritien munduan
Sajot hazi gurehata da, Lardero eaduan
Guzentzat ikhian, ahazte gurean
Combit behar da nahi, behi fôrman.

2. Sushar Emaste laira, eiren elgaradin,
Erdian hazi eiren, heren hazi heredin.
Hiru Nekakha eta, Mutilo lauzin,
Maleruzki gurehata, dira anezkin.

3. Ahalazte etenen, ama heren anezte,
Eta anezteat, dena herenatete
Ahar oquarite, eronheko hite,
Diferentia horrek, ehar dia caite.

4. Egun oroz çalikan, aita her lanian,
Haze galkhate utzite, anezte aldian,
Ei ahazte gurean, hazi eiren ahazte,
Ahozera bat haurte, chetate oridan!

5. Hiru gurean auzte, haurtean panchera
Nenezte bat egun da, yuziteko haurte.
Aita heretate da, anezte ehar.
Eharre lhenada dace, anezte ahozera.

6. Ahozera eadite da, eadite haurte,
Hiru gurean haurte, haurte aldian,
Ahozte euren eta hazi, eharre yite,
Haurte hazi behar euren, aha Marie!

7. Eadite sei eta, ahozte eharre,
Ei anezte galkhate, anezte hazi!
Ondin hazi dia, anezte anezte!!
Ahozte yite haurte, anezte haurte.

8. Çahazte euren dace, anezte haurte
Ei anezte aita, anezte haurte:
Anezte haurte, anezte haurte
Ahozte haurte haurte, anezte haurte.

9. Pura euren euren, ama euren,
Galkhate euren, haurte haurte
Ei eta euren, galkhate haurte
Haurte anezte, ei dia haurte.

10. Çahazte euren, anezte galkhate,
Ei euren haurte, anezte haurte,
Haurte anezte euren, haurte anezte,
Ei dia haurte haurte, ei euren haurte.

11. Yuzite irra dace, haurte anezte
Ei gure euren, eadite haurte
Liridite irra dace, anezte anezte
Nahi haurte haurte, gure euren.

12. Ahozte euren yite, anezte galkhate
Haurte haurte, anezte haurte
Ehar euren euren, anezte euren,
Eharre yite eta, eadite da hazi!!!

Josep Etchepare.



Vincent Elichabide (1840).

Mota horretako pertsonaiak aipatzen ditu Pio Barojak²⁷ ere, horrelako istorio izugarrien oso zalea baitzen, Parisen funtzionatu zuen gillotinez mintzatean artikulua batean. Hiltzaile mota ezberdinak dira, dena dela, ageri direnak kantu horietan. Isabel Segurak gaztelaniaz *Romances Horrosos*²⁸ izenpean aurkeztu zuen bilduman honela sailkatu zituen zergatikakoak: a) Lapurretak, b) Pasioak eraginak, c) Perbertsioarenak, eta d) Politikazkoak.

Julio Caro Barojak badu bere aldetik entsegu gogoangarri bat²⁹ gaiarekin lotua, eta bilduma bat *Romances de ciego* izenpean³⁰. Titulu horren arrazoia da Espainian erromantzeak eta liburu merkeak hedatu zituztenak itsuak zirela. Horiek prototipo bat osatu dute literaturan Tormesko Lazarilloaz geroztik. XVIII. mendean Madrileko Itsuen Anaitasunak bazeukan pribilegio bat, zeinaren arabera heriotza zigorra pairatu behar zutenen istorio labur bat

Bi motako gaik ditu tratatzen Etcheparek bere kantuetan: krimenak eta zorigaitz naturalak.

Ligi, Zuberoa.



nari emon. Zenbait mende geroago Txitxo Baztango bandoleroa ere famatua egin zen, Elsoko apaiza izanda gero, sotana zintzilikatu eta aberatsei kentzen ziena pobreei emateko.



Errefrau zaharretan ere ageri zaizkigu ohoïn eta urkatuez moldaturikoak. Hala, *Igazko lapurrok aurtengoen urkatzaila* (Refranes y Sentencias, 96), *Urkatu baten hobian ehun gaxtagin ehorzten dira* (Oihenart, 459), alegia gaxtagin baten urkatzeak beste ehun zuhurtzen dituela, edota *Ohoïn handiak urkaerazten ditu xipiak* (Oihenart, 657). Ez zaigu ageri bilduman bandido onik. Lorrenako eta San Modinako *brigantak*, hiltzaileak, adibidez, bihotz gogorrek ziren, eta hilketaren zio nagusia diru lapurreta izan zutenak.

1841eko otsailaren 2an *Brichquet* famatua heriotzaz zigortu zutenean Donapaleun, jende multzo handi batek ikusi zuen, bere bizitza guztirako markaturik gelditu zelarik. Brixket delakoa **Jean Elichalt** zen deituraz, M. Larrazain Domintxainekoa hil zuena eta Paueko asisetan 1840ko azaroaren 19an kondenatu zutena heriotza zigorrera. Jean Etchecoinek³³ argitzen digunez, jende multzo handia bildu zen haren gillotinatzea ikusteko eta hiltzailea madarikatzeke, baina nola gertatzen zen ikusiz, jendeari oihu egiteko gogoia joan

Juan Antonio Madariaga *Patakon* galdakarra (1796...), zeinari buruz esaten zen errefrau ezagun hura; *Patakon, dekonari kendu eta eztekonari emon*.


omen zitzaion eta begietarik malkoak isurrazten omen zizkion. Baliteke etxean behin baino gehiagotan istorio hori entzuna izatea edo bertso papera irakurria izatea eta bere bizitzarako markaturik gelditzea Etxepare.

Hamalau brigant italiarrez mintzatzen zaigun kanta dugu denboran lehena, 1873koa baita. Bertan, Lataille-ren banda deitzen zen bandido multzoak Marseillako probintzian burutu zituen hilketak eta lapurretak salatzen ditu. Hona hemen xehetasun batzuek. 1871ko maiatzaren 15ean, Malle-mort-en, Martin Durance-ko guardia hil zuten. Abuztuaren 19an, Bastidonne inguruan, Oscar Loueux ganibetaz zauritu eta hil zuten erlojua, arropak eta poltsa lapurtzearren. Irailaren 2tik 3ra ganibetez hil zituzten André Garnier, Veronikako Garnier, horren alaba Euphrasie, Sube anderea, Rosa iloba, Alpeetako Lurs-eko etxaldean. Urriaren 25ean, Elgeard Sautel 44 urteko mezulariari burua hautsi zioten, eta 1871ko azaroaren 4an, Meyrargues-en, Lambert alarguna, 76 urtekoa, asasinatu zuten. Jacques Ribetto bandako partaideak hildakoaren ongiak erosi zituen eta polizia atzetik jarri, eta azkenik, detenitu ondoren, bere kide guztiak salatu zituen. Batzuk betiko galeretara kondenatu zituzten, eta bai Galetto eta bai Gabarino, gillotinarak (*Le Petit Journal*, 1872-VIII-6).

Ama kriminalez edota infantizidieoz baditu Etxeparek bi kanta ondurik. Annick Tillier-ek³⁴ esaten digunez, ez ziren salbuespen jaioberrien hilketak. Ezkongabe, moja, adulterio-gile edota alarguntsak anitz ziren gizartearen gaitzespena sufritu aitzin beren erraietako fruituak akabatzen zituztenak, eta, ondorioz, askotan, salatuak zirenean epaitegira eramana eta batzuetan gillotinatua ere izaten zirenak. Ama eta aita haur hiltzaileak, alegia infantizidak direnean, edota *ama bere alabaz asasinaturik* gertatzen denean istorioan, krimen benetan perbertsoak, naturaren kontrakoak kontatzen dituzte...

Ama alabak hila dugun kasuan, hala nola **Leon-Paul Vitalis eta Maria Boyer**-ek eraginean, honela laburzki gertatu omen zen. Vitalis liburu saltzaileak Maria Boyer bere andregaiaren laguntzaz 1877ko martxoaren 19an, Marseillako hirian, ostiral batez goizeko laurak eta hiru ordu laurdenetan, Marie Salat, Boyer alarguntsa, gozoki eta mertxeria denda baten jabe zena hil zuten, zatikatu eta gorde, baina gorpu laurdenkatua agertu zenean presondegira eraman zituzten. Kartzelako kaperan Bessac apaizak meza eman zuen, Vitalisek eskatu zuen berak laguntzea, baina ukatu egin zitzaion. Urkamendira igo zenean Sébastopol plazan, belaunikaturik, uxerrak heriotza epaia irakurri zion eta Garnier apaizak barkamena eman. 1877ko uztailaren 5a zen. Noski, frantsesez ere konplintarik merezi izan zuten³⁵.

La Tombelle baroiaren hilketa 1873ko urriaren 16an gertatu zen bere Ampouillac-eko jauregian, Cintegabelle-n. Pierre Lasserre eta Philippe Mitron Le Vaineur zerbitzariak, lapurreta helburu, izan ziren hiltzaileak eta jauregiari su eman ziotenak. Poliziak Lasserrerena zen zurgin metro bati jarraiki jakin



zuen nortzu ziren hiltzaileak. Heriotza eguna iritsi zenean, 1874ko martxoaren 5ean, Levaineur lasai dago eta ardoa eskatzen du lukainka bustitzeko; Lasserrek, aldiz, oso urduri, ezin du hitzik atera. Mitronek eskaintzen zaion gurutzea besarkatzen du, aldamenean Pelletan apaiza eta Nicolas Roch borrhoroa dituela, lanturik gabe doa. Lasserre oihuka hasten da, *Mon Dieu Seigneur!* Gilletina akats batez biderdian gelditzen da, baina konpontzen dute eta, berehala, hiltzailearen izu marrasken artean, honen lepora erortzen da eta mozten. Istorio honen xehetasun gehiago irakurle zaleak aurki ditzake Armand Praviel-ek 1936an idatzitako lanean *La Revue Belge*-n³⁶.

Filipinetako hamalau brigantei buruz eta hamazazpi asasinamenduen gainean egin kantari buruz ez dugu albisterik batere. Filipinetako San-Modin irla eta hiriaz, Pedro Bendarez eta Stephano Diaz brigant izugarriez, Jose Pozzolo

Apez pozoindatzalea bezalako istoriarik gutxi aurkituko dugu euskal literaturan.

COMPAGNIE HONORASAC

Marsillaco Probertecian, hamalali Brigant Halinoteec eguin dusten hamar Assassinnamendu Crudelen gainian 1873 an emanac

Airia : Criminelaec bethi, hatacemaac dira orolan

Conte bertec agoston dir argai dion ignemtor ;
Cato lantec bertecian dir, yca yca dir bertecian ;
Hortico bertecian dir, Cato dir bertecian ;
Ser Crimelaco yca dion, Nacion bertecian ;

Brigant bertecian dir, agoston bertecian ;
Dira bertecian agoston, Martecian bertecian ;
Marta yca bertecian dir, yca bertecian bertecian ;
Hortico bertecian, bertecian bertecian ;

Martecian bertecian, bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian, bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian, bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian, bertecian bertecian ;

Conte bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;

Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;
Bertecian bertecian bertecian bertecian ;



Itsua eta emaztea kantari Kanbon (Irudia: Euskal Museoa).

aita errukigarriaz, hamazazpi neskataxaren hiltzaileez, deus ez. Balirudike zazpi mila uharteetan galdurik gaudela. Beraz, euskarazko kantarekin konformatu beharko, bakarrik. Bertso-papera Akizen 1882an agertu zenez, gertakizunak aitzinakoak ziratekeen, noski.

Apez pozoindatzailea bezalako istoriorik gutxi aurkituko dugu euskal literaturan. Horri buruz Lionel Dumarcet-ek idatzi du liburu aski interesgarri eta ongi dokumentatua, berriki argitaratu dena³⁷, zeinak adierazten duen oraindik horrelako aferek sortzen dutela interesik. Bertan ikus dezakegu nola Joseph Auriol, hogeita zortzi urteko apaiz gaztea, Ekialdeko Pirinioetako Nohèdeseko herrixkan, maitemintzen den Alexandrine Vernet maistrarekin, eta nola elkarrekin ihes egin baino lehen lapurtzen eta pozoitzen dituen berarekin bizi ziren Maria eta Rosa Fonda ahizpak 1881. urtean. Izugarritzko eskandalua

sortu zen, noski, garaian, eta betiko galeretara kondenatua izan zen. Bertso-paperean, ilustrazioetan ikusiko dugunez, apaizaren irudia ageri zaigu, La Tombelleren hilketa bertsoan bezalaxe.

Hiltzaileetarik bat badugu euskalduna, **Jean Aguer Mizpirateguy**, *dit le Basque*. Likin jaioa, Zuberoako partean, soldadutza egin eta etxera itzuli zenean badirudi, antza, ez zuela aurkitu oso harrera onik. Ondoren, badoa beste hainbeste gisa deserrira bizimodua aurkitzera. Bordelen suhiltzaile lanetan arituko da, bai eta portuko kaietan zamaketari ere. Ez dirudi beste kriminalen gisa, gaiztakeriarako berezko grinarik zeukanik Agerrek, koplariaren arabera *toki guzietan Aguer konportatu da oneski*, baitio. Baina emaztegai gaixoa, Juliette Andrieux, haur esperantzetan utziko du eta tronpatu eta gero hil egingen du, diru puxka batengatik, antza. Gorpua gorde ondoren badoa ihesi Espainia aldera. Poliziak Landetan aurkituko du, kartzelara eraman eta asisetan kondenatua izango da. Carnot presidente frantsesak, urte batzuk geroago 1894ko ekainaren 25ean Caserio anarkistak hil, eta zeinaren gainean Oxaldek bertsoak moldatu zituen³⁸ heriotza zigorra barkatuko dio eta, 29 urtez, Caledonia aldean desterraturik galeretan bizi behar izango du.

*Le crime de Pecq*³⁹, edota **Louis Aubert** botikari mutilaren hiltzea aurkeztuko dugu, hots, **Fenayrou senar-emazteen** afera, non oso ospetsua izan zen⁴⁰ hilketa burges baten aitzinean aurkitzen garen. Marin Fenayrou botikaria aspalditik tronpatzen du bere andere Gabriellek botikako mutikoa den Louis Aubertekin. Hau Seine ibaian aurkituko dute itoa, berunezko hodi bati atxikia, ahoa andere orratz batez josia eta zango-besoak sokaz loturik. Adrien C. Ritchie, Galles-eko herrialdeko Unibertsitatean irakasle denak, hilketa honen inguruan Mirbeau eta Maupassant-ek idatzitako kronikak aztertzen ditu⁴¹. Maupassantek honela hasten du artikulua bat: *Quel enseignement pour les romanciers que ce fameux drame du Pecq?* Zeren ez baita senar adardun baten mendekio hutsa istorioa, guztiz arrunta litzatekeena. Barre egiten du ohiko kazetariez, eta afera desdramatizatu egin nahi du, egiaren gertuago izatearen ahaleginean, eta ondorio honetara iritsi, alegia, *Gabrielle est tout simplement une femme pareille à beaucoup d'autres*. Beste hamaika andere bezalakoxea omen. Mirbeauk, aldiz, bere umore beltzaren adierazteko erabiliko du gaia, eta bidenabar epaileen sistemak dauzkan kontraesanak salatzeke. Biak, dena den, bakoitzak bere erara baliatuko dira prentsaren bitartez eta gertakizun arrunt batez ariketak egiteko eta ondoren beren lan literarioetan murgiltzeko. Halaber, Jean Etcheparek moral ikaskizuna ez du ahanzten:

*Senharra gillotinatu, andrie galeretan,
Oihu egiten zuten bainan alferretan,
Heiagora marraska bazen karriketan,
Gaztigu ederra da andre ezkonduetan.*

Mirbeau-k, aldiz, bere umore beltzaren adierazteko erabiliko du gaia, eta bidenabar Epaileen sistemak dauzkan kontraesanak salatzeke.



Baina ez ziren benetan besteen kasuetan bezain tragikoak izan ondorioak Fenayroutarrentzat. Kausaren berrikuspenaren ondoren, forma akatsak zirela eta, Marin ez zen gillotinatua izan, Kaledonia Berriara eraman baitzuten, eta Gabrielle Clermonteko Etxe nagusian (Oise) zaindua izan zen.

Eta bukatzeko, **Jean Dauga** buru pikatzailearen bizitza Etcheparek bertsotan eta hitz lauz ematen diguna aurkeztuko dugu. Hau zertxobait osatu eta zuzenduko dugu. Dauga, Cazaubu (Gers) ondoko herri txiki batean jaio zen, Laréen, hain zuzen, bertsoak besterik dioen arren. Gazterik hasi zen jende akabatzen, zeren 1869an jadanik bere lagun errotazain bat hil omen zuen Laréeko eiheran. Soldaduska burututakoan Vosgeak aldean kokatu zen jendarme gisa. Itzultzen da Gersera 1881ean, eta hantxe Courrèges alarguntsa mailukadaz hiltzen du. Gerseko asisak, frogarik ezean, libre uzten du (1881-X-28). Vosgeetara itzuli eta inprimatzaile lanetan hasten da, eta etengabe jende hiltzen. Hala Pernod senar-emazteak; Martin senar-emazte tapizegileak, Saint-Naborden, 1888ko martxoaren 15ean; Sulzer senar-emazte oihalgileak, 1888ko azaroaren 18an; Ferry anderea, 1889ko otsailaren 5ean; eta François alarguna, handik bi egunera. Hainbeste hilketaren ondoren, azkenean, preso hartu zuten, juzgatu eta gillotinara kondenatu. Antza denez, berak beti ukatu arren eta berarekin injustizia egiten zela aldarrikatu, maiz ibiltzen zen pute-txeetan eta jokoan xahutzen osturiko diruak, diru lapurreta izan zelarik hilketen arrazoia. Heriotza zigorraren egunean 06:55ean jaiki, lasai jantzi, zigarrotxo bat erre, kafe beltza ron ttantaz bustia edan eta lasaiki idatzi zion emazteari. Aitortu, barkazioa lortu eta komunioa ere hartu ondoren, zigorra eman zioten. Ia bakarrik hil zuten, ordea, jendetza, bi mila pertsona inguru, beste leku batean bildurik baitzegoen, hau da Hegoaldeko hilerrian⁴².

Gertakizun horretaz oihartzun egin zen ere *Eskalduna*, Baionako astekaria, honela komentatuz *Petite chronique* atalaren azpian: *Krimaric izigarrienac noiz nahi eginac dira Frantzian. Dauga deitzen den kriminel handi bat hiltzera kondenatua izan da aste huntan; laur presuna bazituen asasinaturic berrikitan eta lehenago ere uste dute bazuen bertze zombait hilic. Haren prosesean yendea saldoka ibili da eta izigarri muntatua izan da asasinazalearen kontra. Presondegirat ereman dutenean populuac laurdengatu nahi zuen; lanac ukhan dituzte yandarmec gizon trichte haren zaintzer⁴³.*

Irakurleak askietsiko zuenez horrelako istorioen gorabehera tamalgarri frantsesez *faits divers* deituez —telebistan hain gogoko dituztenak batzuek—, aurkez dezadan beste arlo bat.

Hizkuntza eta estiloa

Jean Etchepare Donapaleukoa denez, ez dago dudarik behenafarrera dela darabilen euskalkia. Adibidez, hotsei dagokienez hasperentasuna (h-) eta monoptongazioak (ai > i; au > u...) mantentzen ditu, hala nola: *hasi niz erraten; ni ere hilen nu; haren xerbutxuak gitu estonatzan...* Halaber, hiztegiari hitz mailegu ugari ageri zaizkigu, idazle eta kantari herrikoia zenez, eta ez apaiz kultoa. Adibidez: *akzione, asasinatu, asisa, beztitu, briganta, desordre, frauda, frontera, galerano, gara, gillotina, kantore, konplainta, krima, krudel, kuerda, mala, prefeta, preso, puñal, xefa...* Jakina da, dena den, hitz zenbaitek bide luzea egiten dutela hizkuntza batean txertatu arte.

Literatura balioez mintzatzen bagara, esan behar da gutti estimatu izan ohi dituela kritikari zenbaitek poema eta kanta mota hauek, nabarmenki mespretxatuz. Caro Barojak *Romances de Ciego* liburuaren⁴⁴ aitzinsolas laburrean kontatzen digunez XIX. mendean Agustin Durán izan zen bere *Colección de romances* deitu antologian eman ziena *romances vulgares* delakoei leku, eta sailkatze saio bat proposatu zuena, aski zehatza. Baina hain epai ezkorra erantsi zuen, hainbeste gutxietsi zituen, ezen pentsa daitekeen ondorengo ikerlari anitzetan eraginik ukan zuela. Hots, horrelako jeneroa ez zezaketela arima eta esku garbiek uki, ikuspegi estetikitik eta moraletik areago txar eta gaizto zirelako. Iritzi horren kontra idatzi zuen Caro Barojak, herriak hain gogoko zituen erromantzeetan ez baitziren falta balio dramatiko eta gizatiarrak orokorrean, eta haien pentsamoldeak ezagutzeko apartak zirenez.

Kantu horiek, antzerki ohikoen arabera, hitzaurre moduko bertso formulario batzuekin hasten dira (Pastoraletan *Lehen Pheredikiek* bete ohi duten funtzio berarekin). Gero, kontakizuna edo istorioa dator, krimena edo hilketak, maiz gertatzen zen bezala bat baino gehiago gertatzen zirenean, alegia ekintza. Eta azken hitzarekin (edo *Azken Pheredikia*) bukatzen dira, non ekintza odol-

**Krimaric izigarrienac noiz nahi eginac dira Frantzian. Dauga deitzen den kriminel handi bat hiltzera kondenatua izan da aste huntan.
(*Eskalduna*, 1889-XII-6).**



tsuari darraion zigor exenplu emalea ageriko den, azpimarratuz istorioari darion ikaskizuna.

Kantu berriak deitu horiek topikoz eta formulaz josiak zeuden, eta Frédéric Chauvaud-ek⁴⁵ azpimarratzen digunez, botereak bere ideologia propioa hedatzeko eta zabaltzeko erabiltzen zituen: gizartearen natura orokorra baiez-tatzeko, moralaren garrantzia indartzeko, eta betidaniko Ongiaren eta Gaizkiaren arteko borrokaz aritzeko. Noski, Boterearen eta Justiziaren ekintza eredu-garriak argi eta garbi uzteko. Eta horretarako heriotza zigorra, gillotina erabiliko zen Frantzia XVIII. mende bukaeraz gozotik heriotza zigorra go-


xatzearren, antza , eta Espainian, urkamendia. Jean Michel Moreauk eta Ernest Schnaiter-ek honela pintatzen digute XIX. mendeko konplainten kantaria: ohol batera igoa, drama odoltsuaren istorioa kontatzen diolarik jendetzari. Oihal handi bat dauka aurrez aurre, lau edo sei karratutan banatua, non hiltetaren une ezberdinak ageri diren. Hiltzaileak bere aizto izugarriekin zoro moduan dihardu eta biktimek begitarte izutua darakusate.

François du Sorbier⁴⁶ irakasleak Ingalaterrako biografia kriminala aurkezterakoan, beraien zabalkundea, bilakaera eta irakurleria ikertzen digu literatura ondorio hauetara iritsiz, alegia, kritikagintzan literatura klasikoaren eta herrikoiaren artean ezarri ohi diren mugak faltsuak direla eta hautsi egin behar direla, be-reizketa hori azterketa sakon batek ezabatu egiten baitu. Gaizkileak produkzio idatzian XVIII. mendean, eta geroago ere bai, leku garrantzitsu eta nabarmena hartzen duela egunkarietako istorioetan, aitorpenetan, Justiziaren epai-erabakietan, hiltzaileen istorio-bildumetan eta bestetan. Nork ez du ezagutzen, adibidez, Defoeren eleberrietariko baten heroina den Moll Flanders anderea?

Jean-Pierre Seguin-ek⁴⁷ bere aldetik dioskunez, kanta horietan hainbeste aipatzen da Antzinatea eta erlijioa, eta hain da handia exenplu ematearen gogo



St. Palais (B.-P.) — Rue Thiers



Jⁿ Bto Barhabure et fils. St. Palais.



St. Palais (B.-P.) — Place de l'Hôtel de Ville

koplariaren baitan, ezen hilketaren istorioa kontatzeari aski leku gutxi uzten dion. Halaber, Daniel Giraudon⁴⁸, Britainian hiltzaileen inguruan sorturiko baladak berrogeita hamarren bat arakatuta, honako ondorioetara iristen da. Alegia, ikus dezakegula nola bertso-paper horiek erantzun ahal izan dioten frantsesez gutxi alfabetatua den entzule eta hartzaileari, baina bere txokotik eta bakardadetik irten eta kanpoan zer gertatzen den ere jakin nahi duenari. XIX. mendean erruz eta modu nabarmenez zabaltzen ari den prentsa, egunkari eta astekarietan elikatzen dela koplakaria. Egunerokotasunean aurkitzen dituela albisteak, batez ere krimenen ingurukoak, bai baitaki oso gogoko dituela gai tragikoak bere entzuleak. Eta, azkenik, mezuak ez direla batere iraultzaileak, kontserbadoreak baizik, aginte zibil eta erlijiosoak inposatuak, noski. Areago oraindik, gertaera tragikoak tratatzeko modu berezi horren bitartez bi sosesan saldu bere bertso-paperekin saiatu izan dela eta ahalegindu, bere neurri apa-lean, garaiko bortizkeria eta hilketen kontrako borrokan.

Aski indar duten esamolde patetikoak eta esklamazioak maiz ageri dira istorioetan zehar, hala nola *Hirur Xefen orena izan dute gillotina!*; *Jujatu izan duzte gillotinatzer!* Beraz, istorioaren moldatzeko formulak ugari ageri dira, eta amaitzeko kantak arrunki moraleja daraman ohiko formulaz bukatzen dira:

*Kantu hok eman ditut guziek kantatzeko,
Eta partikulazki neska gaztendako,
Sujeta baita ongi exenplu hartzeko,
Aita-Amak ohora luzaz bizitzeko.*

Balio horiek guztiak eta beste asko kontuan hartuta, Orixek 1927an *Euzkadi* aldizkarian plazaratu *Los reos poetas* artikuluan⁴⁹ proposatzen zuen, beti gutxietsi eta ongi ezagutu ez den tradizioa berrirakurtzea eta haien bideari jarraitzea, berak Imozko apaizgaiaren kasuarekin egin zuen bezala *Euskaldunak* liburuan, ez baitziren ospatzen krimen famatuak, damu handiak baizik.

Kantak eta doinuak

Iritsi zaizkigun hamahiru kantetarik gehienak, hots, hamaika egitura honetakoak dira: 13AAAA. Beraz, lauko hamahirusilabadunak dira bertsoak. Lehena (18AAAA), eta laugarrena izan ezik (13AAA6A13A6A), beraz ez dezakegu esan arlo honetan aldaketa anitz eta ugaritasunik dagoenik, baizik eta tradizio ohikoari (Bordaxuri...) jarraitzen diola.

Jean Baptiste Orpustan⁵⁰ ikerlariaren arabera, Borthegaray urkamendira doneko kanta, Lambert apaiza, *vulgo Belça*, hiltzeagatik, 1723. urte ingurukoa litzateke, eta beraz, tradizio honen lehenetarikoa jo dezakegu. Iraultza garaian zertxobait gutxiagotzen diren arren krimen eta zorigaitzen gainean moldatu

Kritikagintzan literatura klasikoa eta herrikoia-aren artean ezarri ohi diren mugal faltsuak direla eta hautsi egin behar direla.

kantak, XIX. mendean berriro ugari izan dira. Pariseko Liburutegi Nazionalean, esan bezala, ehunka *complainte* aurki daitezke frantsesez. Horien artean, gutxi batzuk euskaraz, oso gutxi gure gogorako, baina ez horregatik zokoratu edo baztertu beharrak, esan nahi digunak, oroitzen baditugu Michelen hitzak, anitz galdu bide direla. XIX. mende hasieran, 1817an justuki, Rodez-en hil zuten Fualdès magistratua, eta haren hiltzailearen epaiketa oso kasu famatua bilakatu zen. Eta gutxienez bi konplainta moldatu ziren okasio askotan kantatu zirenak, zeren geroago moldatuko diren hainbat eta hainbat kantu berrik honako oharrak dakartzate: *Sur l'Air de Fualdès*, eta *Sur l'air de toutes les complaints*. Alegia, Fualdèsen doinuaren arabera. Halaber *Gure Herrian*⁵¹ ematen dutenean 1815eko Bordaxuriren edo Galerianoaren kantuak Nehor eta C. Dufau-k azpitolu hau ezartzen diote: *Krima itsusi guzien airean*.

Hona Etcheparek erabili zituen doinuak bere euskal kanta berrietan: *Kriminelak bethi hatzemanak dira orotan; Aita saldu nuzu idi bat bezala; Ura eta arnua; Kantatzera niazu alegera gabe; Nahi gabe ainhitz da mundian gertatzen; Pena dut eta dolore; Lau punduko airea*. Eta XIX. mendean Frantzia guztian zehar oso arruntak⁵² ziren frantses konplaintetan bezala Etcheparek besteok ematen dizkigu: *Air de Fualdès; Maudite neige, tomberas-tu toujours?; Beranger à l'Academie ou T en souviens-tu?; Laissez les roses aux rosiers; Le vin et l'eau; Mon gaillarde Eugène*. Bitxia da ere nola azken aire hori, Madragueko krimenaz ari delarik, dioen zehazki: *Chantée et vendue par les époux ETCHEPARE*. Eta konplaintaren egilea bezala Maurin delako bat ageri da. Ez da, egia esan, oso ohikoa bertso-paperetan agertzea zein den kantaria.

Laburbiltzeko azpimarra dezagun *Kantu Berri* hauen bitartez, Jean Etchepare, koplari bretoiak bezala ahozko tradizioetik zenbait elementu gordez (airea, hasiera eta bukaerak), aldendu egiten dela beraietatik, eta modan zeuden gazeta idatzizko istorioetara hurbiltzen, horietan bezala kasu zenbaitetan irudiez baliatuz testuaren garrantzia, trajikotasuna indartzeko. Halaber, Etcheparek hitz lauz eta modu xume batez ematen dizkigun asasinamenduen **esplikazioak** direlarik eramaten gaituzte esatera, frantsesez deitu *canard* istorio beltzen kontakizunetarako bidean saiotxo bat baitira, aitzindari dugula euskal literaturaren esparruan.

Urkamendiko baladen tradizioari jarraiki (*Aphez Beltxa, Larralde Bordaxuri, Pierre Topet Etxahunen Luistto Irixibauren hil-eresia...*) Manex Etchepareren kantuak aitzina urrats bat direla ezin uka. Eta kontuan hartzen baditugu bertso-paperean inprimalekuak (Baiona, Miarritze, Orthez, Akize, Pau, Foix...) eta euskaraz ez ezik frantsesez ere idazten zituela konplaintak, gaitzaginekin kontrako bere mezua ez zen mugatu Ipar Euskal Herrira soilik, Pirinioetako beste herrialdeetan ere barreiatu bide baitzen.

Gure Herrian ematen dutenean 1815eko Bordaxuriren edo Galerianoaren kantuak Nehor eta C. Dufau-k azpitolu hau ezartzen diote:
krima guzien airean.



Oharrak

1. Honakoa Interneten irakur daitekeen ondoko artikuluaen labur-biltzea dugu: "Jean Etchepare, konplintak (1873-1890), *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca*, vol. 15, UNED, 2010, 171-233.
2. Victor Hugo, 1829, *Le dernier Jour d un condamné*. Paris: Gosseling et Bos-sanges. Itzultzaile: Juan Mari Agirreurreta, Elkar, Donostia 2010.
3. André Tournier & Pierre Lafitte, 1954, *Lexique français-basque*. Bayonne: ed. Herria, 84.
4. Joseph Le Floch, 2001, "Chanteurs de rue et complaints judiciaires. Quelques remarques à propos des complaints françaises", *Histoire et justice, Panorama de la recherche. Le Temps de l Histoire*, nov. 155-168.
5. Anónimo: "Coplas hechas sobre un caso acontecido en Yerez de la Frontera de un hombre que mató a 22 personas.", s. XVI. Ik: Carolina Lecoq, 1988, "*Los pliegos de cordel*" en *las bibliotecas de Paris*. Madrid: Printing Books, s.a., 72.
6. *Tableau de Paris*, 1788. (Paris: Horizons de France, 1947, 156.)
7. Francisque Michel, 1857, *Le Pays Basque...* Paris : F. Didot, 423.
8. Xabier Kaltzakorta, 2000-2, "Jean Etchepareren cantu dolorosac", KARMEL, Bilbao 35-55.
9. *Terceren escu-liburua*, Baiona, E. Lasserre, 1862.
10. Jon Casenave, 2002, *De l article de presse à l essai littéraire, Buruchkak* (1910) *de Jean Etchepare*. UNED ediciones, Madrid.
11. Jean Etchepare, 1961, *Mendekoste gereziak eta beste*. Goiztiri.

12. Pasaiaiko Udaletzeko agirietan 1750-1, zenbakia duena.
13. Cour d Assises des Bouches-du-Rhône. *Complainta dolorosac Marsellaco Probertcian hamalau brigant italianouec egin dusten hamar Assassinamendu crudelen gainian 1873an emanac*. Airia: *Kriminelak bethi hatcemanac dira orotan*. Orthez: J. Goude-Dumesnil, 1873. Euskaltzaindiko liburutegia, Georges Lacomberen artxiboa, 554. zkia.
14. *Complainte sur l'épouvantable naufrage de "la Ville du Havre" Le navire français percé par le navire anglais 226 PASSAYERS ITHORIC. Lau Penduco Airia*. Jean Etchepare. Pau: Impr. nouvelle, (1876). Bibliothèque Nationale de France (Aurrerantzean BNF), YO-2 (Microfiche).
15. BNF, YO- 1.
16. BNF, YO-2 (Microfiche)
17. BNF, YO- 1.
18. BNF, RES ATLAS Z 52 (A,2,3).
19. BNF, RES ATLAS Z 52 (A,2,3)
20. BNF, FCB, MS, n° 29, f. 12. Euskaltzaindiko Liburutegia. Lacomberen artxiboa, 554. zkia.
21. Euskaltzaindiko Liburutegia. Lacomberen artxiboa, 554. zkia.
22. BNF, Fol. WZ 700. Don Bibliothèque Mazarine 9476.
23. BNF, Fol. WZ 700. Don Bibliothèque Mazarine 9476..
24. BNF, Fol. WZ 700. Don Bibliothèque Mazarine 9476..
25. BNF, GR FOL LN16 14.
26. BNF, 8Fm 2148.
27. "Hablo de Lacenaire, Papavoine, Tropmann, Lelier y Barre, Marchandou, Pransini, Prado y Landru. Les cuento cómo Lacenaire hacía versos...", José-Carlos Mainer (ed.), 1999, "La guillotina en París", *Pío Baroja. Obra dispersa y epistolaria. Obras completas*, XVI. Barcelona: Círculo de lectores, 1351-1356.
28. Isabel Segura (ed.), 1984, *Romances horrorosos. Selección de romances de ciego que dan cuenta de crímenes verídicos, atrocidades y otras miserias humanas*. Barcelona: Alta fulla, ix.
29. Julio Caro Baroja, 1969, *Ensayo sobre la literatura de cordel*. Madrid: Revista de Occidente.
30. Julio Caro Baroja (ed.), 1996, *Romances de ciego*. Madrid: Taurus.
31. Berria, 2009ko azaroaren 20 a.
32. David Zapirain, 2009, *Bandoleros vascos*. Tarttalo.
33. Jean Etchecoin, 1933, "La prison de Saint-Palais", *Bulletin de la société des sciences, lettres et arts de Bayonne*, 353.
34. "Au XIXe siècle, les meurtres de nouveau-nés ne sont pas exceptionnels. Célibataires, adultères ou veuves, des milliers de femmes ont été jugées pour ce crime en France. Les archives judiciaires permettent de cerner au plus près les



49. - SAINT-PALAIS (B.-P.). — Rue Thiers

circonstances de leur acte.” Annick Tillier, 2003, “Infanticide: le procès des mères criminelles”, L HISTOIRE, n° 282-12.

35. *Complainte de Vitalis et Maria Boyer. Une femme coupée en morceaux. Assassinat et parricide.* Marseille. Imp. Bernas 1877. BNF, YE -7183.

36. Arnaud Praviel, 1936, “La mort misterieuse du Baron de la Tombelle”, LA REVUE BELGE, 289-323.

37. Lionel Dumarcet, 2006, *Grands Procès. L Affaire Abbé Auriol. Les faits, les protagonistes, l enquête, le procès, les rebondissements et les nouvelles hypothèses.* Paris, De Vecchi.

38. Joanes Oxalde, “CARNOT PRESIDENTAREN HERIOTZEA EKHAİNAREN 24AN 1894AN. “Bayonne, Imprimerie Laignère, rue Jacques Lafitte, 9. “acheté à Saint-Jean de Luz le 28 7bre 1894” (Anton Abbadiaren hitzak eskuz idatziak). BNF, *Recueil de pièces de poésie basque.* Z-71.

39. André Camps, “Le crime du Pecq”, *Gazette Agricole*, Paris, 1882-VI-18;

40. Albert Bataille, 1882, “Affaire Fenayrou”, *Causes criminelles et mondaines.* Paris: E. Dentu, 206-292.

41. Adrian C. Ritchie, "Mirbeau et Maupassant: Deux chroniques sur "Le crime du Pecq" (1882)". *Cahiers Octave Mirbeau*, n°13, mars 2006, 195-196.
42. [http: // site. Voila.fr/guillotine...](http://site.Voila.fr/guillotine...)
43. *Eskualduna*, Baiona, 1889-XII-6.
44. Julio Caro Baroja (ed.) 1996, *Romances de ciego*. Madrid, Taurus, 14.
45. Joseph, Le Floch, aip. art., 101.
46. Françoise du Sorbier, 1986, "La biographie criminelle anglaise", *Dix-huitième siècle. Littératures populaires*. Paris: PU, 167.
47. Jean-Pierre Seguin, 2000, "Canards": une succession ouverte", *La Bibliothèque bleue & les littératures de colportage*. Ed. Thierry Delcourt & Elisabeth Parinet, Paris: École de chartes, 185-193.
48. Daniel Giraudon, 2000, "Complaintes criminelles sur feuilles volantes au XIXe siècle en Basse-Bretagne", *Violence et société en Bretagne et dans les pays celtiques*. Ed. Jean-Yves Carlier, Brest: Centre de Recherche Bretonne et Celtique, 169-198.
49. *Euzkadi*, 1927-V-27.
50. Jean Baptiste Orpustan, 2002, "La chanson de Borthagaray «Urzaiz», *La vallée d'Ossés en Basse-Navarre. Orzaizeko Ibarra. Bidarray, Ossés, Saint-Martin-d'Arrossa*. Baigorri: Ed. Izpegi, 265-273.
51. GURE HERRIA, Baiona, 1922, 20.
52. Hona adibide bat: "Chant funèbre sur la mort du Duc D Orléans, prince royal", Air: *Maudite neige, tomberas-tu toujours ?*, Ach Eyraud, *Histoire de Son Altesse Royal e Monseigneur le Duc D orléans racontées aux enfants*. Dupin, Paris, 1850, 11.





GURE JENDEA, GURE ERROAK

LABORAL Kutxan geure jendea aintzatestea gustatzen zaigu: gauzak beste modu batera egitea aukeratzeko duten pertsonak, egunero gizarte berri bati aurpegia jartzen diotenak eta, euren plan, amets eta kezken bidez, lurrera lotzen gaituztenak.

Horregatik, haien konfiantzari erantzuten saiatzen gara, banka gizatiar eta konprometitu baten alde lan eginez, bere inguruneaz, kide den gizarteaz eta gizarte horren kulturaz, ongizateaz, iraganaz eta etorkizunaz arduratzen den banka baten alde jardunez.

Gure jendeak osatzen ditu gure erroak, eta erroak zaindu egin behar dira.

Bada beste modu bat.



LABORAL
kutxa



MEA CULPA IZAR MENDIGUREN



“Lau urteko zure alabak honakoa galdetu dizu: ‘Noiz aterako zait pitilina?’”. Ez da fikzioa, Arabako bertsolari txapelketako lehen saioko aurreneko barkakorako gaia da. Mea culpa, badakit, ez zenuen espero. Goitik behera puskatu dizu eskema, gauzak behetik gora ikustera ez gaudelako ohituta.

Zaila litzraiguke imajinatzea duela ez hainbeste, bertsolaritzak jendartearen aniztasuna horren zabal ikusi eta elikatzea. Eskertzekoa da gai-jartzaile eta bertsolari batzuek genero ikuspegia egunerokotasunean modu naturalean areagotzeko ahalegina. Dinosaurioen garaian geratuko ote ginen beldur nintzen, mendeetan atzerako ekosistemetan fosilizatuta. Izan ere, behin baino gehiagotan pasa zait: emakumeak esklabo edo menpeko egoeretan azaleratu izan gaituzte, txiste txar eta merkeak ahotan. Konplexurik gabe astin ditzagun gonak. Zorionez, istorioak aldatzen ari dira. Ahalduntzea dela medio, kantukidea errespetatuta (edota gaiari heltzeko hartutako rola) egoerari, geure buruari eta sistemari barre egiten ikasi dugu. Lehen edertasun, estereotipo eta topikoen artean zirikatzeko ohitura gehiago zegoelakoan nago. Dena den, betaurreko moreak erabiltzen hastetik begirada morea izatera, bada aldea. Gatozen abiapuntura, beraz: noraino baldintzatu du generoak bertsolaria?

Ez da iraganeko kontu soila emakumeak zaintza lanetan aritu bitartean, gizonzkoek hartu izana herriko taberna, jatetxe eta plazak. Anekdotikoa irudi lezakeen bizipen eta zapalkuntza bat ekarriko dut gogora: Maurizia Aldaiturriaga panderojoleak “Aupa Maurizia!” oihukatzen zuen mikrofonotik Leon Bilbao albokariarekin jotzen zuen aldiro, babes gutxi zuenez, bere burua animatzeko. Botere eremuetan kantatzeagatik, oholtzan kasu, sutan erre ez zutenean, gaitzerdi! Ez zuten “zorte” bera izan bizkaitarrek: inkisizio garaian zenbait trobadore erail zituzten inprobisatzeagatik (Foru Aldundiak iaz eskatu zuen barkamena publikoki iraganen hartutako erabaki horienagatik).

Ez dago, ordea, hain urrunera jo beharrik. Bertsolaria bere jarduera publikoagatik epaitua izatera kondenatua dago. Alegia, plazan edo txapelketan kantatua, entzule zein epaileengatik baloratua izango da, izan positiboki edo negatiboki. Nire ustez, zilegi da saioaren ostean sortzailearen jarduna aipatzea, baina gutxiestea? Inprobisazioari eta sormenari bide emanez, ziurtasunaren eta arriskuaren artean dabil dantzian bertsolaria. Ingurumari horretan, genero rolek eragiten al dute bertsolarien jardunean?

TTAKUN

Nire esperientzia apurra kontatuko diuzet: 16 urterekin hasi nintzen bertsoetan, etxean oso kantuzaleak ginelako. Habaneran estreinatu nintzen, puntuka, artean neurriez apenas ezer nekiela, ahizpari adarra jotzeko. Salamancatik bueltan autoan gindoazela izan zen, eta jarria ikusita segituan esan zidan: "Izar, bertso eskolara!". Barnerako lehen begiradan suma nezakeen jendearen iritziak ez zidala horrenbeste axola, horregatik jarraitu nuela bertsoetan, saio bakoitza ondo pasatzeko eta ahalduzko aukeratzat jota. Izan ere, gaiek beste pertsonen ikuspegi, egoera eta arazoak 3 minutuz bizitzeko parada ematen zidaten, gogoetarakoa. Eta, era berean, mikrofonoaren boterea baliatuta, mundu ikuskera zirikatzaile eta eraldatzaile bat azaleratzeko. Bertso-poteoetan arin ohartu nintzen, esaterako, mikrofonorik gabe aritzean, gizonetzkoak altxatzen bazuen ahotsa kantuan hasteko, denak isiltzen zirela; eta emakumeak ginenean, ez. "Zertan ari da neska zoro hau?", esango zion batek baino gehiagok aldamenekoari. Sarritan entzun dut "zelako potentzia duzun, neska!", transmititzen dudan indarragatik. Ziurrenik, beste genero batekoa banintz —edo hala ikusiko banindute— ez lukete berdina esango. Alabaina, nire zenbait joerek harritu naute, eta ez zaizkit gustatu: txapelketetako saioetara dotore eta aukeraturako arroparekin joan izan naiz beti, polit ikusteak motibatuago eta indartsuago sentiaraziko ninduelakoan. Dena den, Txanogorritxuren gisan, ez dut otsoarekin topo egiteko beldurrik izan, eta nahi dudan bidetik egin dut aurrera, batzuetan erreka ertzean lo geratu edota tripan harriak sentitu arren.

Euskal Herriko bertso eskoletan neska-mutil mordoak dabil, duela ez hainbeste gizonetzkoen espazioa bazen ere. Zer gertatzen da, baina, gazteek esko-

larteko fasea bukatzean? Zergatik uzten diote plazan kantatzeari neska gehienek? Saioak antolatzean, genero aniztasun eta parekidetasunari erreparatzen al zaio? Ekitaldi publikoetan —hots, edozein emanalditan— marra gorriak (edo moreak) jartzea beharrezkoa da genero aniztasunaren garrantzia barneratzeko? Ikuspegi feminista nola bultza liteke antolatzaile, sortzaile edo ikus-entzuleen artean?

Erantzuteko galdera eta ariketa asko egiteke ditugu oraindik. Amona bertsolariak zein neskatila gazteak plazetan entzutean, emanaldi parekideen lekuko izatean, Txapelketa Nagusian edota oholtzako ohiko muntaketa lanetan emakumeak aritzean irudituko zait osoa —edo goitik beherako lana— bertsolaritza. Bien bitartean, behetik gora eraiki eta deseraikitzen jarraitu beharko dugu.

Aizue, baina beti ez da barkamena eskatu behar atrebentziagatik. Ez al duzu hala uste, Iñaki? Bertsolaritza ispiluari begiratuta, sendo ikusten al duzu kontua? Gorbata izateak boterea ematen al du? Sentitu edo antzeman al duzu pribilegiorik gizonetzko izateagatik?

•

MANUS MANUM LAVAT IÑAKI GURRUTXAGA



Esku batek bestea garbitzen du. Urteetan, ordea, alde bateko eskuak aritu zarete alde bereko eskuak garbitzen, eta beste aldekoak, zikinkerian lasai. Feminismoa, ordea, lekua hartzen joan da gure egunerokoan eta orain esku guztiek sumatu dugu garbiketa premia.

Galdetzen zenidan, Izar, gizonetzko izateagatik pribilegiorik sentitu edo antzeman dudan. Sentitu, inoiz ez. Antzeman, bai. Hortxe dago, beharbada, gakoa.

Gizonezko zisgenero zuria naiz. Bertsolaritzaren ekosisteman, gipuzkoarra, eta hizkeran, gainera, gipuzkera darabilena. Zentro-zentrokoa, alegia. Hain naturalizatua izan dut nire izate hau, apenas sentitu baitut hor inongo pribilegiarik izan dudarik. Gasteizera lekualdatu nintzen urteen hondarrean konturatu nintzen, ordea, bazela hor pribilegiarik. Antzeman nuen aitortzen zitzaidala halako labeltasun bat, luzera zama ere bihurtu zitzaidana. Alde batetik, neroni nintzen zentroa desnaturalizatu nahia sortu zidan periferiaren kontzientzia hartzeak eta, ondoren, nire izate naturala ukatzetik periferiazentroaren etengabeko espiralean eroso samar dantzatzera ekarri nau. Beti ere zapata handiegiekin, tamalez.

Zentroa eta periferia. Plaza eta sukaldea. Gu, egia esan dezagun, plazarako hezi gintuzten. Baina erdira etorri aurretik, eta orain konturatzen naiz horretaz, askok orduak eman behar izan ditugu aldamenetik begira. Ez dakit autokonplazentzia den, edo errealismo magikoa, baina hala sinetsita nago.

Umetan ezin izan nituen nire adinkide ziren mutilek egiten zituzten zeregin heteronormatibo gorenak burutu: hots, kirolarekin loturiko ezer ez nuen egin, hanka batean izan nuen arazo baten-gatik. Horrela joan zen nire bizitza harik eta hamasei urte bete nituen arte. Beranduegi, kirolariaren ametsa ke ez bihurtzeko. Ez dut uste, gainera, halako egokieran izan den gizonezko bertsolari bakarra naizenik: kasuistika errekurvente samarra ote den susmoa hartuta nago, alde edo molde. Baina, argi: mutila nintzen, hala ere. Nabarmendu behar hori barru-barruan neraman. Plazan behar nuen, hori zen zekokidana, eta horretan ikasi nuen. Di-

ziplina artistikoak ziren nire eremua; musika, hasiera batean; bertsoa, ondoren. Sorkuntza, finean. Eta hara non, horiek ez izan adin-garai horretan bereziki estimatuak eta guaiak. Aurre-rabidea egin genuen, plazan ere ba-geunden, baina auzoko plazatzoxan. Herriko enparantza nagusitik urrun. Periferiako erdigunean.

Gaur egun, epizentrismo horrek behar izateari utzi dio. Bertso-plazako jardunetik erretiratu antzean egon naiz urte luzez, musikan ere ez naiz inoiz frontmana izan. Beste funtzio eta posizio batzuek asebate naute. Plaza publikoa, ordea, ez da inoiz desagertu. Gustatu egiten baitzaigu!

Alabak zakilaren galdera egitea ez zait tokatu bertsoan. Bai bizitza errealean. Eta aludun mutikoak ezagutzea ere egokitu zait eskolan, ni haien irakasle, eta, aldi berean, ikasle, hara paradoxa. Nire gabezia guztiak esplizituki aitortzeko kezkarik ez dut gaur egun, eta dakidana —edo dakidala uste dudana— azaltzeko ere apenas, pretentsio eta harro-haize asmorik gabe. Bataurreko moreak janzea ez baita, nire iritziz, begiratzeko modua bakarrik. Bataurreko moreak janzea norbera lotsarik gabe biluztea ere bada.

Zenioen, Izar, lehen, bertsoan, jendarteko aniztasunak ez zuela lekurik. Ez da zalantzarik oso modu konkretuko targeta zutela helburu eta elikagai. Baina nola berdimentsionatu da guztia? Barrutik kanpora ala kanpotik barrura? Jendartearen aniztasuna txertatu da bertsogintzan, ala bertsogintza joan da

moldatzen jendartera, eta horrek ekarri du itxiturak zabaltzea? Ez dut erantzun garbirik, baina nago bigarrena dela zuzena. Zergatia ez dakit, hala ere.

Tribu guztietan borobileko formazioa izan omen da historikoki bilgunearen ardatz. Hitza hartu nahi izan duena erdira etorri da, eta handik hitz egin die kideei. Kideek ez dute epaitu, nahiz eta begi guztiak erdian izan. Borobilak babestu egin du.

Arazoa, borobiletik kanpo utzi ditugunena izan da. Beti dago norbait, ahaztua edo propio lagatakoa. Izan dira urte luzez emakumeak. Gaur egun, gure mundutxoan borobilean sartu samar daudela esango nuke, hala ere. Orain, erdira etorri eta hitza hartzerako garaian datoz deserosotasunak. Hor kokatzen baitira erdigunekoari aitortza, ertzekoaren belarri-prestutasuna, diskurtsoaren moldaketa. Maskara guztiak erantzi beharra dago tribuko bileretan.

Horixe izan da gure dantza. Nahiko garbi dut, baina konbentzimendu berri-antzekoa da, batzuetan erdigunea dagokidala, eta besteetan periferia. Halaber, dagokidanagatik, askotan ertzean behar nukeenean erdi-erdian egongo naizela eta inork ohartarazi behar harko nauela nire enbarazuaz. Aldi berean, ertzekoak erdira ekartzeko saiatzea ere badela gure lana, ezer baino lehen gu bertatik baztertuta. Baina beti besteie ere ez dagokiela erdigunea.

Esku batek bestea garbitu behar du, eta honetan ere guztiok goaz eskutik helduta. •



GURE SAGARDOA

GORENAK

ZAPIAIN
Ugarriagako Sagardoa
SIDRA NATURAL
SAGARDOA

*Sagarrek ta bertsoak
Ez zuten errimatzen,
Pixkat edanda
Hasi ziren arrimatzen.*

ZENBAIT ZERTZELADA

TESTUA: ABEL ENBEITA



BERTSOLARITZAREN MUNDUAN IZANDAKO NONDIK NORAKO BATZUK IDATZ AHAL NITZAKEEN ESAN ZIDATENEAN, HUSTASUN BAT SUMATU NUEN NIRE BAITAN. Zer konta nezake bertsozaleek ez dakitenik? Baina barneko inurritegiari buelta eman eta idazteari ekin diot.

Bertsolaritzako nire ibilbideak bi ardatz ezberdin izan ditu: bat, oholza gaineko jarduna; eta bestea, bertso eskola eta ikastetxeetakoa.

Oholza gaineko jardunean gaijartzaile gisa hasi nintzen, eta bat-bateko jauzia modu selebrean iritsi zitzaidan. Orominoko Bakixa auzoan ginen eta ni, gaijartzaile. Saioa bukatzerakoan, entzuleen artetik “euk bota eik bat”, oihukatu zuten. Eta ezustea irentsi baino lehen, kantuan aritutako batek (Jon anaia bera)

“entzun dok ezta”?, aldamenetik. Oholek ere oin azpitik ihes egiten zidatela iruditu zitzaidan, baina gelditu gabe bukatu nuen oholtzako nire lehen bertsoa. 18 urte nituen.

Gero, herriz herriko ibilbidean, badira data edo urte berezi batzuk: 1967a, 1969a eta 1987a hain zuzen.

Lehen urtean, 1967an, bi gertakari bitxi bizitzea suertatu zitzaidan. Bat Durangaldeko Izurtza herri zoragarrian, eta bigarrena, Gernikan.

Izurtzan, X. Amuritza, A. Muniategi eta ni neu, A. Enbeita, ginen bertsoan. Giro berezia sumatzen zen inguruan, tentsio ukitu bat. Izan ere, herriko agintariak eta herriko dantzariak talka eginda zeuden. Dantzariak Taldearena

zen “estandarte” edo ikurrinarekin dantzan egin nahi, eta agintariak, Espainiako bandera erabili behar zutela. Azkenean dantzariak, apaizaren baimenagaz, elizan eta beren ikurrarekin dantzatu zuten, eta zelaian dantzatzeari, uko. Ondoren zetorren gure saioa, eta bertsolaria herriaren bozgorailua dela esaten denez, gertatutako arazoari lotuta ekin genion geure ekinari. Aguazila, ordea, itxuraz gustura ez eta, bere makilarekin bozgorailuari kolpeka hasi zitzaigun, “Nahikoa da, behera hortik”, oihukatuz. Iskanbila latza sortu zen agintari eta herritarren artean, eta halaxe bukatu zen gure egun hartako jarduna. Gerora, 25. urteurrena ospatu genuen, berriz hirurok, toki berean.

Bigarrenak, ordea, ondorio latza goak ekarri zizkidan. Gernikako

idazteari ekin diot.

Lurgorri auzoan izan genuen saioa eta gorabeherarik gabe bukatu genuen geure egitekoa. Baina egun batzuetara, herriko aguazil eta postaria zena etorri zitzaidan bere Vespa motorrean, eta paper bat luzatu: *“25.000 pts. de multa por atentat contra la unidad de la patria e injurias al jefe del Estado”*. Halaxe zioen agiriak. Ezagutu ahal izan genuen salatzailea, baina 30 egunez Basauriko kartzela berria ezagutzeko abagunea izan nuen.

1969an, oholtza gaineko nire bidea zeharo aldatuko zuen jautzia eman nuen. Hala, Muxika, guztiz euskalduna eta bertsozalea zen herri batetik, erdaldun hutsa eta bertsoa zer zen ere ez zekien Abornikano herrira aldatu nuen nire bizitza, Bizkaitik Arabara. Horrela, Bizkaian, plazan kantatzea “Gobernadoreak” debekatu bazidan, aldaketa honek bigarren hesi bat jarri zidan, hala nire euskararekiko zein bertsolaritzaiekiko nuen harremana, zeharo murriztuz.

Txapelketako ibilbidean ere badut bitxikeria xeblebre bat: enpatea. Mungian, Bizkaiko Txapelketaren kanporaketan, epaileek Jon Lopategi eta Abel Enbeita puntu berdinetan zirela eta enpatea hausteko bertso bana kantarazi ziguten. Lopategik egin zuen aurrera eta, urte hartan, bere Bizkaiko lehen txapela jantzi. Baina hori gutxi ez eta, hurrengo urtean, Lekeitioko azkenaurreko saioan, Abel Muniategi eta Abel Enbeita

omen ginen enpate. Nola biok ginen Abel, hiruna bertsoarako gaia jarri ziguten: Kain eta Abel. Saio hori ere bukatu genuen eta, hara non, berriz ere enpate. Halaxe geratu zen, biok berdinduta. Muniategik eta biok maiz gogoratzen dugu gure “enpate”tasuna, biok urte berean jaiokak (1942), biok apaizgintzan izanak, biok bertsolari eta biok “enpate”.

Xalbadorren heriotza eguna ere oso gogoan dudana da. Aita, ama eta emaztearekin izan nintzan Urepelen, kantatu ere aitak eta biok kantatu genuen. Egun latza suertatu zitzaigun, batez ere aitari, lagun mina baitzuen.

Bada beste pasarte bat, eta aipatu nahi nuke. Hernandorena jaunari bururatu zitzaion Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldetik bina bertsolari aukeratu eta sariketa bat burutu behar zela. Bururatu eta burutu. Leitza, Bergara eta Gernika aukeratu saioetarako geltoki eta, I. Lazkano eta J.L. Gorrotxategi Gipuzkoatik, Arozamena eta Madariaga Nafarroatik, Xanpun eta Mattin Iparraldetik eta J. Azpillaga eta Abel Enbeita Bizkaitik, eta esperientzia berri bat bizi izan genuen.

1987a oholtza gaineko nire ibilbidearen helmuga gertatu zen. Urte horretan emaztea hil zitzaidan eta bertso kantua etetea erabaki nuen. Dena bat-batean utzi ez banuen ere, ez nuen ez indarrik ezta gogorik, bera baitzen martxan jartzen ninduen motorra.

Baina, dena ez iluna mundu honetan. Niretzat Arabako bertso eskolen sorreran parte hartu eta ezagutu dudana jende zoragarri guzti horrekin nire jarduna partekatzea, harro sentitzeko moduko arrazoia da. Eta nola ez, gaurko Arabako Bertsolari Txapelketan, oholtza gainean eta bat-batean 40 bertsolari ikustea. Baita ikastetxez ikastetxe aurkitu ditudan hala ikasle, nola irakasle. Guzti hori urrez ordaintzerik ez dago.

Oholtza gainean kantukide izateko ohorea izan dudana bertsolari andana ere hor dago. Joanak: Basarri, Uztapide, Xalbador, Lasarte, B. Enbeita, Pujana, Ibarzabal, Agirre, Xanpun, Mattin, Azpilaga, Mugartegi... Nire garaiokak: Lazkano, Gorrotxategi, Mendizabal, Telleria, Peñagarikano, Murua, Muniategi, Mañukorta, Amuritz, Lopategi, Sardui anaiak, Ajuria, nire anai Moises eta Jon, Egaña, Sebastian... Eta gaurko Oihana Perea, Rikardo, Juanjo, Bizkar, R. Santxez, Viñaspre, Manex Agirre, Zigor Enbeita eta abar luzea... benetan ohorea.

Hor gelditzen dira, baita, Euskal Herrian zehar bertsoz agurtutako 225 plazatik gora ere. Altxor gisa dauzkate apuntatuta eta gordeta.

Denetarik izan dut nire bertsolari izan nahi eta iritsi ezinean egin dako ibilbidean, baina azkenean, eta horrekin gelditzen naiz, “Bertsoak entzunez gozatzen ikasi dut”.•

Gai-jartzaile lanetan ari nintzela bertso bat botatzeko eskatu zidaten. Oholek ere oin azpitik ihes egiten zidatela iruditu zitzaidan, baina gelditu gabe bukatu nuen oholtzako nire lehen bertsoa. 18 urte nituen.



POESIA

CAMPIDANDARRA EUSKALDUNENTZAKO



TESTUA: PAOLO ZEDDA ETA
MARCO LUTZU (ERREDAKZIOAN ITZULIA)
ARGAZKIAK: PAOLO ZEDDA ETA
BERTSOLARI ALDIZKARIA





LA POESIA

IMPROVISATA
NELLA
SARDEGNA
MERIDIONALE





SARDINIA, 1,6 MILIOI BIZTANLEREKIN, MEDITERRANEOKO BIGARREN IRLA HANDIENA DA. GEOGRAFIKOKI MENDEBALDEKO MEDITERRANEOAREN ERDIGU-NEAN DAGO, ETA POLITIKOKI ITALIAR ERREPUBLIKAKO HERRIALDE AUTONOMOA DA. Sardinian erdiak du mintzo sardiniera, talde neolatino berriaren parte izan eta barne aldaera ezberdinetan artikulatzen den hizkuntza. Gutxiengo linguistiko historiko gisa formalki aitortua eta babestua da egun estatu italiarrarengatik 482/99 legearen bidez, eta Sardiniako herrialdearengatik 26/1997 eta 22/2018 eskualde legeen bitartez.

Sardiniera, bere aniztasunean, irlan lau forma ezberdinetan praktikatzeko den bat-bateko poesia erabiltzen den hizkuntza da.

Hurrengo orrialdeetan uhartearen hegoaldean daukan zabalduan zentratuko gara, ezaugarri formalen, praktikatzeko den testuinguruaren eta poeten formakuntza metodoen inguruko deskripzioa emanez.

Aurrekari historikoak eta ikerketa nagusiak

Sardiniako inprobisazioaren inguruko dokumentazio historikoak ahozko poesiak zibilizazio literarioetan sufritzen duen txikitasuna pairatzen du, ikerlarien arreta idatzizko ekoizpenean zentratu baita batik bat.

Sardiniako poesia inprobisatuari erreferentzia egiten dion lehen iturria XVII. mendekoa da (Vidal, 1638), *mutetusen* lehen transkripzioak XVIII. mende erdialdean soilik agertzen diren bitartean (Madao 1787), baina ziurrenik za-

LA SARDEGNA, UN MILIONE E SEICENTOMILA ABITANTI, È LA SECONDA ISOLA DEL MEDITERRANEO PER DIMENSIONI. Geograficamente si colloca tra la penisola italiana e quella spagnola, politicamente è una regione autonoma della Repubblica Italiana, storicamente venne conquistata dai catalano-aragonesi (1323) per poi passare alla corona di Spagna fino al 1713, culturalmente ha sviluppato – sebbene con continui scambi e influenze – una serie di peculiarità che la rendono unica nel panorama del Mediterraneo occidentale. Tra queste vi è la lingua, il sardo, appartenente al gruppo romanzo delle lingue indoeuropee e articolata in diverse varietà interne. La lingua sarda è attualmente riconosciuta formalmente e tutelata in quanto lingua appartenente ad una minoranza storica dallo stato italiano con la legge 482/99 e dalla Regione Sardegna con le leggi regionali 26/97 e 22/2018

Il sardo, nelle sue varietà, è la lingua utilizzata nella poesia improvvisata, praticata nell'isola in quattro forme differenti.

Nelle pagine che seguono ci concentreremo su quella diffusa nella parte meridionale dell'isola, fornendo una descrizione sia delle caratteristiche formali (struttura e organizzazione della gara, forme metriche impiegate, modalità di condotta del discorso poetico), sia dei contesti in cui viene praticata e delle modalità di formazione dei poeti.

Cenni storici e principali studi

La documentazione storica intorno all'improvvisazione in Sardegna soffre di quella esiguità che affligge gran parte delle espressioni di poesia orale nelle civiltà letterarie, nelle quali l'attenzione degli studiosi si è concentrata soprattutto sulle produzioni scritte di ispirazione colta.

Sardiniako poesia inprobisatuari erreferentzia egiten dion lehen iturria XVII. mendekoa da, *mutetusen* lehen transkripzioak XVIII. mende erdialdean soilik agertzen diren; baina ziurrenik zaharragoa zen usadio baten lekukoak ziren.

harragoa zen usadio baten lekukoak ziren (Zedda 2008). XIX. mendetik, sardiniarrek eztabaida poetikokoekiko duten pasioa deskribatu dute hainbat bidaiariren kontakizunek (Valery 1837, Smith 1828, Edwards 1889, Vuiller 1893), baita tokiko ikertzaile batzuek ere (Spano 1840). *Mutetus longus* inprobisatuaren transkripzio luzeenak XIX. mende hasierakoak dira, askotan abeslarien izenak aipatuz eta testuinguruaren inguruko informazioa emanez (Piras 1999).

